15

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

kGk

# Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017



EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

15

COLECCIÓN**GAZTEAK**BILDUMA

# Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

**Argitaraldia:** 1.º, 2018ko abendua

**Ale-kopurua:** 500 ale

**©** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila

**Internet:** www.euskadi.eus

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz

**Egileak:** Oskar Longo, Miren Bilbao eta Nieves Corcuera

**Koordinazioa:** Gazteen Euskal Behatokia

**Bildumaren diseinua:** Canaldirecto • www.canal-directo.com

**Azaleko irudia:** iStockphoto

**Maketazioa:** Composiciones Rali, S.A.

**Imprimatzea:** Gráficas DOSBI, S.L.

**ISBN:** 978-84-457-3458-2

**D.L.:** VI 966-2018

# Aurkibidea


**AURKEZPENA** . . . . . . . . . . **9**

**HITZAURREA** . . . . . . . . . . **11**

**METODOLOGIA** . . . . . . . . . . **13**

**1. GAZTEEN LAN-EGOERA ETA EGOERA EKONOMIKOA** . . . . . . . . . . **17**

**1.1. 16-29 urteko gazteen lan-egoera eta egoera ekonomikoa** . . . . . . . . . . **17**

**1.2. 30-34 urteko pertsonen lan-egoera eta egoera ekonomikoa** . . . . . . . . . . **26**

**1.3. Kapituluaren laburpena** . . . . . . . . . . **29**

**2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK: EMANTZIPAZIO-TASA, EMANTZIPATZEKO BATEZ BESTEKO ADINA ETA BIZIKIDETZA-EGOERA** . . . . . . . . . . **31**

**2.1. Emantzipatuta dauden 16-29 urteko pertsonen kuantifikazioa** . . . . . . . . . . **31**

**2.2. Emantzipatutako gazteen eta emantzipatu nahi dutenen arteko aldea** . . . . . . . . . . **39**

**2.3. Emantzipatutako gazteen bizikidetza-egoera** . . . . . . . . . . **42**

**2.4. Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen aurreikuspenak etxebizitza-aldaketei buruz** . . . **46**

**2.5. 30-34 urteko pertsonekiko diferentziak** . . . . . . . . . . **46**

**2.6. Kapituluaren laburpena** . . . . . . . . . . **50**

**3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK: ETXEBIZITZEN ERREGIMENA ETA EZAUGARRIAK** . . . . . . . . . . **53**

**3.1. Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen etxebizitza eskuratzeko moduak** . . . . . . . . . . **54**

3.1.1. 16-29 urteko gazte emantzipatuek jabetzan eskuratutako etxebizitzak . . . . . . . . . . 58

3.1.2. 16-29 urte-bitarteko gazte emantzipatuek alokairuan eskuratutako etxebizitzak . . . . . 59

3.1.3. Emantzipatutako 16-29 urteko gazteek eskuratutako etxebizitza babestuak . . . . . . . . . 61

3.1.4. Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen etxebizitzen ezaugarri fisikoak eta ekipamenduak 63

**3.2. Etxebizitza eskuratzeko moduak 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean** . . . . . . . . . . **66**

3.2.1. Etxebizitza jabetza-erregimenean duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak . . . . . . . . . 69

3.2.2. Etxebizitza alokairuan duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak . . . . . . . . . . 70

3.2.3. Etxebizitza babestuak ........ 71

3.2.4. 30 eta 34 urte bitarteko gazteek emantzipatzean dituzten etxebizitzen ezaugarri fisikoak eta ekipamenduak ........ 73

**3.3. Kapituluaren laburpena ........ 76**

**4. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK: ETXEBIZITZA-GASTUAK ETA ZAILTASUN EKONOMIKOAK ........ 79**

**4.1. 16 eta 29 urte bitarteko gazteek ordaintzen duten hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren hileko gastua ........ 79**

**4.2. Nork ordaintzen du hilero hipoteka-kuota edo alokairu-errenta? ........ 84**

**4.3. Diru-sarreren zer ehuneko erabiltzen den hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko ........ 84**

**4.4. Emantzipatutako gazteen zailtasunak etxebizitzaren gastuei aurre egiteko ........ 87**

**4.5. Familiaren laguntza ekonomikoa jasotzen duten gazteak........ 89**

**4.6. Etxebizitza-gastuak eta horiek ordaintzeko zailtasunak 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean ........ 90**

**4.7. Kapituluaren laburpena ........ 97**

**5. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEAK ........ 99**

**5.1. 16 eta 29 urte bitarteko gazteak eta emantzipazioarekiko eskarmentua ........ 99**

**5.2. Emantzipatzeko gogoa eta aurreikuspenak........ 101**

**5.3. Etxebizitza erosteko edo alokatzeko lehentasuna 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean........ 102**

**5.4. Gurasoen etxeko gastuak ordaintzeko ekarpena ........ 105**

**5.5. 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen egoera ........ 107**

**5.6. Kapituluaren laburpena ........ 109**

**6. EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK ETA BALIABIDEAK........ 111**

**6.1. Emantzipatzeko zailtasunak ........ 111**

6.1.1. Etxebizitza garestia, erosi zein alokatzeko........ 111

6.1.2. Diru-iturri propioak izateko zailtasunak........ 113

6.1.3. Banku-kredituak lortzeko zailtasuna........ 115

6.1.4. Familiaren aurkako jarrera ........ 117

6.1.5. Familiarekin bizitzeak dakarren erosotasunari uko egin nahi ez izatea ........ 118

**6.2. Etxebizitza-zerbitzu publikoetan izena emandakoak ........ 119**

**6.3. Emantzipatzeko zailtasunak 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean ........ 121**

**6.4. Kapituluaren laburpena ........ 123**

8. ONDORIOAK . . . . . . . . . . 125

BIBLIOGRAFIA . . . . . . . . . . 127

GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA . . . . . . . . . . 131

Grafikoen aurkibidea . . . . . . . . . . 131

Taulen aurkibidea . . . . . . . . . . 135

# Aurkezpena

Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa berri honek gazteen emantzipazioa eta etxebizitza eskuratzea ditu ardatz, bildumako laugarren liburukia osatze aldera.

2009ko krisi ekonomikoaren ondorioek oztopatzen dituzte, oraindik ere, Euskadin bizi diren gazteek helduaroan sartzeko izan ditzaketen trantsizio-proiektuak. Horrenbestez, gure lurraldeko gazteak 30 urterekin emantzipatzen dira, batez beste; hau da, arlo horretan Europan nagusi diren herrialdeetan baino nabarmen geroago: zortzi urtetik gorako aldearekin. Emantzipazioa atzeratzen denez, gazteriak ez ezik, gizarte osoak pairatzen ditu ondorioak. Izan ere, aita edo ama izateko unea geroratzen dute gazteek, eta horrek eragin negatiboa du biztanleriaren piramidearen egituran, gero eta zaharragoa baita.

Txosten honetan 16-34 urteko ia 2.000 gazteren erantzunak aztertu dira, hainbat gai aintzat hartuta: emantzipatzeko eragozpenak, etxebizitza eskuratzeko nahiago dituzten ereduak, alokatzea edo erostea nahiago izateko arrazoiak, familiaren etxea uzteko egin behar dituzten ahalegin ekonomikoen neurria, bizikidetza-ereduak, etxebizitza babestuak...

Ikerketa honek berresten du Euskadiko gazteak emantzipazio goiztiarrago baten irrikaz daudela, baina argi eta garbi azaltzen digu horretarako oztopo ugari dituztela gaur egun ere: soldata txikiak, aldi baterako lanak, eta hainbat gazterentzat ia lorrezinak diren etxebizitzak, alokairuan zein jabetzan.

Espero dugu ikerlan hau lagungarri izatea hobeto ezagutzeko familiaren etxetik irten nahi duten edo jada etxetik irten diren Euskadiko gazteen itxaropenak, zailtasunak eta errealitateak.

Beatriz Artolazabal Albeniz
Eusko Jaurlaritzaren Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailburua

# Hitzaurrea

Gazteen Euskal Behatokiaren helburu nagusi bat da Euskadiko gazteen egoerari buruzko ezagutza kudeatzea; hartara, errealitate horren ikuspegi fidagarri bat helaraziko zaie akademikoei, gazteekin lan egiten dutenei eta gazteria-politiken arduradunei.

Orobat, Gazteen Euskal Behatokiaren azterlanek eta ikerlanek lehentasunez aztertzen dute, besteak beste, nola irteten edo emantzipatzen diren Euskadiko gazteak beren familiaren etxetik.

Bizi-proiektu independente bat izatea gazteriaren oinarrizko xede bat da. Eta enplegu ordaindu bat izatea ezinbesteko baldintza da; izan ere, gazteek gurasoen etxea utzi, emantzipatu eta bizi-proiektu heldu eta independentea hasi ahal izateko, ezinbestekoa da baliabide ekonomiko nahikoak izatea.

16 eta 29 urte bitarteko hainbat pertsonari gai honen gainean egindako inkesta espezifiko batean emandako erantzunak dira ikerlanaren oinarria. Adin-tarte horren beheko muga 16 urtetan ezartzeari dagokionez, gazteen artean egiten diren inkestetan ohikoa da 15 urtetik gorako pertsonak kontuan hartzea, baina emantzipazioa 16 urtetik aurrera lor daiteke legez, adin-nagusitasuna 18 urtera arte ez izan arren (oso gutxi dira, hala ere, adin horretan emantzipatzen direnak). Adin-tartearen goiko muga 29 urtetan dago, horixe baita bai Euskadin bai Espainian gazteriari buruz egiten diren ikerketetan jarri ohi den muga, baita Europako estatistika ofizialetan erabiltzen dena ere. Nolanahi ere, galdera berberak egin zaizkie 30-34 urteko pertsonei, adinak gora egiten duen heinean gazteen bizileku-egoera nola aldatzen den –edo ez den aldatzen– aztertze aldera. Guztira, Euskadin bizi diren 16-34 urteko ia 2.000 gaztek parte hartu dute eskuzabaltasunez.

Aurreko urteetan ere ikerketak egin direnez (bi urtetik behin: 2011n, 2013an eta 2015ean), hiru ikerlan horiei esker ikus dezakegu aztertutako alderdi gehienek izan duten bilakaera, eta aztertutako epea nahiko luzea denez, joera batzuk nabari dira jada. Ziklo ekonomiko konplexuak sortzeko adina denbora izan da, eta gazteen lan-egoeran eragina izan dute bereziki ziklo horiek.

Dokumentua honela egituratuta dago: Ikerlan honetan aztertu diren datuak biltzeko metodologia azaltzen duen atalaren ondoren, sei kapitulutan antolatu da edukia. Lehenik eta behin, gazteen egoera ekonomikoa eta lan-egoera aztertu dira, emantzipatzeko aldez aurreko baldintzekin lotuta dauden aldetik, eta, ondoren, gazteen bizitoki-egoera, emantzipazioa, emantzipazio motak, emantzipazio-aurreikuspenak eta emantzipatzeko eragozpenak hartu dira aztergai. Kapitulu bakoitzean, 16-29 urteko gazteen egoera edo jarrerak aztertu dira. Gai bakoitzari buruz, aurreko urteetako datuak edo beste eremu geografiko batzuetakoak izanez gero, bilakaera eta/edo Europako beste herrialde batzuekiko aldeak aztertu dira. Betiere 30 urtetik beherakoen egoera alderatzen da 30-34 urtekoen egoerarekin, eta kolektiboen arteko diferentziak ba ote dauden aztertu da, bi adin-taldeak kontuan hartuta. Kolektiboen araberako azterketa horretan askotariko aldagaiak erabili dira, ikertutako gaien arabera. Txostena amaitzeko, ikerlanaren emaitza nagusiak laburbildu dira.

# Metodologia

Ikerlan honetan metodologia kuantitatiboa erabili da; horretarako, elkarrizketa indibidualak egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde historiko bakoitzeko 16-34 urteko gazteen lagin adierazgarri bati. Guztira, 1919 inkesta egin dira: 481 Araban, 761 Bizkaian, eta 677 Gipuzkoan.

Elkarrizketak etxez etxe egin dira eta, horretarako, galdera-sorta egituratuak erabili dira. Galdera gehienetan erantzun itxiak eskatu dira; hau da, eskainitako erantzun-aukeren artean bat hautatzeko. Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, inkestari erantzun dioten gazteek nahi zuten hizkuntzaren arabera.

Inkestari erantzuteko pertsonen hautapen-prozedura fase anitzeko laginketa geruzatuarekin egin da. Lehenik eta behin, ibilbide kopuru bat zehaztu da lurralde historiko bakoitzeko: 25 ibilbide Araban, 40 Bizkaian, eta 35 Gipuzkoan. Gero inkestak zer udalerritan egingo diren hautatu da, aldez aurretik ezarritako ibilbide kopuruaren arabera, lurralde bakoitzeko eskualde eta udalerrietan gazteak nola banatuta dauden kontuan hartuta. Udalerriak tamainaren arabera sailkatu dira: 10.000 biztanletik beherako udalerriak, 10.000-120.000 biztanleko udalerriak, eta hiriburuak.

Zehazki, Arabako 25 ibilbideak honela banatu dira: 4 ibilbide 10.000 biztanletik beherako udalerrietan (ezaugarri hori duten udalerri batean edo batzuetan osatu dira ibilbideak, honako hauek hautatuta: Aiara, Artziniega, Zuia, Legutio, Agurain, Donemiliaga, Oion, Lantziego), 2 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Laudio eta Amurrio) eta 19 ibilbide Gasteizen.

Bizkaiko 40 ibilbideak honela banatu dira: 7 ibilbide 10.000 biztanletik beherako udalerrietan (ibilbide bakoitza bi edo hiru udalerritan osatu da, honako hauek hautatuta: Ortuella – Zierbena, Lekeitio – Ispaster, Zalla – Sopuerta, Berriz – Garai, Gorliz – Lemoiz, Igorre – Artea, Mundaka – Busturia – Ea); 21 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Leioa –ibilbide bat baino gehiago udalerri bakoitzean– eta Galdakao, Arrigorriaga, Durango, Amorebieta-Etxano, Mungia, Sopela, Gernika-Lumo –ibilbide bat udalerri bakoitzean); eta 12 ibilbide Bilbon.

Azkenik, Gipuzkoako 35 ibilbideak honela banatu dira: 8 ibilbide 10.000 biztanletik beherako udalerrietan (ibilbide bakoitza bi udalerritan osatu da: Zumarraga – Itsasondo, Ordizia – Zaldibia, Zumaia – Getaria, Aretxabaleta – Leintz-Gatzaga, Urnieta – Astigarraga, Villabona – Anoeta, Ibarra – Irura, Deba – Mendaro), 18 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Irun, Errenteria, Hernani, Eibar eta Zarautz –ibilbide bat baino gehiago udalerri bakoitzean– eta Hondarribia, Lasarte-Oria, Pasaia, Azpeitia, Beasain, Arrasate, Bergara eta Tolosa –ibilbide bat udalerri bakoitzean), eta azkenik, 9 ibilbide Donostian.

Udalerri bakoitzean bisitatu beharreko etxebizitzak aukeratzeko, abiapuntu aleatorio bat adierazi da, eta ezarritako ibilbidea jarraitu da, txandakako atalondoetara joanda. Ezkaratz bakoitzeko solairu bakoitzean inkesta bat egiteko muga jarri da, eta hamar etxebizitzako multzo bakoitzeko ezin zen inkesta bakar bat baino gehiago egin. Elkarrizketatu beharreko gazteak aukeratzeko azken irizpideak sexuarekin, adinarekin eta okupazio nagusiarekin lotutako kuotak izan dira.

Elkarrizketatu beharreko pertsona bakoitza aukeratu ondoren, inkesta aurkezten duen gutuna erakutsi zaio. Aurkezpen-gutun horrek adierazten du Gazteen Euskal Behatokiarentzako ikerlana dela, eta erantzunak guztiz anonimoak eta konfidentzialak direla. Halaber, gutunak azaltzen du elkarrizketatu guztien eskura dagoela harremanetarako telefono bat, zalantzak edo beste edozein gai argitzeko.

Elkarrizketen amaieran telefono zenbakia eskatu zaie elkarrizketatuei, inkesten kalitatea telefonoz egiaztatu ahal izateko. Kontrol horren helburua da ibilbideak, kuotak eta galdetegia behar bezala bete direla bermatzea. Akatsak aurkitu direnean, zuzendu dira, ahal izanez gero, eta bestela inkesta horiek baliogabetu dira, udalerri berean ezaugarri soziodemografiko berberak dituzten gazteei egindako inkesten bidez ordezkatuta.

Kalitate-kontrol hori, telefonoz ez ezik, aurrez aurre ere egin da. Telefono bidezko ikuskapenean, elkarrizketatutako 1.300 gazteren erantzunak egiaztatu dira, eta euskarri magnetikoan grabatu dira ikuskapen horretarako egindako elkarrizketak. Aurrez aurreko ikuskapenean, berriz, ausaz hautatu dira elkarrizketatzaile bakoitzaren landa-lanari dagozkion zenbait etxebizitza, bai eta telefono bidez egiaztatu ezin zirenak ere (telefonoa beti komunikatzen, deia mugatuak, mugikorra itzalita edo estaldurarik gabe...). Guztira, elkarrizketen % 74,7 kontrolatu dira: % 65,1 telefono bidez eta gainerakoak (% 9,6) aurrez aurre.

Landa-lan hori (kalitate-kontrolaren ondoren baliogabetutako elkarrizketak errepikatzea barnean hartuta) 2017ko azaroaren 6tik abenduaren 15era bitartean egin da.

Inkesta guztiak baliozkotu ostean, datu-base batean grabatu dira, SPSS pakete informatikoaren bitartez analisi estatistikoa egiteko. Emaitzak haztatu dira, eta milakotan adierazi, EAEko lurralde historiko eta eskualdeetako biztanle gazteen banaketaren arabera, eta aintzat hartutako adin-taldeetan benetan nola banatuta dauden kontuan hartuta. Horretarako, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) biztanleriari buruz argitaratutako datu ofizialak oinarri hartu dira.

Lagin-errorea, lagina erabat ausazkoa izateari legokiokeena, ± % 2,2koa da Euskadiko gazteen artean, konfiantza-maila % 95,5ekoa eta p=q=0,5.

Lagin orokorrean kolektibo jakin bateko banakoak hautatzeak hasierako lagin-errorea handiagoa izatea dakar. Horregatik, zenbait datu aztertutako fenomenoaren hurbilketak dira, magnitude zehatzak baino gehiago. Nolanahi ere, tauletan adierazi da kolektibo bakoitzari berariaz egindako inkesten kopurua (n).

Eskuarki bereizketa egiteko erabili diren aldagai nagusiak eta dagozkien kategoriak honako hauek dira:

- Sexua: emakumeak, gizonak.
- Adin-taldeak: 16-19 urte, 20-24 urte, 25-29 urte, 30-34 urte.
- Lurralde historikoa (bizilekua): Araba, Bizkaia, Gipuzkoa.
- Udalerriaren tamaina: txikia (10.000 biztanle baino gutxiago), ertaina (10.000 biztanletik 120.000 biztanlera bitartekoa), hiriburua.
- Jaiolekua: Euskadi (Araba, Bizkaia edo Gipuzkoa), Espainiako beste lurralde batzuk (kategoria hori ez dago tauletan adierazita, aztertutako laginean oso gazte gutxi baitira kategoria horretan daudenak), atzerriko herrialdeak.
- Gizarte-klasea: altua, ertain-altua, ertaina, baxua, ertain-baxua.

- Okupazio nagusia: ikasten, lanean, lanik gabe, beste batzuk (azken kategoria hori ez dago tauletan adierazita, oso gazte gutxi baitira kategoria horretan daudenak).

- Etxebizitza eskuratzeko modua: erosketa, alokairua.

- Etxebizitza izateko modua: jabetza, alokairua.

- Hilean eskura duten dirua: 1.200 € baino gutxiago, 1.200 € baino gehiago.

- Etxebizitzako gastuei aurre egiteko arazoak (hipoteka edo alokairua, argi-indarra, ura, gasa...): bai, ez.

- Gehiegizko esfortzu ekonomikoa (etxeko diru-sarreren % 40tik gora hipotekaren kuota edo alokairuaren errenta ordaintzeko erabili beharra): bai, ez.

Ikerketaren diseinua, emaitzei buruzko azterketa eta txostena egitea Gazteen Euskal Behatokiaren erabateko erantzukizuna dira.

Landa-lana, berriz, *Ingartek enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak berariaz adierazitako jarraibideen arabera. Inkesten kontrol-kalitaterako, beste enpresa baten laguntza izan dugu: Iritzi, Investigación Social.*

# 1

# Gazteen lan-egoera eta egoera ekonomikoa

Edozein gaztek bere burua trebatzeko eta emantzipatzeko prozesuan lor dezakeen gailurra da gurasoen etxetik irtetea eta emantzipatzea: familiaren etxetik irten eta bere gain hartzen ditu egoera horrek dakartzan erantzukizun guztiak.

Emantzipazioa lortzeko bidean, gazte batek eman behar duen lehen urratsa da independentzia ekonomikoa bermatzea, lan ordaindu baten bidez lortzen dituen diru-sarreren bitartez.

Kapitulu honen helburua da 16-29 urteko gazteen lan-egoera, soldatak eta kontratuen baldintzak aztertzea, eta 30-34 urtekoen egoerarekin alderatzea.

Lana okupazio nagusi duten gazteen lan-egoera aztertuz, gazteen enpleguaren kalitateak emantzipaziorako aukera ematen duen argitzen ahaleginduko gara.

## 1.1. 16-29 URTEKO GAZTEEN LAN-EGOERA ETA EGOERA EKONOMIKOA

16-29 urteko gazteen okupazio-egiturari erreparatzen badiogu, Euskadiko gazteen emantzipazioaren errealitatera hurbiltzeko lehen urratsa egingo dugu.

EB28ko beste estatu kide batzuetan laguntzak izaten dituzte adin nagusiko pertsonek, unibertsitateko ikasketak hastearekin batera familiaren etxetik irten daitezen. Euskadin, ordea, nahikoa ordaindutako lana lortu arte ez dira hasten gazteak emantzipatzeko aukera aztertzen.

### Baina, zer adinetan hasten da gazteen lanbide-ibilbidea Euskadin?

Euskadin 16-29 urte bitarteko gazteen % 54,4k ikastea du jarduera nagusi. Enplegu ordaindu batean lan egitea da % 35,4ren jarduera nagusia; lanik gabe dago gaur egun % 6,7; eta, azkenik, % 3,5 beste egoeraren batean dago.

Lehenengo adin-taldea 16-19 urteko gazteena, emantzipatzeko gaitasunik gabekotzat har daiteke zuzenean; izan ere, gazte horien % 93,2k ikastea du jarduera nagusi. Horrek ez du esan nahi lan ordainduren bat ez daukatenik, baina oraindik ere ikasletzat dute beren burua; eta, aurrerago ikusiko dugunez, emantzipatzeak kostu handiak ditu Euskadin, beraz, gazte horien emantzipazio-probabilitatea oso txikia da. Euskadin bizi diren adin horretako gazteen % 3,5ek soilik du lana jarduera nagusi. Adin horretan goi-mailako ikasketak eginak izatea ia ezinezkoa denez, eta kontuan hartuz gero zenbat eta goragokoak izan ikasketak orduan eta handiagoak direla diru-sarrerak, bistakoa da gazte horiek emantzipatzeko lehen baldintza bete arren (diru-iturri propioa izatea), ez dutela emantzipatzeko aukera handirik.

Aztertutako hurrengo taldeak, 20-24 urteko gazteen multzoak, bestelako banaketa du, okupazio nagusia kontuan hartuta. Lanean ari direnen ehunekoa handiagoa da, eta ikasten ari direnena, berriz, txikiagoa. Hala eta guztiz ere, 20-24 urteko pertsonek antzekotasun gehiago dituzte 16-19 urteko gazteekin, 25-29 urtekoekin baino. Hau da, multzo horretan ere gehienak ikasten ari dira (% 61,5), eta lana okupazio nagusi dutenak bigarren tokian daude (% 29,6). Horiez gainera, % 5,8 lanik gabe daude, eta % 3,1 beste egoera batzuetan.

Azkenik, gaztetzat hartzen ditugun pertsona gehienak (16-29 urtekoak) 25-29 urterekin sartzen dira lan-merkatuan (% 65,1 lanean ari da); ikasten ari direnen ehunekoak, berriz, behera egiten du (% 18,1). Bestalde, lan egin nahi arren enplegurik aurkitzen ez duten pertsonen kopuruak gora egiten du (% 11,4); eta, azkenik, % 5,3 beste egoeraren batean dago.

Datu horiek azaltzen dutenez, prestakuntzaren zikloa eta enplegagarritasuna hobetzeko prozesua oso luzea da, eta 25-29 urterekin hasten da gailentzen lan-jarduera gazteen artean. Aurrerago aztertuko dugu lan-merkatuan sartzeko lehen ahalegin horien kalitateak familiaren etxetik emantzipatzeko aukera bermatzen duten.

**1.1 grafikoa**

16-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Zenbait aldagai soziodemografikoren arabera, ez da alde adierazgarririk ikusten; esate baterako, 16-29 urteko pertsonen artean, lanean edo ikasten ari diren pertsonen datuak antzekoak dira emakumeen eta gizonen artean.

Elkarrizketatutako gazteen jaiolekuari erreparatuz gero, atzerrian jaiotako pertsonen artean gutxiagok ikasten dute Euskadin jaiotakoen artean baino, haien langabezia-tasa handiagoa da, eta askoz ere gehiago dira beste egoera batzuetan daudenak, batez ere etxeko lanak egiten. Horregatik guztiagatik, egoera zailetan daude, eta aurrerago ikusiko dugunez, aztertu ditugun ia adierazle guztietan nabari da.

**1.1 taula**

16-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, SEXUAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Sexua | | Jaiotza-lekua | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumeak | Gizonak | Euskadi | Atzerria |
| Ikasten | 54,4 | 54,4 | 54,4 | 55,9 | 45,1 |
| Lanean | 35,4 | 34,7 | 36,0 | 36,3 | 34,6 |
| Langabezian | 6,7 | 6,2 | 7,2 | 6,0 | 8,6 |
| Beste egoera batean | 3,5 | 4,6 | 2,5 | 1,8 | 11,7 |
| *(n)* | *1319* | *661* | *658* | *1025* | *221* |

## Nolakoak dira gazteen enpleguak?

Lehen aurreratu dugunaren ildo beretik, lana lortzea bezain garrantzitsua da lan hori kalitatezkoa izatea, ordainsari nahikoa eta egonkorra bermatzen duena; hau da, lanean ari direla dioten gazteen enpleguen kalitateari erreparatu behar zaio. 2009an hasitako krisiaren ondoren, gazteak lan-merkatuan sartzeko ibilbidean langabezia-tasa handiek eragin nabarmena izan dute (urteak joan ahala behera egiten ari dira), bai eta lan-prekaritateak (soldata txikiak eta aldi baterako enpleguak) eta etorkizunerako ziurgabetasunak ere. Alderdi horiek arazo gehigarriak dira garai kritiko batean, familiaren etxea uzteko garaian, alegia.

Lan-prekaritatearen fenomenoa aztertzeari ekingo diogu, pertsona horiek nolako kontratuekin lan egiten duten behatuz. Lana okupazio nagusi duten gazteen artean, ia erdia aldi baterako lan-kontratuak dituzten gazteak dira (% 47,6). Behin-behinekotasunak eragin handiagoa du emakume langileen artean gizon langileen artean baino (% 52,4 eta % 43,1 hurrenez hurren).

Lehen adierazle horrek esaten digu lan-ibilbideak ez direla ziurrak, eta ez dutela konpromiso ekonomikoak hartzeko ziurtasunik ematen (hipoteka bat sinatzeko, errentamendu-kontratuak sinatzeko, etab.).

**1.2 grafikoa**

LANEAN ARI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEEN KONTRATU MOTA, SEXUAREN ARABERA (%)




Langabeziaren eta aldi baterako lanen arteko lotura aztertuz gero, ikusten dugu aldi baterako lanen ehunekoak gora egiten duela lanik gabe dauden gazteen proportzioak behera egiten duen heinean. 2013an lanean ari ziren 16-29 urteko pertsonen artean aldi baterako lanen proportzioa % 44,0koa zen, eta urte horretan lanik gabe zeuden gazteen proportzioa, berriz, % 18,1ekoa. 2017an langabezia % 6,7 arte jaitsi da 16-29 urteko gazteen artean, baina lanean ari diren gazteen ia erdia (% 47,6) aldi baterako lanak egiten ari da. Ikerlan honetan aztertuko dugu zer ondorio dituen aldi baterako lana izateak gazteen lan-etorkizunari buruzko pertzepzioan, bai eta etorkizunerako dituzten aurreikuspenetan eta asmoetan ere. Edonola ere, bistakoa da aldi baterako lanek ez dutela familiaren etxetik gazterik irteteko bidea zabaltzen, harik eta prekaritatean ez erortzeko berme ekonomikoak lortzen diren arte, bederen.

**1.3 grafikoa**

LANGABEZIAREN ETA ALDI BATERAKO LANEN BILAKAERA 16-29 URTEKO GAZTEEN ARTEAN (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Ikusi dugunez, lan-prekaritatean oinarritutako errealitatea ezkutatzen du gazteen aldi baterako lanen ehunekoak, eta egoera horrek eragozpen handiak dakarzkio gazteen emantzipazio-prozesuari.

Lan-prekaritatean sartzen den beste alderdi bat da zer lanaldi mota egiten den. Batzuetan lanaldi partzialean jardutea erabaki pertsonala izan daiteke, hainbat faktoreren ondorio (kontziliazioa, zaintza, ikasketekin bateratzea, bai eta norberaren nahia ere), baina beste askotan enpresak ezarritako inposizioa da, soldatak neurri handian mugatzen dituena, eta horrek hainbat ondorio ditu, batez ere emantzipatzeko aukerei eta familia bat sortzeko eta seme-alabak izateko aukerei begira.

Ondorengo grafikoan ikusten dugu lanean ari diren gazteen % 29,1 lanaldi partzialean ari direla. Ehuneko hori bereziki adierazgarria da elkarrizketatutako pertsonen sexua aztertuz gero. Emakumeen artean ehuneko horrek gora egiten du, eta % 39,7ra iristen da; hau da, lana jarduera nagusi duten 10 emakume gaztetatik 4 lanaldi partzialean ari dira. Aurrerago ikusiko dugu horrek soldatetan duen eragina, eta bizi-proiektu heldua eraikitzeko prozesuan dituen ondorioak.

**1.4 grafikoa**

LANEAN ARI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEEN LANALDI MOTA, SEXUAREN ARABERA (%)




## Lanaldi partzialen ehunekoa handia bada, zer soldatekin emantzipatu behar dute Euskadiko gazteek?

Euskadin lan egiten duten 16-29 urteko gazteen soldatek ozta-ozta gainditzen dute 1.000 euroko muga (zehazki, 1.093 eurokoak dira, batez beste). 2017ko zenbatekoa handiena da, 2011n hasitako serie guztian; baina, hala eta guztiz ere, soldata txikiak dirudite, batez ere Euskadin etxebizitzek dituzten prezioekin alderatuta, bai erosteko, bai alokatzeko.

Baina, itzul gaitezen soldaten bilakaerara. 2011n, lana okupazio nagusi zuten 16-29 urteko gazteek 998 euroko soldatak irabazten zituzten, batez beste; 2013an soldatek behera egin zuten zertxobait, 966 eurora arte; 2015ean ia lehenera bueltatu ziren, 996 eurora iritsiz; eta 2017an estreinakoz gainditu dute 1.000 euroko muga. Kopuru horiek, igoerak eta jaitsierak gorabehera, ez dirudite nahikoak emantzipazio-proiektuari heltzeko.

Ikusten dugun beste alderdi bat da genero-arrakala dagoela gazteen artean; eta, soldatak zenbatekoak diren kontuan izanda, arrakala hori aintzat hartzekoa da. 2017an gizon gazteek 1.157 euro kobratu dituzte hilean, eta emakume gazteek, berriz, 1.025 euro.

Genero-arrakala horren azalpena, ikerketa honetan bildutako informazioan, lanaldi partzialean dago, neurri batean. Lehen ikusi dugunez, lanaldi partzialak kontuan hartuta, emakume eta gizon gazteen artean ehuneko 20 punturen aldea dago. Lanaldi osoa duten 16-29 urteko pertsonen batez besteko soldata hilean 1.288 eurokoa da Euskadin. Aitzitik, lanaldi partzialean lan egiten dutenen soldata hilean 644 eurokoa da. Atzera egin eta gogora ekartzen badugu Euskadiko gazteen ia heren batek (% 29,1) lanaldi partziala duela, eta hilean 700 euro irabaztera ere ez direla iristen, ulertuko dugu zergatik diren Euskadiko emantzipazio-tasak diren bezalakoak adin horretan.

## Zenbat gazte dira ekonomikoki independenteak?

Euskadiko 16-29 urteko gazteen % 15,7 soilik bizi dira esklusiboki edo nagusiki norberaren diru-sarrerak baliatuta. % 5,2 norberaren eta bikotekidearen diru-sarreretatik bizi dira. % 4,1 esklusiboki edo nagusiki bikotekidearen diru-sarreretatik bizi da. Hiru kategoria horiek batuz gero, 16-29 urteko gazteen % 25,0 bizi dira, nolabait, jatorrizko familiarekiko dependentzia ekonomikorik gabe; eta, aurrerago ikusiko dugunez, zenbateko hori bat dator aipatu adin-taldeko gazte emantzipatuen ehunekoarekin.

Bestalde, % 54,4 esklusiboki edo nagusiki familiaren diru-sarreretatik bizi dira; hau da, gurasoen, aita-amaginarreben, anai-arreben, aitona-amonen eta beste senide batzuen diru-sarreretatik edo beste formularen bat baliatuta.

**1.5 grafikoa**

16-29 URTEKO GAZTEEK BIZITZEKO ERABILTZEN DITUZTEN DIRU-SARREREN JATORRIA (%)




Nagusiki norberaren diru-sarreretatik bizi diren gazteen proportzioa handiagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino (% 17,1 eta % 14,2 hurrenez hurren). Aitzitik, nagusiki bikotekidearen diru-sarreretatik edo norberaren eta bikotekidearen diru-sarreretatik bizi diren emakume gazteen ehunekoa handiagoa da gizonena baino (emakumeen % 12,9 eta gizonen % 5,8 hurrenez hurren).

Nabarmentzekoa da atzerrian jaiotako gazteen artean handiagoa dela nagusiki norberaren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnen ehunekoa, Euskadin jaiotako gazteen artean baino (% 38,2 eta % 21,9 hurrenez hurren).

**1.2 taula**

16-29 URTEKO GAZTEEK BIZITZEKO ERABILTZEN DITUZTEN DIRU-SARREREN JATORRIA, SEXUAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Sexua | | Jaiotza-lekua | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumeak | Gizonak | Euskadi | Atzerria |
| Familiaren (gurasoen, neba-arreben, aiton-amonen…) diru-sarreretatik bizi dira, erabat edo batik bat | 54,4 | 53,9 | 54,9 | 56,3 | 43,4 |
| Beren diru-sarrerak familiaren diru-sarrerekin osatu behar dituzte | 19,4 | 17,3 | 21,3 | 21,4 | 12,3 |
| Beren diru-sarreretatik bizi dira, erabat edo batik bat | 15,7 | 14,2 | 17,1 | 14,4 | 19,9 |
| Bikotekidearen diru-sarreretatik bizi dira, erabat edo batik bat | 4,1 | 6,4 | 2,0 | 2,9 | 10,3 |
| Beren diru-sarrerak eta bikotekidearenak erdi bana jarrita bizi dira | 5,2 | 6,5 | 3,8 | 4,6 | 8,0 |
| Beste egoera batean daude | 1,2 | 1,4 | 0,8 | 0,4 | 5,5 |
| Ed/Ee | 0,1 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,5 |
| *(n)* | *1319* | *661* | *658* | *1025* | *221* |

Galdera hau bakarrik egin zaie emantzipatutako gazteei

Logikoa denez, esklusiboki edo nagusiki norberaren edota norberaren eta bikotekidearen diru-sarreretatik bizi diren gazteen ehunekoak gora egiten du adinarekin. 16-19 urteko adin-taldean 10etik ia 9 familiaren diru-sarreretatik bizi badira ere, ehuneko horrek behera egiten du adinak gora egiten duen heinean: gazteenen artean % 90,9 da, 20-24 urtekoen artean % 57,1 eta 25-29 urtekoen artean % 24,0. Lehen ere ikusi dugunez, azken adin-talde horretan daudenean hasten dira gazteak ehuneko nabarmen batean sartzen lan-merkatuan; beraz, adin horretan norberaren diru-sarrerak erabiltzen hasten dira eta horrek, azken finean, etxebizitza-emantzipazioa dakar.

**1.6 grafikoa**

16-29 URTEKO GAZTEEK BIZITZEKO ERABILTZEN DITUZTEN DIRU-SARREREN JATORRIA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)




Hala eta guztiz ere, lan egitearen ondorioz norberaren diru-iturria izateak ez du esan nahi diru-iturri hori etxebizitza-emantzipazioa bideratzeko nahikoa denik. Eta, Euskadiko 16-29 urteko pertsonek daukaten diruari erreparatzen badiogu, horixe da egoera, antza. Hilean 300 euro baino gutxiago izaten ditu % 48,2k. Horiei erantsiz gero 300 eurotik 600 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten gazteak, % 61,2 ez da 600 eurora iristen, eta Euskadin etxebizitzak duen kostua aztertzen dugunean ikusiko dugu zenbateko hori ez dela nahikoa.

16-29 urteko gazteen % 22k soilik dauka hilean 900 euro baino gehiago. Ehuneko hori eta lehen aztertu dugun independentzia ekonomikoa duten pertsonen ehunekoa antzekoak dira; horrek pentsarazten digu 900 euro horiek direla etxebizitza-emantzipazioa hasteko edo gutxienez prozesu hori planteatzeko gutxieneko kopurua, muga ekonomikoren bat ezartzekotan, gazteen emantzipazioak askotarikoak izan badaitezke ere.

**1.7 grafikoa**

16-29 URTEKO GAZTEEN BANAKETA, HILEAN IZATEN DUTEN DIRUAREN ARABERA (%)




16-29 urteko pertsonak lan-merkatuan sartzeari buruzko adierazleen bilakaerak ehunekoen aldaketa positiboa adierazten badu ere, aldaketa horiek txikiak izan dira, eta zenbatekoek ez dute ahalbidetzen Euskadiko 16-29 urteko gazteen etxebizitza-emantzipazioa.

Lanean ari da adin-bitarte horretakoen % 35,4, baina % 25,0 soilik bizi da norberaren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik, eta % 22,0k ditu hilean 900 eurotik gora. Datu horietatik atera daitekeen ondorioa da emantzipazio-tasak ezin direla izan oso handiak.

Ikusita zer bilakaera duten lanean ari diren gazteen ehunekoak, norberaren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnen ehunekoak eta hilean 900 eurotik gorako diru-sarrerak dauzkaten gazteen ehunekoak, agerikoa da gazteen lan-egoera prekarioa dela. Egoera horrek, bestalde, ez du ez aurrera ez atzera egiten, soldaten igoera hutsalak (bilduma honetan jada aztertuak), langabezia eta behin-behinekotasuna direla-eta.

2013a baino lehen adierazle horiek batera egiten zuten gora eta behera: zenbat eta gazte gehiagok lan egin, orduan eta handiagoa zen norberaren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizitzen zirenen ehunekoa (alegia, gurasoekiko mendekotasun ekonomikorik ez zutenen ehunekoa), bai eta hilean 900 eurotik gorako diru-sarrerak zituztenen ehunekoa ere. Alabaina, joera hori aldatu egin zen, 2009an hasitako krisia, barealdi baten ondoren, 2013an areagotu zenean. Harrezkero, lanean ari diren pertsonen kopuruak gora egiten du (langabezia-tasa behera doa, neurri handi batean enpleguaren kalitatearen kaltetan); norberaren diru-sarreretatik bizi eta hilean 900 eurotik gora dituztenen ehunekoak, berriz, gora ez egiteaz gainera, behera egiten du. Hau da, lan-merkatua suspertzen ari da, baina prekaritate-baldintzetan oinarrituta. Horren ondorioz, soldatak ez dira iristen krisiaren aurreko balioetara, eta baldintza prekarioetan lanean ari direnek murriztu egin behar dituzte beren emantzipazio-asmoak.

**1.8 grafikoa**

16-29 URTEKO GAZTEEN DIRU-SARREREI BURUZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* eta *Emantzipazioa* bildumak)

## 1.2. 30-34 URTEKO PERTSONEN LAN-EGOERA ETA EGOERA EKONOMIKOA

Euskadin, gurasoen etxea utzi eta emantzipatzeko aukerak nabarmen areagotzen dira 30-34 urteko adin-bitartean.

16-29 urte eta 30-34 urte dituztenen adin-taldeek oso abiadura desberdinak dituzte. Lehenengo multzoko gazte gehienak ikasleak dira, eta ez dute diru-iturri propiorik; horrez gainera, diru gutxi daukate hilean (gehienek 900 euro baino gutxiago hilean, eta lan egiten dutenen soldatak ozta-ozta iristen dira 1.000 eurora; zehazki, 1.093 euroko soldatak dituzte batez beste).

30-34 urtekoek okupazio-tasa handiak dituzte: lautik hiru lanean ari direnez, diru-iturri propioak dituzte.

Lan egiten du 30 eta 34 urte-bitartekoen % 73,3k, eta pertsona horiek hilean 1.297 euroko soldata eskuratzen dute, batez beste. Zentzuzkoa da pentsatzea adin-bitarte horretan emantzipazio-tasek gora egiten dutela, eta hala gertatzen dela ikusiko dugu hurrengo kapituluan.

**1.9 grafikoa**

BATEZ BESTEKO SOLDATAREN ETA HILEAN 900 EUROTIK GORAKO DIRU-SARRERAK DITUZTEN PERTSONEN EHUNEKOAREN BILAKAERA. 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO KOLEKTIBOEN ARTEKO ALDERAKETA




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Lana okupazio nagusi duten 30-34 urteko pertsonen kontratu-baldintzak eta 16-29 urteko gazteenak desberdinak dira, ehunekoei erreparatuta. Aldi baterako lanen ehunekoa txikiagoa da adin horretan; hala eta guztiz ere, lanean ari diren gazteen % 29,3k du aldi baterako kontratua. Lanaldi partzialen proportzioak ere behera egiten du; baina bost langile gaztetik batek (% 19,6) lanaldi partziala du oraindik ere. Bestalde, aldaketarik ez dago sexuaren araberako desberdintasunean: 30-34 urteko emakumeak ere prekaritate handiagoan daude gizonak baino. Badirudi zenbait alderdi ez direla inoiz aldatzen, eta beti kolektibo jakin batzuk arazo gehiago izaten dituztela.

**1.10 grafikoa**

30-34 URTEKO LANGILEEN ALDI BATERAKO LANA ETA LANALDI PARTZIALA, SEXUAREN ARABERA (%)




Lehen egiaztatu dugu 16-29 urteko pertsonen artean gora egiten duela lanean ari direnen ehunekoak, baina ez duela gora egiten norberaren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizitzen direla dioten pertsonen ehunekoak. Alabaina, 30-34 urteko pertsonen artean, bikotekidearen diru-sarrerak ere kontuan hartzen direnez, ikusten dugu zertxobait handiagoa dela norberaren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnen kopurua, lanean ari direnena baino. Nolanahi ere, badirudi lanaren kalitateak hobera egiten duela 30 urtetik aurrera, lan egitearen eta independentea izatearen arteko loturaren ikuspegitik bederen.

30 urtetik beherako pertsonen artean, oso handia da lan egiten dutenen ehunekoaren eta lan horrek independentzia ekonomikoa dakarkienen ehunekoaren arteko aldea, eta horrek pentsarazten digu enplegu prekarioak, lanaldi partzialekoak eta soldata txikikoak dituztela. Hiru ezaugarri horiek adierazten digute enplegu horien kalitateak ez duela ematen emantzipazio-prozesuari ziurtasunez ekiteko aukerarik.

**1.11 grafikoa**

LANEAN ARI DIREN GAZTEEN ETA NORBERAREN ETA/EDO BIKOTEKIDEAREN DIRU-SARRERETATIK BIZI DIRENEN EHUNEKOEN BILAKAERA. 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO KOLEKTIBOEN ARTEKO ALDERAKETA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* eta *Emantzipazioa* bildumak)

## 1.3. KAPITULUAREN LABURPENA

Independentzia ekonomikoa emantzipaziorako funtsezko premisa baldin bada, ezin dugu esan, oro har, 25 urtetik beherako pertsonak gurasoen etxetik emantzipatzeko moduan daudenik. Aitzitik, 25-29 urtekoen artean, gehienek lan egiten dute, baina lan-baldintza prekarioak dituzte. 30-34 urtekoen artean, lautik hiruk lan egiten dute, soldata handiagoak eta gurasoengandik emantzipatzeko baldintza hobeak dituzte.

Ikerketa honetan egiaztatu da soldatak zertxobait hobetu direla: lan egiten duten 16-29 urteko gazteen soldata 998 eurokoa zen 2011n, eta 1.093 eurokoa izan da 2017an. Dena dela, hobekuntza horrek ez dakar aldaketa handirik; ez, bederen, gazteen emantzipatzeko aukerak goitik behera aldatzeko adinako aldaketarik.

Azken urteotako susperraldi ekonomikoaren ondorioz, behera egin dute gazteen langabezia-tasek, baina, neurri handi batean, aldi baterako kontratuen kopurua nabarmen handitu delako hobetu da datu hori. Euskadin lan egiten duten gazte gehienek aldi baterako kontratuak dituzte, eta horrek eragin negatiboa du emantzipatzeko aurreikuspenetan, gazteek ez baitute bermatuta diru-sarreren jarraitutasuna.

Orobat, gazteen enpleguaren kalitate faltari begiratuta, desberdintasun nabarmenak daude emakumeen eta gizonen artean. Aldi baterako kontratua duten 16-29 urteko emakumeen ehunekoa handiagoa da, eta adin berean dauden gizonena baino (% 52,4 eta % 43,1 hurrenez hurren), eta lanaldi partzialen kopurua ere askoz ere handiagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino. Egoera hori eta zenbait produkzio-sektoreren feminizazioa dira emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakalaren arrazoi nagusiak.

30-34 urteko pertsonen artean, lan egiten dutenen ehunekoak nabarmen egiten du gora: lautik ia hiruk (% 73,3k) lana du okupazio nagusi. Soldatak ere handiagoak dira lan egiten duten 16-29 urteko gazteenak baino (200 euro gehiagokoak, gutxi gorabehera). Alabaina, aldi baterako lanen ehunekoa nahiko handia da oraindik (hamarretik hiruk du aldi baterako lana), eta egoera horrek ere oztopatu egiten ditu emantzipazio-aukerak.

Lan-merkatuaren egoera makur hori pairatzen dute 30 eta 34 urte bitarteko pertsonek ere, aldi baterako lanak eta soldata txikiak baitituzte horietako askok; hala ere, adin-bitarte horretan eskuratzen dituzte Euskadiko gazte askok emantzipatzeko baldintza batzuk.

# 2

# Emantzipatutako gazteak: emantzipazio-tasa, emantzipatzeko batez besteko adina eta bizikidetza-egoera

Kapitulu honetan aztertuko dugu zenbat gazte bizi diren emantzipatuta eta zer ezaugarri soziodemografiko dituzten. Horrez gainera, konparatu egingo ditugu gazteek amestutako emantzipazio-adin ideala eta egiazko emantzipazio-adina.

Era berean, emantzipazio-ereduak identifikatuko ditugu, zer bizikidetza-egoeratan emantzipatzen diren aztertuta.

Azkenik, 30 urtetik beherako pertsonen egoera eta 30-34 urtekoena alderatuko dira, emantzipatzeko egiten duten bideari erreparatuta.

## 2.1. EMANTZIPATUTA DAUDEN 16-29 URTEKO PERTSONEN KUANTIFIKAZIOA

Ikerketa honetan bildutako datuen arabera, 2017an 16 urtetik 29ra bitarteko gazteen % 22,6 soilik bizi da gurasoen etxetik kanpo. Hau da, 30 urtetik beherako gazteen artean, lautik batek soilik lortu du emantzipazioa.

Beraz, zentzuzkoa da 16-19 urteko gazteen % 0,7 soilik emantzipatu izana, ikasleak eta diru-sarrerarik gabeak baitira gehienak. Ohikoa da emantzipazioa unibertsitate-ikasketak amaitu ondoren gertatzea, bai eta gerora ere. Prestakuntza-aldiak luzatu izan dituzte gazteek beren enplegagarritasuna hobetzeko, eta asmo hori bete izan dute batzuetan.

20-24 urteko adin-taldean, berriz, emantzipatutako pertsonen kopuruak gora egiten du, baina hamarretik bat baino askoz gehiago ez dira (% 14,4).

Azkenik, 25-29 urteko adin-taldean asko igotzen da ehunekoa, eta hortik atera dezakegun ondorioa da adin horretan hasten dela benetan emantzipazioa. 25-29 urteko pertsonen % 47,0 emantzipatuta daude.

**2.1 grafikoa**

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUAK, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)




Euskadiko gazteen multzoari berriro begiratuta, 16-29 urteko etorkinen emantzipazio-tasa askoz ere handiagoa da adin-talde horren batez bestekoa baino. Atzerrian jaiotako etorkin gazteak ez badira jatorrizko familiarekin etorri, Espainian ezartzen direnean "emantzipatuta" daude. Emantzipaziorako urratsak azkarrago egiten dituzte askotan, familia-unitate propioa eratu beharrean daudelako, edo ez dutelako Mediterraneo inguruko herrialdeetako familia-ereduak ematen duen adinako babesik jasotzen familiarengandik.

**2.1 taula**

GURASOENGANDIK EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEAK, SEXUAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Sexua | | Okupazio nagusia | | | Jaiotza-lekua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumeak | Gizonak | Ikasten | Lanean | Langabezian | Euskadi | Atzerria |
| Emantzipatutako gazteak | 22,6 | 25,7 | 19,7 | 6,7 | 42,2 | 39,0 | 17,1 | 42,5 |
| *(n)* | *1319* | *661* | *658* | *647* | *517* | *99* | *1025* | *221* |

Emakume emantzipatuen ehunekoa handiagoa da gizon emantzipatuena baino, eta horren arrazoi nagusia izango da, ziur asko, adin-aldea dagoela, oraindik ere, Euskadin nagusi diren bikote heterosexualetako kideen artean.

Halaber, logikoa den moduan, langileen emantzipazio-tasak ikasleenak baino askoz ere handiagoak dira. Gaur egun lanik gabe dauden pertsona emantzipatuen egoera kezkagarria da.

Hilean eskuragarri duten diru-zenbatekoak ere desberdintasun handiak sortzen ditu emantzipazio-datuetan. Hilero 1.200 eurotik gora dituztenen artean, emantzipatuen ehunekoak gora egiten du, % 57,8ra iritsi arte.

Jaiolekua kontuan hartuz gero, ikusten dugu atzerrian jaiotako pertsonen presentziak eragin onuragarria duela emantzipazio-tasan. Euskadin bizi diren 16-29 urteko gazteen artean, oro har, emantzipatuta daudenak % 22,6 dira, baina ehuneko hori txikiagoa da Euskadin jaio direnak soilik kontuan hartuz gero (% 17,1). Aitzitik, atzerrian jaiotakoen % 42,5 bizi da emantzipatuta.

16-29 urteko pertsonen emantzipazio-tasak gora egin zuen Euskadin 2004tik 2013ra bitarteko aldian. Urte horietan, % 14,4tik % 27,2ra aldatu zen proportzioa. Alabaina, ehunekoak bilakaera negatiboa izan du azken lau urteotan, eta 2017ko emantzipazio-tasa 2011 baino lehenagoko kopuruetara jaitsi da (% 22,6).

**2.2 grafikoa**

EUSKADIKO 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN KOPURUAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* eta *Emantzipazioa* bildumak)

Emantzipatutako pertsonen ehunekoaren bilakaera, jaiolekuaren arabera, nahiko egonkorra izan da Euskadin jaiotako gazteen artean: % 12,4koa izan zen 2004an, % 14,9koa 2008an eta % 19,5ekoa 2011n. Gazteen Euskal Behatokiak bildutako datuen arabera, 2013. urtean izan zen handiena proportzioa (% 20,4koa), beherazko joerari ekin zion 2015ean (% 19,2), eta % 17,1ekoa da gaur egun. Grafikoan ikusten denez, Euskadin jaiotako 30 urtetik beherako gazteen artean, bostetik bat dago emantzipatuta, gutxi gorabehera.

Atzerrian jaiotako 30 urtetik beherako gazteen artean, ordea, oso ehuneko altuak izan dira 2004az geroztik. Egia da elkarrizketatutako gazteen kopurua txikia izateak eragina izan dezakeela datuaren nolakoan eta datu horren aldaketetan; baina, zenbateko txikienak kontuan hartuta ere, atzerrian jaiotako pertsonen emantzipazioa hiru aldiz handiagoa da, Euskadin jaiotako gazteena baino. Ehuneko handiena 2008 eta 2011 urteen bitartean erregistratu zen, urte horietan, Euskadin, emantzipatuta bizi baitzen atzerrian jaiotako hamar gaztetik sei. Gaur egungo datuak, ikerketa honek 2017an jasoak, adierazten digu emantzipatuta bizi dela atzerrian jaiotako gazteen % 42,5.

**2.3 grafikoa**

EUSKADIKO 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN KOPURUAREN BILAKAERA, JAIOLEKUAREN ARABERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* eta *Emantzipazioa* bildumak)

## EB28ko estatu kideekin alderatuz gero, nolakoa da Euskadiko gazteen emantzipazioa?

Eurostatek bildutako datuen arabera (argitu behar da estatistika-erakunde horrek emantzipazio-tasaren kontrako balioak adierazten dituela; hau da, gurasoekin bizi diren gazteen ehunekoen berri ematen duela), alde oso handiak daude estatu kideen artean, haien kulturaren, baldintza sozioekonomikoen, estatuek ematen dituzten laguntzen eta estatuen dimentsio geografikoen ondorioz.

EB28ko kopuru orokorrek adierazten dutenez, gazteen % 65,7 bizi da gurasoekin. EB28ko batez bestekoa baino 7 puntu handiagoa da Euskadiko ehunekoa, Zipren, Hungarian, Belgikan eta Txekiar Errepublikan dutenaren antzekoa.

Ehuneko horretatik gora daude (edo, beste modu batera esanda, emantzipazio-tasa txikiagoak dituzte), besteak beste, honako herrialde hauek, gazteen % 80tik gora gurasoekin bizi baitira: Kroazia (% 87,1), Eslovakia (% 85,6), Malta (% 85,1), Italia (% 83,2), Grezia (% 81,4) eta Espainia (% 81,0). Ikusten denez, Europa hegoaldeko herrialdeak dira gehienbat.

Beste muturrean daude Europa iparraldeko herrialdeak, emantzipazio-tasa handikoak; beraz, oraindik ere gurasoekin bizi diren gazteen ehuneko txikiak dituzte, Eurostatek ematen duen indizearen arabera. Danimarkan 16-29 urteko gazteen % 35,9 soilik bizi da gurasoen etxean. Horren ondoren ageri dira Finlandia eta Suedia, % 50etik beherako ehunekoekin.

**2.4 grafikoa**

GURASOEKIN BIZI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEAK. EUSKADI ETA EB28 ALDERATUTA (%)




Iturria: Eurostat (gazteei buruzko estatistikak). Europako datuak 15-29 urteko gazteei buruzkoak dira

## Zer adinetan emantzipatzen dira batez beste Euskadin bizi diren gazteak?

Euskadin bizi diren 16-34 urteko pertsonak 29,6 urterekin emantzipatzen dira batez beste. Emantzipazio-adina antzekoa da emakumeen eta gizonen artean (29,6 urteko adina eta 29,7 urtekoa, hurrenez hurren).

Adierazle horren balioa egonkorra izan da Gazteen Euskal Behatokiak egindako azken ikerketetan: 30,0 urtekoa izan zen 2011. urtean, 29,7 urteko adinera jaitsi zen 2013. urtean, 29,8 urtera igo zen 2015ean, eta 2017ko ikerketa honetan 29,6 urtekoa izan da. Aldaketa txiki horiek ez dira estatistikoki adierazgarriak; baliagarriak dira soil-soilik Euskadiko gazteen emantzipazioa gutxi gorabehera adin horretan izaten dela adierazteko; 30 urteko bueltan, alegia.

2011tik 2017ra bitarteko ziklo horretan aldaketa handiak gertatu dira lan-arloan, baina badirudi ez dutela eragin handirik izan emantzipazio-adinean.

**2.5 grafikoa**

BATEZ BESTEKO EMANTZIPAZIO-ADINAREN BILAKAERA EUSKADIN, SEXUAREN ARABERA (ADINA URTETAN)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Emakume eta gizon gazteen emantzipazio-adinen arteko aldeak egonkorrak izan dira 2011tik 2017ra bitartean. Bi kolektiboak, lehen adierazi dugunez, 30 urteko bueltan emantzipatzen dira. Gizonen batez besteko emantzipazio-adina 2013an iritsi zen gorenera: 30,5 urte. Emakumeei dagokienez, berriz, goi-muga 2011n ezarri zen: 29,9 urte.

Emantzipazio-tasan bezala, emantzipazio-adinean ere alde oso adierazgarriak daude EB28ko estatu kideen artean. EB28ko batez besteko emantzipazio-adina 26,1 urtekoa da. Batez besteko adin horren oso goitik dago Euskadi, eta herrialde bakar batzuk soilik daude gorago: Malta (31,8 urte), Kroazia (31,5 urte), Eslovakia (31,0 urte) eta Italia (30,1 urte).

Euskadiko emantzipazio-adina eta Espainiakoa (29,4 urte) ia berdinak dira, baina emantzipazio-adin gazteenak dituzten hiru herrialdeetatik oso urrun daude: Suedia (20,7 urte), Danimarka (21,0 urte) eta Finlandia (21,7 urte). Hiru herrialde horiek, zerrendako lehen tokietan egoteaz gain, nahiko urrun daude gainerako herrialdeengandik; beraz, bistakoa da kontinenteko beste herrialde batzuetan ez bezalako emantzipazio-eredua dutela. Izan ere, zerrendan hurrengo tokietan dauden herrialdeek (Estonia, Alemania eta Frantzia) 23 urtetik gorako batez besteko emantzipazio-adinak dituzte.

**2.6 grafikoa**

EB28KO ESTATU KIDEETAKO BATEZ BESTEKO EMANTZIPAZIO-ADINA (URTETAN)




Iturria: Eurostat (gazteei buruzko estatistikak)

Europako emantzipazio-datuei begiratuta, Europa bat baino gehiago daudela dirudi beste behin. EB28ko herrialde eskandinaviarrek (Finlandiak, Suediak eta Danimarkak) dituzte emantzipazio-adin gazteenak; eta, horren ondorioz, bai eta 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen ehuneko handienak ere.

Datu horiek bat datoz Europako gazteen artean aurki daitezkeen lau emantzipazio-ereduekin:

- Europa iparraldeko eredua; esate baterako, Suedian eta Danimarkan dutena. Herrialde horietan da goiztiarrena Europako bizileku-emantzipazioa, eta erakundeek emandako laguntzen babesa dute gazteek. Eredu horretan, estatuak ematen dituen laguntzak ez dira premia ekonomiko handiak dituzten kolektibo jakin batzuentzat

soilik, gazte ororentzat baizik, herritar guztien arteko kohesioa bultzatze aldera. Hala eta guztiz ere, bizileku-independentzia ez dago beti independentzia ekonomikoarekin uztartuta: askotan, jatorrizko etxea utzi arren, familiarekiko dependentzia ekonomikoa izaten jarraitzen dute gazteek.

- Eredu kontinentala, Frantzia adierazle nagusi duena. Europa iparraldeko ereduaren antzekoa da, baina gazteen bizileku-emantzipazio goiztiarrak familiaren diru-laguntza edo babesa izaten du, eta ez estatuarena. Hau da, gurasoek laguntza ekonomikoa ematen diete seme-alabei, emantzipazio goiztiarra bultzatzeko, eboluzio pertsonalean independentzia prozesu naturala dela ulertuta.

- Erresuma Batuan eredu anglo-saxoia dute. Gazteen bizileku-autonomia goiztiarra izaten da, lan-merkatuan sartzea eta etxebizitza eskuratzea errazagoa baita Europako beste herrialde batzuetan baino. Bestalde, jatorrizko familiaren etxetik irteteko prozesuan, sozialki onartzen da independentzia-prozesuek dakarten arriskua eta ezegonkortasuna.

- Espainian, berriz, eredu mediterraneoaren ildoari jarraitzen zaio: emantzipazioa berantiarra da. Funtsean, emantzipazio-estrategien oinarria da hasiera batean egonkortasun ekonomiko bat lortzea, familiaren etxea uzteko; hartara, jatorrizko maila sozialari eusten zaio edo gora egitea lortzen da. Horren haritik, zenbait egoera gertatzen dira, hala nola prestakuntza-aldia luzatzea, etorkizunean lanean hasteko probabilitateak handitzeko. Alabaina, gazteen gainprestakuntzak ez du gazteen laneratzea erraztu; gazte landun asko gainkualifikatuta daude, eta egungo krisialdian indartu egin da egoera hori. Azken urteotan, emantzipazio berantiarraren fenomenoa Europa hegoaldeko ongizate-estatuen ezaugarri den kultura familistarekin lotzeko joera sortu da. (…) Ikerketa batzuek adierazten dute Europan, etxebizitza publikoen eta alokairuen sektoreak urriak diren herrialdeetan, atzeratu egiten dela familiaren etxea utzi eta emantzipatzeko prozesua, baldin eta gazteek ez baldin badute etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzarik jasotzen.[1]

## Emantzipazio-adina 30 urteko bueltan dago, baina, gazteen iritziz, zer adin da egokia gurasoen etxea uzteko? Zer frustrazio-maila jasan dezakete gazteek beren itxaropenen eta errealitatearen arteko arrakalan?

Aurreko kapituluetan azaldu dugunez, Euskadiko 16-34 urte bitarteko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 29,6 urtekoa da.

Emantzipatzeko batez besteko adin hori Europako altuenetako bat da, eta adierazle hori neurtzen hasi zenetik ez da ia aldatu. Beraz, badirudi jada ezarritako jarraibide sozial bati buruz ari garela, lan-merkatuan sartzeko eta etxebizitza eskuratzeko arazoetatik harago.

Alabaina, Euskadin bizi diren 16-29 urteko pertsonen iritziz, emantzipatzeko adin egokiena 23,7 urtekoa da (benetako emantzipazioa baino ia sei urte lehenago). Orobat, ez da desberdintasunik ikusten emakumeen eta gizonen artean.

[1] Moreno Mínguez, Almudena (2017): “Apuntes sobre las nuevas transiciones habitacionales de los jóvenes en España en el contexto de crisis económica”. Jóvenes y Vivienda. *Revista de Estudios de Juventud. 2017ko ekaina [linean] Hemen eskuragarri:* http://www.injuve.es/sites/default/files/2018/06/publicaciones/revista116_documentos2.pdf [Kontsulta: 2018/03/20]

**2.7 grafikoa**

EUSKADIKO 16-29 URTEKO GAZTEEK EMANTZIPATZEKO EGOKI IRITZITAKO ADINAREN ETA BENETAKO EMANTZIPAZIO-ADINAREN ARTEKO ALDEA, SEXUAREN ARABERA (%)




Bizitzeko etxeari buruzko nahiei erreparatuz gero, berezko joera ikusten da: 16-29 urte bitarteko pertsonen gehiengoak (% 85,4k) emantzipatuta bizi nahi du, eta % 10,3k gurasoen etxean jarraitu nahi du. Emantzipatuta bizi nahi duten 16-29 urteko gazteen proportzioa % 80tik gorakoa izan da beti, 2013an izan ezik (urte hartan, % 20,8k nahiago zuen gurasoen etxean bizi, urte haietako zailtasun ekonomikoengatik beharbada).

## 2.2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETA EMANTZIPATU NAHI DUTENEN ARTEKO ALDEA

Emantzipatu nahi duten gazteen eta jada emantzipatuta daudenen arteko aldeak adierazten digu zer frustrazio izan dezakeen 16-29 urteko pertsonen kolektiboak emantzipazio-prozesuari heltzeko garaian.

2017an, % 62,9ren aldea dago emantzipatu nahi duten gazteen (emantzipatu gabeko 16-29 urteko gazteen % 85,4) eta jada emantzipatuta daudenen artean (16-29 urteko gazteen % 22,6).

Adin-taldeei erreparatuz gero, ikusten dugu adinak gora egiten duen heinean emantzipatu nahi duten pertsonen ehunekoak ere gora egiten duela. 16-19 urteko gazteen % 72,8k emantzipatuta bizi nahi du; 20-24 urtekoen artean % 86,6 dira; eta 25-29 urtekoen artean, berriz, % 94,0 izatera iristen dira.

**2.8 grafikoa**

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTEN 16-29 URTEKO PERTSONEN EHUNEKOAREN ETA JADA EMANTZIPATUTA DAUDENEN ARTEKO ALDEA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)




Ehunekoei erreparatuta, emantzipatu nahi duten pertsonen eta jada emantzipatuta bizi direnen arteko aldea oso handia da 2004az geroztik; batez ere, Euskadiko gazteen emantzipazio-tasa txikiaren ondorioz. 2008an emantzipazio-nahiaren beherakada nabarmena gertatu zen (2004an % 71,9 izatetik % 64,6 izatera), agian urte haietan igartzen hasi zen krisi ekonomikoaren ondorioz, edo higiezinen goraldi izugarriak etxebizitzen prezioak gehieneko historikoetara igo zituelako. Harrezkero, emantzipatuta bizi nahi duten 16-29 urteko pertsonen proportzioa % 80tik gorakoa izan da beti. Bestalde, adin horretako pertsonen emantzipazio-tasa 2013an iritsi zen une gorenera, % 27,2ko tasa iritsi baitzen.

**2.9 grafikoa**

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTEN GAZTEEN ETA BENETAN EMANTZIPATUTA DAUDENEN ARTEKO ALDEAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* eta *Emantzipazioa* bildumak)

Emantzipazio-nahiaren eta benetako emantzipazioaren artean dagoen aldea kolektiboen arabera aztertuz gero, badirudi arrakala hori handiagoa dela gizonen artean, haien emantzipazio-tasak txikiagoak direlako. Adin-taldeen arabera, 25 urtetik beherakoak multzo trinko gisa ageri dira, eta 25-29 urteko multzotik bereizten dira, emantzipazio-tasak gora egiten duelako adinak gora egin ahala. Orobat, okupazio nagusiaren arabera, ikasten ari direnek (eta, horren ondorioz, gehienetan emantzipatzeko baliabide ekonomikorik ez daukatenek) nahiaren eta errealitatearen arteko diferentzia handiagoa adierazten dute; lanean ari direnek, berriz, emantzipatzeko aukera handiagoak izan dituzten heinean, arrakala txikiagoa ageri dute.

**2.2 taula**

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTEN 16-29 URTEKO GAZTEEN ETA ADIN HORRETAN EMANTZIPATUTA DAUDENEN ARTEKO ALDEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Okupazio nagusia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumeak | Gizonak | 16-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Ikasten | Lanean | Langabezian |
| Emantzipatu nahi duten gazteak | 85,4 | 86,9 | 84,0 | 72,8 | 86,6 | 94,0 | 79,9 | 92,6 | 94,8 |
| Gazte emantzipatuak | 22,6 | 25,7 | 19,7 | 0,7 | 14,4 | 47,0 | 6,7 | 42,2 | 39,0 |
| Emantzipatzeko nahiaren eta errealitatearen arteko aldea | 62,8 | 61,2 | 64,3 | 72,1 | 72,2 | 47 | 73,2 | 50,4 | 55,8 |
| *(n)* | *1319* | *661* | *658* | *319* | *400* | *600* | *647* | *517* | *99* |

Grafiko honek agerian jartzen du, oraingoan ere, Euskadiko gazteen etxebizitza-emantzipazioaren arazoa ez dela gogo faltaren ondoriozkoa, eta ez dela arrazoi kulturalek eragina (ez behintzat jakinaren gainean onartutakoa). Euskadiko 16-29 urteko pertsonen gehiengoak, gazteen emantzipazioari buruzko ikerketen bilduma honetan jasotako datuen arabera, emantzipatuta bizi nahi du, baina zer eragozpen dituzten ikusita (okupazio-egoera eta egoera ekonomikoa aztertzean hasi gara horien berri izaten), gurasoen etxetik aurrerago irtetea erabakitzen dute.

**2.10 grafikoa**

EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEK BIZITZEKO NAHI DUTEN ETXEARI BURUZKO LEHENTASUNEN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 2.3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN BIZIKIDETZA-EGOERA

Emantzipatuta dauden 16-29 urteko gazteen % 58,7 bikotekidearekin bizi da.

Badirudi gaur egun ere hori dela emantzipazio-eredu nagusia. Bakarka emantzipatzeko arazo handiak daude. Izan ere, *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016 ikerlanak adierazten duenez, 2016an Euskadin etxebizitza librea erosteko, 18-34 urteko langile baten soldataren % 54,9 behar zen,*[2] eta alokatzeko are eta gehiago behar zen (soldataren % 66,9). Logikoa da, beraz, testuinguru horretan, emantzipatutako 16-29 urteko gazteen % 12,3 soilik emantzipatzea bakarka.

Bakarka emantzipatzea zaila denez, gora egin du lagunekin emantzipatzeko aukerak. Bizitzeko formula hori nahiko egonkorra izan da bolada batean (% 13,7koa 2011n, % 14,2koa 2013an, eta % 14,4koa 2015ean), eta % 24,9ra igo da 2017an; hau da, Euskadiko 16-29 urteko gazte emantzipatuen artean, lagunekin bizi da lau pertsonatik bat.

Gainerako aukerek oso ehuneko txikiak dituzte, beraz, haien bilakaerak ez dira adierazgarriak.

---

[2] López Oller, Joffre. (2017). *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016. [linean] Hemen eskuragarri:* http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/emantzipazio_kostea_2016_e.pdf [Kontsulta: 2018/03/23]

**2.11 grafikoa**

30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETA, NOREKIN BIZI DIREN KONTUAN HARTUTA (%)




Euskadiko gazte emantzipatuen bizikidetza-egoerak 2011tik 2017ra izan duen bilakaerari erreparatuta, bikotekidearekin bizi izan da gehiengoa (seme-alabekin, seme-alabarik gabe edo familiako beste kide batzuekin). Hala eta guztiz ere, formula horren proportzioak behera egin du 2015etik 2017ra bitartean: % 64,5 izatetik % 58,7 izatera.

Bikotekidearekin emantzipatzeko aukeraren ondoren dago, 2017an, etxebizitza lagunekin edo etxekideekin partekatzea, 2015etik 2017ra gorakada handia izan baitu aukera horrek. 2011n emantzipatutako pertsonen % 13,7k aukeratu zuen formula hori, eta 2017an, berriz, % 24,9k. Bakarka emantzipatzeko zailtasunen ondorioz, baliteke modalitate horrek gora egitea etorkizunean, batez ere gazteenen artean.

**2.12 grafikoa**

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN BIZIKIDETZA-EGOERAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Bikotekidearekin batera emantzipatzea ohikoagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino (bikotekidearekin bizi da emantzipatutako emakumeen % 63,6, eta gizonen % 52,5).

Emakumeen eta gizonen arteko alde hori bi datu hauekin konpentsatzen da: bakarkako emantzipazioan dagoen diferentziarekin (emakumeen % 9,7 eta gizonen % 15,5), eta lagunekin partekatutako emantzipazioan dagoen aldearekin (emakumeen % 22,0 eta gizonen % 28,5).

Adin-taldeei erreparatuta, 20-24 urteko gazteei buruzko datuak kontuz hartu behar badira ere (datuen adierazgarritasuna ez dagoelako nahikoa bermatuta), azpimarratu behar da 25 urtetik beherakoen artean lagunekin bizitzea dela gazte gehienen aukera (20-24 urteko pertsonen % 44,6). Bestalde, 25-29 urtekoen artean, bikotekidearekin bizi da % 64,1.

Jaiolekuari erreparatuta, emantzipatuta dauden 16-29 urteko gazteen artean, bakarka emantzipatzea erabaki eta lortu dutenengan dago desberdintasun nagusia. Euskadin jaiotako gazteen % 16,1 emantzipatu da bakarka; aitzitik, atzerrian jaiotakoen % 5,4 emantzipatu da bakarkako modalitate horretan. Bakarka emantzipatzeak dakartzan zailtasun ekonomikoak daude, ziurrenik, datu horren atzean.

### 2.3 taula
NOREKIN BIZI DIREN EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

| (%) | Sexua | | Adin-taldeak* | | Jaiotza-lekua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | 20-24 urte | 25-29 urte | Euskadi | Atzerria |
| Bakarrik | 9,7 | 15,5 | 10,3 | 12,9 | 16,1 | 5,4 |
| Bikotekidearekin ( batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 63,6 | 52,5 | 40,7 | 64,1 | 61,6 | 60,4 |
| Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe | 2,5 | 0,0 | 2,2 | 1,2 | 0,6 | 3,1 |
| Beste senide batzuekin | 0,5 | 3,5 | 2,3 | 1,7 | 1,4 | 3,3 |
| Lagunekin edo pisukideekin | 22,0 | 28,5 | 44,6 | 18,8 | 19,9 | 25,4 |
| Beste egoera bat | 1,7 | 0,0 | 0,0 | 1,2 | 0,4 | 2,4 |
| GUZTIRA gazte emantzipatuak | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *200* | *154* | *60* | *291* | *214* | *101* |

* Taulak ez ditu hartzen 16 eta 19 urte bitartekoen datuak, adin-talde horretan emantzipatutako gazte gutxi daudelako

Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoak berresten du bikotekidearekin bizitzea dela formula ohikoena. Emantzipatuta dauden gazteen % 48 bizi da osaera hori duten familietan (bi pertsona etxe bakoitzeko).

Atzerrian jaiotako 16-29 urte bitarteko pertsona emantzipatuen etxeetan bizi diren familien osaera ez da Euskadin jaiotako gazteena bezalakoa; etxe horietan pertsona gehiago bizi dira, ohikoagoa baita atzerrian jaiotakoek senideekin edo beste pertsona batzuekin partekatzea etxebizitza.

Orobat, egiaztatu da etxebizitza partekatzea askoz ere ohikoagoa dela ikasleen artean, langileen edo lanik gabe (baina lan egiteko prest) daudenen artean baino. Horregatik, ikasle emantzipatuen etxeetan kide gehiago bizi ohi dira.

### 2.4 taula
EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN ETXEETAN BIZI DIREN PERTSONEN KOPURUA, JAIOLEKUAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Jaiotza-lekua | | Okupazio nagusia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Euskadi | Atzerria | Ikasten | Lanean | Langabezian |
| Pertsona bat | 12,3 | 16,1 | 5,4 | 6,8 | 14,2 | 14,4 |
| Bi pertsona | 48,0 | 55,9 | 35,6 | 31,1 | 56,3 | 38,0 |
| Hiru pertsona | 20,3 | 16,8 | 28,4 | 22,6 | 19,9 | 15,6 |
| Lau pertsona edo gehiago | 19,4 | 11,2 | 30,6 | 39,5 | 9,5 | 31,9 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *354* | *214* | *101* | *53* | *233* | *41* |

## 2.4. EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN AURREIKUSPENAK ETXEBIZITZA-ALDAKETEI BURUZ

Emantzipatuta bizi diren 16-29 urteko pertsonen artean, urtebeteko epean etxebizitza aldatzeko asmoa du % 36,6k. Ehuneko hori, jakina, alokatutako etxeetan bizi direnek osatzen dute ia erabat; izan ere, gaur egun emantzipatuta dauden eta adin hori duten gazteen artean, hamarretik ia zazpik alokatutako etxebizitza dute.

% 57,5ek ez du etxebizitza aldatzeko asmorik urtebeteko epean, eta % 5,9k ez daki zer egingo duen.

Etxebizitza aldatzeko asmoa dutenen artean (emantzipatutako pertsonen % 36,6), alokairuan hartu nahi du beste etxebizitza bat % 74,6k. Bestalde, etxebizitza erosteko asmoa du % 20,3k.

**2.13 grafikoa**

EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN AURREIKUSPENAK ETXEBIZITZA ALDATZEARI BURUZ, ETA EROSTEKO EDO ALOKATZEKO ASMOA (%)




## 2.5. 30-34 URTEKO PERTSONEKIKO DIFERENTZIAK

Lehen aurreratu dugunez, Euskadiko gazteek 30 urteko bueltan emantzipatzen dira, gutxi gorabehera. Adin horretan, gazteen emantzipazioa arau izaten hasten da, eta ez salbuespen.

16-29 urteko kolektiboa aztertzean ikusi genuen adin-bitarte horretako lautik ia bat dagoela emantzipatuta (% 22,6). Aitzitik, 30-34 urtekoen artean proportzioa kontrakoa da: adin horretan lautik hiru daude emantzipatuta (% 76,1).

**2.14 grafikoa**

EMANTZIPATUTAKO 16-34 URTEKO PERTSONAK, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)




Emantzipatzeko nahiaren eta benetako emantzipazio-tasaren arteko aldea asko aldatzen da 30 urtetik beherako gazteen multzotik hurrengo adin-taldeko multzora (30-34 urteko adin-bitartekoen multzora).

30 urtetik beherakoek emantzipatuta bizitzeko gogo handia dute (% 85,4) baina emantzipazio-tasa oso txikiak dituzte (% 22,6). Beraz, arrakala izugarria dago bi ehuneko horien artean. Aitzitik, 30-34 urtekoen artean nahiko estua da arrakala hori: % 86,2k bizi nahi du emantzipatuta, eta % 76,1 dago jada emantzipatuta.

**2.15 grafikoa**

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTENEN ETA JADA EMANTZIPATUTA DAUDENEN ARTEKO ALDEA: 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO ADIN-TALDEEN ARTEKO ALDERAKETA (%)




30-34 urteko pertsonen artean, emantzipatzeko nahiaren eta emantzipazio-tasaren arteko aldea askoz ere txikiagoa da 30 urtetik beherakoen artean baino. 30-34 urteko kolektiboan 18,3 punturen aldea dago. Gogo horren intentsitatea kalkulatu ezin bada ere, pentsa dezakegu adinak gora egiten duen heinean emantzipatzeko nahia handiagoa dela, baita emantzipazioa lortu ez izanak sortzen duen frustrazioa ere.

Azken urteotan ez daude alde handiak emantzipatuta bizi nahi duten 30-34 urteko pertsonen ehunekoaren eta emantzipatuta daudenen ehunekoaren artean. Horregatik, egonkorra da bi ehuneko horien arteko diferentziala.

**2.16 grafikoa**

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTEN 30-34 URTEKO PERTSONEN EHUNEKOAREN ETA EMANTZIPATUTA DAUDENEN ARTEKO ALDEAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Bizikidetza-moduari erreparatuz gero, 30 urtetik beherakoen eta 30 urtetik gorakoen artean ikusten dugun diferentzia nagusia bikotekidearekin (seme-alabekin edo beste pertsona batzuekin) bizi direnen artean dago. Bizikidetza-modu hori ohikoagoa da 30 urtetik gorakoen artean (% 72,1 bikotekidearekin bizi da, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe), 16-29 urtekoen artean baino (% 58,7). Diferentzia hori konpentsatuta geratzen da lagunekin edo etxekideekin bizi direnak kontuan hartuz gero. Kasu horretan, banaketa kontrakoa da; izan ere, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen artean, hala bizi da lautik ia bat (% 24,9), eta % 6,1 besterik ez dira 30-34 urte-bitartekoen artean.

Bakarka emantzipatu direnak gutxiengo dira, bai gazteenen artean, bai 30-34 urtekoen artean (% 12,3 eta % 16,4 hurrenez hurren).

**2.5 taula**
30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO ALDERAKETA, NOREKIN BIZI DIREN KONTUAN HARTUTA (%)

| (%) | 16-29 urte | 30-34 urte |
|---|---|---|
| Bakarrik | 12,3 | 16,4 |
| Bikotekidearekin ( batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 58,7 | 72,2 |
| Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe | 1,4 | 4,0 |
| Beste senide batzuekin | 1,8 | 0,8 |
| Lagunekin edo pisukideekin | 24,9 | 6,1 |
| Beste egoera bat | 0,9 | 0,6 |
| Guztira gazte emantzipatuak | 100 | 100 |
| *(n)* | *354* | *460* |

Galdera hau bakarrik egin zaie emantzipatutako gazteei

30-34 urteko pertsona emantzipatuen artean, bakarka emantzipatzea lortu duten gizonen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino (% 18,7 eta % 14,5 hurrenez hurren), gizonek diru-sarrera handiagoak baitituzte batez beste.

Bestalde, Euskadin jaiotakoen artean ohikoagoa da bakarka emantzipatzea, atzerrian jaiotakoen artean baino. Horren arrazoia aurkitzeko, pertsona horien egoera ekonomikoari erreparatu behar diogu, sexuaren araberako diferentzian bezala. Bakarka emantzipatzea, gero ikusiko dugunez, izugarri garestia da Euskadiko gazteentzat, etxebizitzen kostua neurriz kanpokoa delako, soldatekin alderatuta.

**2.6 taula**
EMANTZIPATUTAKO 30-34 URTEKO PERTSONAK NOREKIN BIZI DIREN, SEXUAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Sexua | | Jaiotza-lekua | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumeak | Gizonak | Euskadi | Atzerria |
| Bakarrik | 16,4 | 14,5 | 18,7 | 19,0 | 6,5 |
| Bikotekidearekin ( batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 72,2 | 72,9 | 71,3 | 71,5 | 71,4 |
| Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe | 4,0 | 6,7 | 0,7 | 4,2 | 5,2 |
| Beste senide batzuekin | 0,8 | 0,9 | 0,6 | 0,3 | 3,0 |
| Lagunekin edo pisukideekin | 6,1 | 3,9 | 8,7 | 5,1 | 11,0 |
| Beste egoera bat | 0,6 | 1,1 | 0,0 | 0,0 | 3,0 |
| Guztira gazte emantzipatuak | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *460* | *249* | *211* | *319* | *96* |

Galdera hau bakarrik egin zaie emantzipatutako gazteei

Datu horien ildo beretik, egiaztatu dugu 30-34 urteko gazte emantzipatuen etxeetan 2,5 pertsona bizi direla, batez beste, eta hirutik bitan (% 65,8) bi edo hiru pertsona bizi direla.

Amaitzeko, adin horretako pertsona emantzipatuen % 25,8k urtebeteko epean etxebizitza aldatzeko asmoa du, eta horien artean gehiago dira alokatzea nahi dutenak (% 50,0), erostea nahi dutenak baino (% 44,2). 2015etik 2017ra bitartean nabarmen gora egin dute bizilekuz aldatzeko asmoa izan eta erostearen alde daudenek (% 17,4 ziren 2015ean, eta % 44,2 izan dira 2017an).

## 2.6. KAPITULUAREN LABURPENA

Euskadin berandu emantzipatzen da jendea. Hainbat urtetan hala izan denez, emantzipatzeko modu bat dela esan dezakegu, eta 30 urteko adinaren bueltan gertatzen da. Euskadiko gazteen emantzipatzeko modu hori eredu mediterraneoarekin bat dator; hau da, hemen gurasoekin luzeago bizi dira Europako beste toki batzuetan baino.

Gaur egun, 16-29 urteko gazteen artean, lautik bat soilik dago emantzipatuta. Aitzitik, 30-34 urtekoen artean, lautik hiru emantzipatuta daude jada.

Badirudi bikotekidearekin batera emantzipatzea dela kultura-arau nagusia, eta erositako etxebizitzan ahal bada. Higiezinen burbuila lehertu zenean etxebizitzen prezioek behera egin bazuten ere, beherakada horren proportzioa ez zen izan langabezia-tasen igoera eta soldaten jaitsiera konpentsatzeko adinakoa, ezta hurrik eman ere. Horren ondorioa? Emantzipazioa nagusiki 30 urtetik aurrera gertatu ohi den prozesua da, gaur egun ere.

Euskadiko gazteen artean, emantzipatzeko formula ohikoena bikotekidearekin bizitzea da, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe. Bakarka emantzipatzea oso zaila da; izan ere, etxebizitzak garestiak dira (bai erosteko, bai alokatzeko), eta gazteen soldatak ez dira nahikoak, batez ere 16-29 urtekoen artean.

Emantzipatzeko zailtasunak izan daitezke lagunekin bizi direnen ehunekoak izan duen gorakada nabarmenaren oinarri, batez ere 30 urtetik beherakoen artean.

Nolanahi ere, etxebizitzen prezioak eta gazteen lan-egoera eta egoera ekonomikoa kontuan hartuta ere, horiek guztiek ez dute erabat esplikatzen emantzipazioaren fenomenoa. Etxebizitzen prezioek, okupazio-tasek eta soldatek azken 10 urteotan izan dituzten gorabeherek ez dute aldatu emantzipazio-eredua Euskadiko gazteen artean. Horrek pentsarazten digu badaudela balio eta arrazoi kultural batzuk, denbora-muga gaindiezin bat ezartzen dutenak. Horrenbestez, batez besteko emantzipazio-adina ez da aldatu azken hamarkadetan. Denbora-muga hori ikasketak (goi-mailako prestakuntza) amaitu eta lanean egonkortasuna lortzeko egiten duten bidearen punturen batean dago, eta prozesu hori gero eta luzeagoa da, curriculuma osatzeko premia baitago: graduondoko ikasketak, hizkuntzak ikastea…

Krisi ekonomikoak aldatu egin al ditu Euskadiko gazteen bizileku-aukerak? Alokatzea etxebizitza eskuratzeko modu nagusia izan zen urte batzuetan. Alabaina, 2015etik 2017ra bitartean gora egin du etxebizitzaren jabe izateko nahiak (badirudi alokairuaren aldeko aukera urgentziazko neurri baten ondorio izan zela, eta ez kultura-aldaketa baten ondorio). Horrez gainera, alokairuen burbuila sortu da (prezioek gora egin dute, eta eskaintzak behera); beraz, alokairuko etxebizitzetan emantzipatzea garestiagoa da etxebizitza bat erostea baino, batez ere turismo handia erakartzen duten guneetan.

Argitu behar da 16-29 urteko adin-talde horrek, oro har gazteria esaten diogun multzoak, egoera oso desberdinak biltzen dituela, eta horrek ondorio erabakigarriak dituela emantzipazio-tasetan. Ez da oso bidezkoa 16-29 urte-bitarteko gazteen emantzipazioaz hitz egitea, eta lan-merkatuak, aldi berean, unibertsitate-ikasketak (gradukoak eta graduondokoak) eskatzea gazte horiei.

Lan-egonkortasuna, izatekotan, 30-34 urterekin lortzen da, eta adin horretan egiten dute gora emantzipazio-tasek.

Gazteen Euskal Behatokiak *Euskadiko gazteak 2016 ikerketan bildutako datuen arabera, etxebizitzak eta emantzipazioak berebiziko beherakada egin dute Euskadiko gazteen kezken zerrendan*[3]. Ikerketa horretan hipotesi hau planteatzen da: langabezia-tasa handiak eta lan-prekaritatea ikusita, baliteke gazteek emantzipazioa gerorako uztea, egoera egokiago baten zain.

[3] LONGO IMATZ, Oskar; BILBAO GAZTAÑAGA, Miren; CORCUERA BILBAO, Nieves: *Euskadiko gazteak 2016* [online] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz. Web-helbide honetan eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/euskadiko_gazteak_16_e.pdf [Kontsulta: 2018/03/20]

# 3

# Emantzipatutako gazteak: etxebizitzen erregimena eta ezaugarriak

Kapitulu honetan emantzipatzeko moduak aztertzen dira, etxebizitza eskuratzeko moduari begiratuta. Alokairua eta jabetza aztertuko dira batez ere, modalitate horiek baitira erabilienak.

Euskadiko etxebizitzen egoera orokorra aztertzeko, EINen bizi-baldintzen Inkesta da erreferentzia ohikoena, alokairuko etxebizitzen parkea kuantifikatze aldera. Estatistika horren arabera, 2016an EAEko etxebizitzen % 11,6 alokatuta zeuden (2008an baino 2,8 puntu gehiago)[4].

Jabetzaren ehuneko erlatiboak behera egin du Euskadin: 2008an % 87,1 izatetik, 2016an % 83,7 izatera. Nolanahi ere, egiaztatu da krisiak ez duela aldaketa adierazgarririk eragin etxebizitza eskuratzeko ereduan, gaur egun ere jabetza baita nagusi, argi eta garbi.

Eurostaten estatistikek ere berretsi egiten dute alokairuen ehuneko erlatiboa askoz ere txikiagoa dela Euskadin eta Espainian, Europar Batasuneko estatu nagusi gehienetan baino. EBn, oro har, biztanleen % 30,7 alokatutako etxebizitzetan bizi da (estatistika horretan doako lagapenak ere alokairuekin batera zenbatu dira), eta ehuneko hori Espainiakoa baino zortzi puntu handiagoa da. Estatu nagusien artean Alemania gailentzen da, biztanleen erdia bizi baita alokatutako etxebizitzetan (edo doan lagatakoetan).

[4] Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2018): *Euskadiko alokairuari buruzko txostena; Euskadiko, estatuko eta EBko alokairuen azterketa konparatua [linean] Web-helbide honetan eskuragarri:* http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_alqu_comparado/eu_ovv_admi/adjuntos/alokairua_konparaketa.pdf [Kontsulta: 2018/07/23]

# 3.1. EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUAK

## Nola eskuratzen dute gazte emantzipatuek etxebizitza?

Alokairua da, orain ere, emantzipatutako 16-29 urteko gazteen aukera nagusia, % 69,1 bizi baita alokatutako etxebizitzetan; % 20,0k erosi egin du etxebizitza; % 6,5ek doan jaso du aldi baterako; % 2,1ek oinordetzaz edo dohaintzaz jaso du; eta kategoria horietan sartzen ez den etxebizitzaren batean bizi da % 2,3.

**3.1 grafikoa**
EMANTZIPATUTAKO 30 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN BANAKETA, ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUAREN ARABERA (%)




Etxebizitza eskuratzeko moduan kontrako bi joera ikusten dira. 2011tik aurrera egindako bidea aztertuz gero, ikusten dugu behera egin duela jabetzaren ehunekoak: % 30,3koa zen 2011. urtean; % 26,7koa 2013. urtean, % 17,8koa 2015ean (serie historikoan izan duen balio txikiena), eta zertxobait handitu da 2017an (% 20,0). Bestalde, alokairuak gora egin du: 2011n % 61,0 izatetik 2017an % 69,1 izatera igaro da (zertxobait jaitsi da azken biurtekoan, % 73,6koa izan baitzen 2015ean).

**3.2 grafikoa**

EMANTZIPATUTAKO 30 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN BANAKETAREN BILAKAERA, ETXEBIZITZA ESKURATUTAKO MODUAREN ARABERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Alokairuen prezioa izan daiteke 2015etik aurrera modalitate horrek behera egin izanaren arrazoia; izan ere, 2014az geroztik, etxebizitza libre bat alokairuan hartzeko hasieran jarri behar den diru-kopurua handiagoa da erosteko jarri behar dena baino.[5]

Nolanahi ere, 2011tik gaur egun arte alokairua izan da 30 urtetik beherako gazteek etxebizitza eskuratzeko gehien erabili duten modalitatea.

Etxebizitza eskuratzeko moduan, zenbait desberdintasun daude emakumeen eta gizonen artean. Emakumeen artean, etxebizitza alokairuan hartzen dutenen ehunekoa txikiagoa da: emantzipatutako 16-29 urteko emakumeen % 68,4 dira eta adin bereko gizonen % 70,1. Diferentzia hori jabetzako etxebizitzan bizi diren emakume gazte emantzipatuen ehuneko handiagoarekin konpentsatzen da (emakumeen % 21,8 eta gizonen % 17,8). Aurreko kapituluan ikusi dugunez, emakumeak gutxiagotan emantzipatzen dira lagunekin, eta kasu horietan, eskuarki, alokairuko etxebizitzak hartzen dira.

Jaiolekuak eta gizarte-mailak, berriz, diferentzia handiak eragiten dituzte. Izan ere, atzerrian jaiotako 16-29 urteko gazte emantzipatuen % 91,3 alokairuko etxeetan bizi dira (% 3 soilik dira etxebizitzaren jabe). Euskadin jaiotakoen artean, berriz, % 57,3 bizi dira alokairuko etxebizitzetan eta % 29,2 dira etxebizitzaren jabe.

Bestalde, norberaren burua gizarte-maila ertainekotzat edo ertain-altukotzat duten gazte emantzipatuen artean handiagoa da etxebizitza erosi dutenen ehunekoa, gizarte-maila ertain-baxukotzat edo baxukotzat dutenen

[5] Lopez Oller, Joffre (2017): *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016*

artean baino. Logikoa da; izan ere, gizarte-maila ertaineko edo ertain-altuko pertsonek, diru gehiago izateaz gainera, senideen abala ere izan dezakete, bankuek hipoteka-maileguak emateko eskatzen dituzten izapideen artean.

**3.1 taula**

ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUA 30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN ARTEAN, SEXUAREN, KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Sexua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Jaiotza-lekua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumeak | Gizonak | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | Euskadi | Atzerria |
| Jabetzan, erosita | 20,0 | 21,8 | 17,8 | 23,5 | 12,9 | 29,2 | 3,0 |
| Alokairuan | 69,1 | 68,4 | 70,1 | 67,3 | 74,1 | 57,3 | 91,3 |
| Oinordetza edo dohaintza edo laga diote | 8,6 | 7,6 | 9,9 | 6,7 | 11,7 | 11,6 | 3,7 |
| Beste modu batean | 2,3 | 2,2 | 2,3 | 2,4 | 1,3 | 1,9 | 2,0 |
| Gazte emantzipatuak, Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *354* | *200* | *154* | *246* | *99* | *214* | *101* |

Galdera hauek bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Jabetzaren eta alokairuaren banaketa lurralde historikoen arabera aztertzen badugu, alde handiak ageri dira.

Euskadiko zenbateko orokorrak kontuan hartuta (emantzipatutako 16-29 urteko pertsonen % 20,0 jabetzako etxeetan bizi da, eta % 69,1 alokairuko etxebizitzetan), Araban jabetzako etxebizitzen ehunekoa txikiagoa da (% 13,8), Gipuzkoa bigarren tokian dago (% 19,9), eta bien gainetik dago Bizkaia, emantzipatutako 16-29 urteko gazte bizkaitarren % 22,6 baita bere etxebizitzaren jabe izanda.

Datu horiek bat datoz Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren txostenarekin (*Euskadiko alokairuari buruzko txostena; Euskadiko, estatuko eta EBko alokairuen azterketa konparatua).* Txosten horretan egiaztatzen da Bizkaia dela jabetzako etxebizitzaren modalitateari gehien atxikita dagoen lurralde historikoa, eta horren ondorioz, alokairuko etxebizitza gutxien dituena.

**3.3 grafikoa**

JABETZAKO ETXEBIZITZETAN EDO ALOKAIRUAN EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)




Etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera aztertzen badugu bizikidetza-egoera, ikusten dugu bikotekidearekin bizitzea dela aukera nagusia (seme-alabekin edo seme-alabarik gabe), bai jabetzako etxebizitzetan, bai alokairuan. Hala eta guztiz ere, alokatutako etxebizitzetan bizi direnen artean ohikoa da lagunekin edo etxekideekin partekatzea (% 34,3). Jabetzako etxebizitzetan bizi direnen artean, berriz, bigarren tokian dago bakarka bizitzea; dena dela, jabetzako etxebizitzetan emantzipatuta bizi diren 16-29 urteko pertsonen kopurua txikia denez, tentuz hartu behar dira datu horiek.

**3.2 taula**

EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN BIZIKIDETZA-EGOERA, ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODALITATEAREN ARABERA (%)

| (%) | | Guztira | Etxebizitza hartzeko modalitatea | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Jabetza | Alokairua |
| Bizikidetza-egoera | Bakarrik | 12,3 | 18,5 | 9,8 |
| | Bikotekidearekin (batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 58,7 | 79,0 | 51,8 |
| | Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe | 1,4 | 0,0 | 2,0 |
| | Beste senide batzuekin | 1,8 | 2,4 | 1,4 |
| | Lagunekin edo pisukideekin | 24,9 | 0,0 | 34,3 |
| | Beste egoera bat | 0,9 | 0,0 | 0,6 |
| Gazte emantzipatuak, Guztira | | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | | *354* | *69* | *242* |

Galdera hauek bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

### 3.1.1. 16-29 urteko gazte emantzipatuek jabetzan eskuratutako etxebizitzak

16-29 urte-bitarteko gazte emantzipatuek jabetzan eskuratutako etxebizitzei buruzko azpiatal honetan, azterketari ekin aurretik, adierazi behar dugu tentuz eta gutxi gorabeherako informazio gisa hartu behar direla kolektibo horri buruzko datuak, elkarrizketatutako laginean oso gutxi baitira etxebizitza erosi duten gazteak. Etxebizitza erosi dutenei buruzko datuen fidagarritasuna txikiagoa da alokairuan bizi direnei buruzko datuena baino.

Etxebizitza erosi dutenak eta oinordetzan edo dohaintzan jaso ondoren gaur egun etxearen jabe direnak multzo berean biltzen baditugu, emantzipatutako 16-29 urteko gazteen % 22,1 da bizi den etxebizitzaren jabe.

Multzo hori (% 22,1) honela osatuta dago: % 5,6k erabat ordainduta dauka etxebizitza; % 14,4 hipoteka ordaintzen ari dira; eta, azkenik, % 2,1ek oinordetzan edo dohaintzan jaso du etxebizitzaren jabetza.

Hipoteka ordaintzen duten gazteen ehunekoak behera egin du 2011ko eta 2013ko datuekin alderatuta (emantzipatutako gazteen % 26,4 eta % 24,1 hurrenez hurren) eta 2015eko proportzioan jarraitu du (% 13,4).

Gizarte-maila altuko, ertain-altuko edo ertaineko pertsonen artean eta hilean 1.200 eurotik gora dutenen artean handiagoa da erositako etxebizitza erabat ordainduta dutenen proportzioa, gizarte-maila baxuko edo ertain-baxuko pertsonen artean eta 1.200 eurotik behera dutenen artean baino.

**3.3 taula**

JABETZAREKIN LOTUTAKO ETXEBIZITZA ESKURATZEKO AUKERAK 30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN ARTEAN, JAIOLEKUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ETA HILEAN DAUKATEN DIRUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Jaiotza-lekua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Hileko diru-baliabideak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Euskadi | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago |
| Erosi dute eta hipoteka erabat ordaindu dute | 5,6 | 8,5 | 0,6 | 6,7 | 3,4 | 4,1 | 8,4 |
| Erosi dute eta hipoteka ordaintzen ari dira | 14,4 | 20,7 | 2,4 | 16,8 | 9,6 | 10,8 | 17,1 |
| Oinordetzan edo dohaintzan hartu dute | 2,1 | 3,5 | 0,0 | 2,5 | 1,2 | 2,0 | 1,8 |
| Etxebizitza jabetzan duten gazte emantzipatuak, Guztira | 22,1 | 32,7 | 3,0 | 26,0 | 14,2 | 16,9 | 27,3 |
| *(n)* | *354* | *214* | *101* | *246* | *99* | *209* | *122* |

Galdera hauek bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

### 3.1.2. 16-29 urte-bitarteko gazte emantzipatuek alokairuan eskuratutako etxebizitzak

Lehen adierazi bezala, alokatutako etxean bizi da 16-29 urte-bitarteko gazte emantzipatuen % 69,1.

Alokairura jotzeko arrazoi asko dituzte 16-29 urte-bitarteko gazteek. Gehien aipatu duten arrazoia da aldi baterako soluzioa dela, etxebizitza erosteko modua izan arte (% 33,5). Hipoteka-mailegu bat ez hartu nahi izatea da 16-29 urteko gazte emantzipatuen % 24,6k alokairuaren aldeko erabakia hartzearen arrazoia. Orobat, gazteen % 20,7ren iritziz, bizilekuz aldatzeko aukera eta askatasun handiagoak dakarzkie alokairuak. Alokairuan bizi direnen % 3,9k adierazi du gizarte-babeseko etxebizitza batean bizi delako egin duela hautu hori, eta % 17,3k beste arrazoiren bat eman du.

Ehunekoak hain banatuta daudenean zaila da ondorioak ateratzea. Horrez gainera, arrazoi bakoitzaren atzean ezkutatuta egon daitezke beste arrazoi batzuk, eta horrek dibertsifikazioa areagotzen du. Adibidez, baliteke gazte batek hipoteka-mailegu bat ez hartu nahi izatea arrazoi ideologikoengatik, horrek dakarren erantzukizunari beldur diolako...

**3.4 grafikoa**

ALOKAIRUA HAUTATZEKO ARRAZOIAK 16-29 URTE-BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ARTEAN (%)




Ez da erraza, ezta ere, 16-29 urte-bitarteko gazteek alokairuaren alde egiteko izan dituzten arrazoiek zer bilakaera izan duten aztertzea. 2017an gazteek gehien adierazitako arrazoia izan zen alokairua aldi baterako soluziotzat hartzen zutela, etxebizitza bat erosteko modua izan arte, eta argudio horrek hamar puntu baino gehiago egin du gora, 2013ko eta 2015eko datuekin alderatuta. Urte horietan, alokatzearen aldeko erabakia hartu zutenek gehien adierazitako arrazoia izan zen beste norabait mugitzeko aukera eta askatasun handiagoak dakarzkiela alokairuak.

Alokairua aldi baterako aukeratzat hartzen dutenen gorakadaren arrazoia izan daiteke batez besteko errentak igo egin direla, eta 2017an alokairua ordaintzea garestiagoa dela hipotekaren kuota ordaintzea baino.[6]

---

[6] Eusko Jaurlaritza: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.(2017): *Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren taula estatistikoak. 2017ko 4. hiruhilekoa. [linean] Hemen eskuragarri:* http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv_v_ofin_2017t4/eu_def/index.shtml [Kontsulta: 2018/07/19]

**3.5 grafikoa**

EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEK ALOKAIRUA HAUTATZEKO ARGUDIATUTAKO ARRAZOIEN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Alokairua aldi baterako soluziotzat hartzea eta gazteen azken helburua etxebizitza bat erostea izatea ez da harritzekoa, erosteko prezioen joera (beheranzkoa) eta alokairuen errentak (goranzkoa) kontuan hartuta. Joera hori aldatzen ez bada, etxebizitza bat erostea "merkeagoa" izan daiteke, alokairuko etxean bizitzea baino.

**3.4 taula**

ETXEBIZITZA LIBREAK EROSTEKO EDOTA ERRENTAN HARTZEKO BATEZ BESTEKO PREZIOEN BILAKAERA (EUROAK)

| (€) | 2013 | 2015 | 2017 (IV. hiruhilekoa) |
|---|---|---|---|
| Etxebizitza librearen batez besteko prezioa | 273.600,0 | 246.800,0 | 238.900,0 |
| Etxebizitza librearen batez besteko alokairu-errenta | 825,4 | 871,7 | 944,3 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Bestalde, lanagatik atzerrira joan direnen egoera aztertzen badugu, zenbait gai interesgarri aurkitzen ditugu, hipotesi gisa erabil ditzakegunak, alokairuko etxeetan bizi diren gazte kopuruaren etengabeko gorakada argitzeko.

Probabilitateak edo aukerak alde batera utzita, gazteei galde egin diegu atzerrira lanera joateko zer gogo duten galdetu diegu gazteei. Gaur egun ikasten ari direnen artean, % 56,5ek oso gustukoa edo nahiko gustukoa izango luke atzerrira lanera joatea, eta lanean ari direnen artean, berriz, % 38,1ek joan nahi du. Horiek horrela, ez da harritzekoa gazteek alokairuaren aldeko erabakia hartzea; hartara, etxebizitza epe laburrean utz dezakete, konpromiso handirik gabe.

**3.6 grafikoa**
ATZERRIRA LANERA JOATEKO GOGO HANDIA EDO NAHIKOA DUTEN 16-29 URTEKO PERTSONAK, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA (%)




Alokairuan emantzipatuta dauden 16-29 urteko pertsonen artean, % 44,0k atzerrian lan egiteko gogo handia edo nahikoa du. Etxebizitzaren jabe direnen artean –hau da, bizilekuz aldatzeko aukera murritzagoa ematen duen etxebizitza-aukera egin dutenen artean–, atzerrira joateko gogoa du % 20,5ek.

## 3.1.3. Emantzipatutako 16-29 urteko gazteek eskuratutako etxebizitza babestuak

2017ko datuen arabera, etxebizitza babestuetan bizi da emantzipatuta dauden 16-29 urteko Euskadiko gazteen % 8,4.

Zenbatekoak gora egin du, 2015eko inkestan % 5,8 baitziren.

2017an gora egin du ehuneko horrek, batez ere, alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren gazteen ehunekoa igo delako. Izan ere, ehuneko hori % 3,0koa zen 2015ean, eta 2017an, berriz, % 6,0koa. Dena dela, bilduma honetako serie historikoan ageri den balio handiena 2013koa da (% 7,4).

Jabetzako etxebizitza babestuan bizi direnen proportzioak ere behera egin du, 2013ko datuekin alderatuta. Horren arrazoia izan daiteke merkatu librea suspertzen ari dela pixkanaka, eta horregatik sustapen babestuen proportzioak behera egin duela: 2016an ez zen iritsi sustapen guztien % 10 izatera. Guztira, 18.245 etxebizitza saldu ziren Euskadin 2016an, eta haietatik etxebizitza babestuak ziren 1.726[7].

[7] López Oller, Joffre. *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016*

Etxebizitzaren Behatokiaren *2013-2017ko etxebizitza babestuaren eskaria eta eskuratze-tasak Euskadiko eremu funtzionaletan* txostenak azpimarratzen duenez, etxebizitza alokairuaren bidez eskuratzeko joera gero eta handiagoa da, eta alokairuko etxebizitza babestuen proportzioa ere gero eta handiagoa da[8].

**3.5 taula**

EMANTZIPATUTAKO 30 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN BANAKETAREN BILAKAERA, ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODALITATEAREN ARABERA, ETA ETXEBIZITZA LIBREAK ETA BABESTUAK BEREIZITA (%)

| (%) | | 2011 | 2013 | 2015 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| Erosketa | Etxebizitza librea | 25,2 | 20,2 | 14,3 | 17,6 |
| | Etxebizitza babestua | 4,9 | 6,5 | 2,8 | 2,4 |
| Alokairua | Etxebizitza librea | 54,1 | 52,7 | 67,6 | 61,3 |
| | Etxebizitza babestua | 5,6 | 7,4 | 3,0 | 6,0 |
| Oinordetza, dohaintza edo lagapena | | 5,3 | 5,8 | 6,3 | 8,6 |
| Beste modu bat edo ez dute esan babestua den ala ez | | 4,9 | 7,4 | 6,0 | 4,1 |
| Gazte emantzipatuak, Guztira | | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | | *351* | *370* | *374* | *354* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Etxebizitza babestuetan, desberdintasun nagusia lurralde historikoen araberakoa da. 2011z geroztik, Araban dago etxebizitza babestuetan bizi diren gazteen ehuneko handiena. 2011n % 17,9 ziren, eta 2013an ere antzeko proportzioa zegoen (% 18,0); 2015ean behera egin zuen (% 10,5) eta 2017an gora egin du oso nabarmen (% 21,4).

Bizkaian, berriz, etxebizitza babestuetan bizi diren gazteen ehunekoa Euskadiko txikiena izan da beti, 2011z geroztik. 2013an maximo historikoa lortu ondoren (% 11,9), behea jo zuen 2015ean (% 2,3), eta egoera bertsuari eutsi dio 2017an (% 2,6).

**3.6 taula**

ETXEBIZITZA BABESTUETAN BIZI DIREN GAZTE EMANTZIPATUEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

| (%) | 2011 | 2013 | 2015 | 2017 |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 17,9 | 18,0 | 10,5 | 21,4 |
| Bizkaia | 7,4 | 11,9 | 2,3 | 2,6 |
| Gipuzkoa | 10,7 | 15,5 | 8,1 | 9,4 |
| Euskadi | 10,5 | 13,9 | 5,8 | 8,4 |
| *(n)* | *351* | *370* | *374* | *354* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

[8] Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2018). *2013-2017ko etxebizitza babestuaren eskaria eta eskuratze-tasak Euskadiko eremu funtzionaletan* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_efectividad2017_af/eu_ovv_admi/adjuntos/eranginkortasuna_ef.pdf [Kontsulta: 2018/07/17] (13. orrialdea)

Hori guztia zentzuzkoa da, azken urteotan etxebizitza sozialek edo babes ofizialekoek lurralde bakoitzean izan duten bilakaera aztertuz gero. 2008an Euskadiko etxebizitza publiko guztien % 58 Araban eskaini ziren, eta gure autonomia-erkidegoko biztanleriaren % 15 besterik ez da bizi Araban. Hau da, etxebizitza publiko bat eskuratzeko probabilitateak Araban askoz ere handiagoak ziren, Bizkaian eta Gipuzkoan baino.

Bestalde, Bizkaian, 2013an izan zen handiena etxebizitza publikoetan bizi ziren gazteen ehunekoa; alegia, mota horretako etxebizitzen sustapen handienak egin ziren garaian, 2011tik 2013ra arte egin baitziren, batez ere.

**3.7 taula**

SALMENTAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN EDO ETXEBIZITZA SOZIALEN BILAKAERA, LURRALDEEN ARABERA

| | Euskadi | | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Absolutuak | Euskadiko guztien % | Absolutuak | Euskadiko guztien % | Absolutuak | Euskadiko guztien % | Absolutuak | Euskadiko guztien % |
| 2008 | 5.424 | 100 | 3.130 | 57,7 | 1.141 | 21,0 | 1.153 | 21,3 |
| 2009 | 5.010 | 100 | 2.239 | 44,7 | 1.342 | 26,8 | 1.430 | 28,5 |
| 2010 | 3.573 | 100 | 1.217 | 34,1 | 1.445 | 40,4 | 911 | 25,5 |
| 2011 | 6.845 | 100 | 2.214 | 32,3 | 2.899 | 42,4 | 1.732 | 25,3 |
| 2012 | 4.180 | 100 | 1.277 | 30,5 | 2.426 | 58,0 | 478 | 11,4 |
| 2013 | 3.860 | 100 | 1.195 | 30,9 | 1.994 | 51,7 | 672 | 17,4 |
| 2014 | 2.268 | 100 | 851 | 37,5 | 878 | 38,7 | 540 | 23,8 |
| 2015 | 1.545 | 100 | 527 | 34,1 | 668 | 43,2 | 350 | 22,7 |
| 2016 | 1.283 | 100 | 171 | 13,4 | 610 | 47,5 | 502 | 39,1 |
| 2017 | 1.206 | 100 | 142 | 11,8 | 477 | 39,6 | 587 | 48,7 |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. *Higiezinen Eskaintzaren Inkesta (HEI)*

## 3.1.4. Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen etxebizitzen ezaugarri fisikoak eta ekipamenduak

Eustaten Etxebizitzen Udal Estatistikaren arabera, 2016an Euskadiko etxebizitzak[9] ia 90 metro karratukoak ziren, batez beste (89,6). Alabaina, Euskadiko 16-29 urteko pertsona emantzipatuak 77,4 metro karratuko etxebizitzetan bizi dira Euskadin.

Araban bizi diren gazte emantzipatuen etxebizitzek 76,7 m$^2$ dituzte batez beste, eta 78,6 m$^2$ Bizkaiko gazteen etxebizitzek. Gipuzkoan bizi diren gazteen etxebizitzak zertxobait txikiagoak dira (75,9 m$^2$).

Ez da alde handirik ikusten, ezta ere, sexuari begiratuta (16 eta 29 urte bitarteko gizon emantzipatuak 76,0 m$^2$, eta emakumeak 78,4 m$^2$), edo Euskadin eta atzerrian jaio direnei begiratuta (75,3 m$^2$ eta 78,0 m$^2$, hurrenez hurren).

[9] EUSTAT: Estatistika-taulak: *Etxebizitzen Udal Estatistika: Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza familiarrak, lurralde-eremuaren arabera, egitura-ezaugarriei jarraiki [linean] Web-helbide honetan eskuragarri:* http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011300/Euskal_AEko_etxebizitza_familiarrak_lurralde-eremuaren_arabera_egitura-ezaugarriei_jarraiki/tbl0011354_e.html [Kontsulta: 2018/03/20]

Eta ez da oso alde handirik ikusten, era berean, etxebizitzaren edukitza-erregimenari begiratuta (etxebizitza jabetzan dutenen etxebizitzek 79,8 $m^2$ dituzte batez beste, eta alokairuko etxebizitzetan bizi direnen etxebizitzek 76,7 $m^2$).

Aztertutako aldagai sozial eta demografiko guztiek antzeko emaitzak ematen dituzte: etxebizitzen parkea oso homogeneoa da, eta etxebizitzen tamaina nahiko handia. Etxebizitza horiek garestiak direnez, gazteek zailtasunak dituzte bakarrik, beste inoren laguntzarik gabe, emantzipatzeko.

Etxebizitza txikiagoak eta merkeagoak eskaintzea lortzen baldin badute etxebizitza-politikek, gazteen emantzipazioa bultza dezakete.

**3.7 grafikoa**

ETXEBIZITZA GUZTIEN BATEZ BESTEKO AZALERAREN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN AZALERAREN ARTEKO KONPARAZIOA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA ($m^2$)




*Etxebizitzen guztizkoaren datu-iturria: Eustat, 2016 *(Etxebizitzen Udal Estatistika)*

Etxebizitzen batez besteko azalerak esaten digu etxebizitza-parkeko etxebizitza gehienak familientzat pentsatuta daudela, eta metro koadro bakoitza garestia denez, bakarrik emantzipatzeko asmoa duten gazteek zailtasun handiak dituztela beren asmoa betetzeko.

Euskadiko etxebizitza-parkeko etxebizitzen batez bestekoan baino ehuneko handiagoan dute berogailua 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen etxebizitzek (gazte emantzipatuen etxebizitzen % 84,5ek du berogailua, eta batez bestekoa % 75,9koa da Euskadin). Lurralde historikoei begiratuta, Arabako gazteen etxebizitzek dute berogailua, zentrala edo indibiduala, ehuneko handiagoan, bai etxebizitzen parke osoari begiratuta, bai gazte emantzipatuen etxebizitzei begiratuta. Bizkaiko eta Gipuzkoako etxebizitzek, oro har nahiz gazte emantzipatuen aldagai zehatzean, ehuneko nabarmen txikiagoan dute berogailua.

Klima ez da eragin handiko faktorea herrialde historikoetan etxebizitzetan igogailua jartzeko erabakia hartzean; hala ere, Araba da, berriz ere, etxebizitzetan igogailu gehien dituen lurralde historikoa. Bi arrazoi daude horretarako: batetik, etxebizitzen parkea beste bi probintzietan baino berriagoa da Araban, eta bestetik, etxebizitza babestuen ehunekoa ere haietan baino handiagoa da (etxebizitza babestuek bete egiten dute mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko araudia).

Datu horiek adierazten digute emantzipatutako gazteen etxebizitzek, oro har, ekipamendu onak dituztela Euskadin.

### 3.8 taula

BEROGAILUA ETA/EDO IGOGAILUA DUTEN ETXEBIZITZEN EHUNEKOEN KONPARAZIOA, ETXEBIZITZEN PARKE OSOAN ETA EMANTZIPATUTAKO 16 ETA 29 URTEKO GAZTEEN ETXEBIZITZETAN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

| (%) | Berokuntza (zentrala edo banakakoa) | | Igogailua | |
|---|---|---|---|---|
| | Etxebizitza-parke osoaren batez bestekoa | 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzak | Etxebizitza-parke osoaren batez bestekoa | 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzak |
| Euskadi | 75,9 | 84,5 | 71,1 | 69,1 |
| Araba | 94,4 | 90,1 | 77,4 | 74,2 |
| Bizkaia | 71,5 | 80,2 | 68,8 | 64,0 |
| Gipuzkoa | 74,4 | 87,1 | 71,9 | 73,0 |

* Etxebizitza-parke osoari buruzko datuen iturria: Eustat, 2016 *(Etxebizitzen udal-estatistika)*
Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Adierazi dugu, ikerlan honetan zehar, nola aldatzen den gazteen egoera zenbait aldagairen arabera: beren jaiolekuaren arabera (alegia, Euskadin ala atzerrian jaio diren begiratuta), beren gizarte-mailaren arabera edo hilean dituzten diru-sarreren arabera. Aldagai sozial eta ekonomiko horiek aztertu ondoren, ez da alde handirik ikusten gazteen etxebizitzen ekipamenduan. Izan ere, nabarmendu daitekeen alderdi bakarra da Euskadin jaio direnek atzerrian jaiotakoek baino ehuneko handiagoan dutela berogailua, trastelekua eta garajea beren etxebizitzetan. Etxebizitza babestuek hiru ekipamendu horiek izaten dituztela jakinda, pentsa dezakegu alde edo diferentzia horiek etxebizitza babestuak eskuratzeko aukera desberdinek sortutakoak izan daitezkeela. Horrek guztiak erakusten du Euskadiko etxebizitzen parkea, oro har, oso homogeneoa dela.

### 3.9 taula

30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN EKIPAMENDUA, JAIOLEKUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ETA HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Jaiotza-lekua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Hileko diru-baliabideak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Euskadi | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago |
| Berokuntza | 84,5 | 89,5 | 74,7 | 84,8 | 82,5 | 82,5 | 86,9 |
| Igogailua | 69,1 | 68,8 | 65,3 | 70,2 | 66,7 | 70,0 | 69,4 |
| Trastelekua | 39,5 | 43,8 | 34,8 | 41,5 | 34,8 | 38,8 | 39,9 |
| Garajea | 24,0 | 25,7 | 17,5 | 26,4 | 18,5 | 24,1 | 21,9 |
| *(n)* | *354* | *214* | *101* | *246* | *99* | *209* | *122* |

Galdera hauek bakarrik emantzipatutako pertsonei egin zaizkie

## 3.2. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUAK 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN

Etxebizitzak eskuratzeko moduak konparatzen baldin baditugu 16 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, ikusten dugu 30 urtetik gorako pertsonen asmoek eta ohiturek pertsona helduen asmoen eta ohituren gero eta antza handiagoa hartzen dutela, diru-sarrera handiagoak izan ahala, hilean diru gehiago izan ahala eta lan-egoera egonkortu ahala.

Alokairua da etxebizitza eskuratzeko modu nagusia 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean ere. Alokairuko etxebizitza batean bizi da 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 46,2. Ehuneko hori, hala ere, urrun dago alokairuan bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekotik (% 69,1).

Etxebizitza erostea izan da hura eskuratzeko bidea 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 40,8rentzat. Ehuneko horrek bi aldiz gainditzen du 16 eta 29 urte bitartekoen ehunekoa (% 20,0).

**3.10 taula**
ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUEN KONPARAZIOA 30 URTETIK BEHERAKO ETA GORAKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ARTEAN (%)

| (%) | 16-29 urte | 30-34 urte |
|---|---|---|
| Jabetzan, erosita | 20,0 | 40,8 |
| Alokairuan | 69,1 | 46,2 |
| Oinordetza edo dohaintza edo laga diote | 8,6 | 10,5 |
| Beste modu batean | 2,3 | 2,5 |
| Gazte emantzipatuak, Guztira | 100,0 | 100,0 |
| *(n)* | *354* | *460* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

### Zer bilakaera izan du etxebizitza eskuratzeko moduak 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean?

Jabetza-erregimenari begiratuta, erregimen horretako etxebizitzaren batean bizi zen, 2011. urtean, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 58,6. Ehuneko hori % 49,4koa izan zen 2013. urtean, % 48,0koa 2015ean, eta, azkenik, % 40,8koa izan da 2017an. Bestalde, gora ari da, etengabe, alokairu-erregimenean bizi diren pertsonen ehunekoa. Izan ere, % 36,4 bizi zen erregimen horretan 2011. urtean, eta ehunekoak gora egin du urtez urte, harik eta % 46,2ko ehunekoa adierazi duen arte 2017an. Eta, lehen aldiz, jabetza-erregimenean bizi direnen pertsonena baino handiagoa da alokairuan bizi direnen ehunekoa.

**3.8 grafikoa**

ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Etxebizitza eskuratzeko moduek antzeko bilakaera izan dute 16 eta 29 bitarteko pertsonen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean. 2011. urteaz geroztik, behera egin du jabetza-erregimenean bizi direnen ehunekoak, eta gora egin du alokairuan bizi direnen ehunekoak. Alokairuan bizi direnen ehunekoa nabarmen handiagoa da 16 eta 29 urte bitartekoen artean, baina 30 eta 34 urte bitartekoen artean lehen aldiz da handiagoa alokairuan bizi direnen ehunekoa, jabetzan bizi direnena baino (% 46,2 bizi dira alokairuan eta % 40,8k du bere etxebizitzaren jabetza).

Bi adin-talde horietan egin du atzera jabetza-erregimeneko etxebizitzen ehunekoak, eta gora alokairuaren ehunekoak.

**3.9 grafikoa**

ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUAREN BILAKAERA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ARTEAN (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Euskadin jaiotakoei begiratuta, 2015eko joera errepikatzen da, eta etxebizitza erosteko aukera gailentzen da, alokairuaren aldean (% 50,8 jabetzan eta % 33,0 alokairuan). Hala ere, atzerrian jaiotako pertsonen % 90,5 bizi da alokairuan, eta % 6,5 jabetza-erregimenean.

Hori bera gertatzen da elkarrizketatutako pertsonaren gizarte-maila subjektiboari erreparatuta. Gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla uste dutenek etxebizitza ehuneko handiagoan dute alokairuan (% 55,2), eta txikiagoan jabetza-erregimenean (% 28,8). Gizarte-maila ertainekoak edo ertain-altukoak direla uste dutenek, ordea, ehuneko nahiko paretsuak dituzte, eta zertxobait gailentzen dira jabetza-erregimenean bizi direnak (% 46,2 jabetzan, % 42,0 alokairuan).

Alokairua da etxebizitza eskuratzeko bidea baliabide ekonomiko urriak dituzten gazteentzat. Diru-sarreren zenbatekoak edo gizarte-mailaren pertzepzio subjektiboak gora egin ahala, handitu egiten da jabetza-erregimenean bizi direnen ehunekoa.

Bizkaia da orain ere, 16 eta 29 urte bitartekoekin gertatzen zen moduan, jabetza-erregimeneko etxebizitza duten pertsona emantzipatuen ehuneko handiena duena (% 42,7). Bestalde, Arabak du, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, alokairu-erregimenean bizi diren pertsona emantzipatuen ehuneko handiena (% 50,5).

**3.11 taula**

ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ARTEAN, LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOLEKUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ETA HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Lurralde historikoa | | | Jaiotza-lekua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Hileko diru-baliabideak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago |
| Erosketa | 40,8 | 37,8 | 42,7 | 39,3 | 50,8 | 6,5 | 46,2 | 28,8 | 29,6 | 51,9 |
| Alokairua | 46,2 | 50,5 | 43,8 | 47,8 | 33,0 | 90,5 | 42,0 | 55,2 | 53,6 | 38,3 |
| Pertsona emantzipatuak, Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *460* | *119* | *178* | *163* | *319* | *96* | *308* | *140* | *199* | *217* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

## 3.2.1. Etxebizitza jabetza-erregimenean duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak

Multzo berean biltzen baldin baditugu beren etxea erosi dutela dioten pertsonak eta beren etxebizitzaren titulartasuna herentziaren edo dohaintzaren baten bidez eskuratu dutela diotenak, ikusten dugu jabetza-erregimenean dutela etxebizitza 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 45,6k. Beren etxebizitzaren jabe diren horien artean, hura erosi dutenak dira gehiengo (% 32,3), hipoteka ordaintzen amaitzea falta zaien arren; bigarren multzo batean daude beren etxebizitzaren jabe izateaz gain, hura erabat ordainduta dutenak (% 8,4); eta, azkenik, herentzia edo dohaintza baten bidez eskuratu du bere etxebizitzaren jabetza pertsona horien % 4,9k.

**3.12 taula**

ETXEBIZITZAREN JABETZA ESKURATZEKO AUKEREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN (%)

| (%) | 2011 | 2013 | 2015 | 2017 |
|---|---|---|---|---|
| Erosi dute eta hipoteka erabat ordaindu dute | 5,3 | 3,5 | 4,9 | 8,4 |
| Erosi dute eta hipoteka ordaintzen ari dira | 53,3 | 45,9 | 43,1 | 32,3 |
| Oinordetzan edo dohaintzan hartu dute | 3,2 | 3,5 | 5,1 | 4,9 |
| Etxebizitza jabetzan duten 30-34 urteko gazte emantzipatuak, Guztira | 61,8 | 52,9 | 53,1 | 45,6 |
| *(n)* | *452* | *461* | *450* | *460* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

2011 eta 2017 urteen artean handitu egin da, beren etxebizitzaren jabe diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsona horien artean, hura erabat ordaindu dutela diotenak; hala ere, ez da proportzio handia. Beren etxebizitza jabetzan duten pertsonen multzo horretan, gehiengo dira (% 32,3), etxebizitzaren jabetza izan arren, oraindik hipoteka erabat ordaindu gabe dutenak. Pertsonen multzo horren proportzioak behera egin du 2011. urteaz geroztik, urte horretan 30 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 53,3 baitziren. Beren etxebizitzaren jabetza herentzia edo dohaintzaren baten bidez eskuratu duten pertsonek dute, azkenik, proportzio txikiena multzo horretan. Adierazi dugun moduan, gutxiengo dira erabat ordaindutako etxebizitza baten jabe diren pertsonak, eta, horren ondorioz, zuhurtasunez aztertu behar da ehunekoen bilakaera.

## 3.2.2. Etxebizitza alokairuan duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak

Aurreko orrialdeetan ikusi dugun moduan, alokairuko etxebizitza batean bizi da 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 46,2. Adierazi dugu, era berean, ehuneko hori gora egiten ari dela 2011. urteaz geroztik (% 36,4).

### Zergatik aukeratzen dute alokairu-erregimena 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuek?

Alokairua etxebizitza baten jabetza eskuratu bitarteko konponbide iragankorra da 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen heren batentzat (% 33,8). Arrazoi horren atzetik, pertsona horien % 22,5ek esaten du ez duela mailegu baten bidez hipotekatzerik nahi. Alokairuko etxebizitzek bizilekuz aldatzeko aukera eta askatasun handiagoak dakarzkiela adierazi du % 16,8k. Etxebizitza sozial baten alokairua eskaini diote % 9,8ri, eta azkenik, bestelako arrazoi batzuk eman ditu gainerako % 17,1ak.

**3.10 grafikoa**

ALOKAIRUKO ERREGIMENEAN BIZI DIREN 30-34 URTE BITARTEKO PERTSONEK ALOKAIRUAREN ALDE EGITEKO DITUZTEN ARRAZOIAK (%)



Alokairuan beren burua mailegu batekin hipotekatu nahi ez dutelako bizi diren pertsonen ehunekoak gora egin zuen 2013 eta 2015 urteen bitartean; izan ere, urte horietan agerikoak ziren krisiaren eraginak, etxe-kaleratzeen gaiaz hitz egiten duten hedabideek eta zailtasunak zeuden banku-maileguak eskuratzeko. Horrek guztiak eragina izan zuen adierazle horretan, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean gertatu zen moduan. Azken urteetako susperraldi ekonomikoaren ondorioz eta, batik bat, etxebizitzen salmenta-prezioaren jaitsieraren (txikia izan den arren) eta alokairu-errenten igoera handiaren ondorioz, handitu egin da, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, alokairua etxebizitza erosi bitarteko konponbide iragankorra zaiela uste dutenen ehunekoa.

**3.13 taula**

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN BATEAN BIZI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEK ALOKAIRUAREN ALDE EGITEKO DITUZTEN ARRAZOI NAGUSIEN KONPARAZIOA (%)

| % | | 2013 | 2015 | 2017 |
|---|---|---|---|---|
| Ez dute hipotekatu nahi | 16-29 urte | 33,1 | 42,5 | 24,6 |
| | 30-34 urte | 39,4 | 46,4 | 22,5 |
| Behin behineko aukera da erosi ahal izan baino lehen | 16-29 urte | 22,1 | 22,2 | 33,5 |
| | 30-34 urte | 18,7 | 21,4 | 33,8 |
| Askatasun eta mugikortasun gehiago ematen du | 16-29 urte | 20,1 | 21,9 | 20,7 |
| | 30-34 urte | 15,6 | 19,0 | 16,8 |

Galdera hau bakarrik egin zaie alokairuan bizi diren gazte ematzipatuei
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 3.2.3. Etxebizitza babestuak

Etxebizitza babestu batean bizi dela adierazi du, 2017. urtean, 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 16,4k. Ehuneko hori 30 urtetik beherako adinekoen artean horixe bera adierazi duten pertsonen proportzioaren doblea da (% 8,4).

Honela banatzen da etxebizitza babestu batean bizi diren pertsonen ehuneko hori: etxebizitza babestua jabetzan duela adierazten du % 9,0k, eta etxebizitza babestuan alokairu-erregimenean bizi dela adierazten du gainerako % 7,4ak.

Etxebizitza babestu batean bizi diren 30 urtetik beherako pertsonekin ez bezala, 30 eta 34 urte bitartekoen gehiengoak jabetza-erregimenean du izaera horretako etxebizitza bat.

**3.14 taula**

ETXEBIZITZA BABESTUETAN BIZI DIREN 30 URTETIK BEHERAKO ETA GORAKO GAZTE EMANTZIPATUEN EHUNEKOAREN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA, ETXEBIZITZAREN ERREGIMENAREN ARABERA (%)

| (%) | | 2011 | 2013 | 2015 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| 16-29 urteko gazte emantzipatuak | Etxebizitza babestuan, jabetzan | 4,9 | 6,5 | 2,8 | 2,4 |
| | Etxebizitza babestuan, alokairuan | 5,6 | 7,4 | 3,0 | 6,0 |
| | Etxebizitza babestuan, Guztira | 10,5 | 13,9 | 5,8 | 8,4 |
| *(n)* | | *351* | *370* | *374* | *354* |
| 30-34 urteko gazte emantzipatuak | Etxebizitza babestuan, jabetzan | 8,2 | 9,1 | 8,5 | 9,0 |
| | Etxebizitza babestuan, alokairuan | 1,4 | 7,8 | 2,7 | 7,4 |
| | Etxebizitza babestuan, Guztira | 9,6 | 16,9 | 11,2 | 16,4 |
| *(n)* | | *452* | *461* | *450* | *460* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* seriea)

Etxebizitza babestuetan bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoak behera egin zuen 2015ean, baina 2017. urtean berreskuratu egin da 2013ko ehunekoa.

Etxebizitza babestua jabetza-erregimenean dutenen ehunekoak egonkor dirau denboran, baina etxebizitza babestua alokairu-erregimenean dutenen ehunekoak gorabeherak dakartza guztizko ehunekoan.

Araba da, 30 urtetik beherako pertsonekin gertatzen zen moduan, etxebizitza babestuetan bizi diren pertsona emantzipatuen ehuneko handiena duen lurralde historikoa. Etxebizitza babestu batean bizi da Araban bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 30,2 (etxebizitza hori jabetzan du % 14,2k eta alokairuan % 16,0k). Gipuzkoa beste bi probintzien artean dago aldagai honetan ere (jabetzan du etxebizitza babestua % 11,6k eta alokairuan % 10,4k), eta, azkenik, oso urrun dago, Arabako ehunekoekiko bereziki, Bizkaian etxebizitza babestuan bizi diren 30 eta 34 urte bitartekoen ehunekoa. Bizkaian emantzipatuta bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 5,6 soilik bizi da etxebizitza babestu batean jabetza-erregimenean, eta txikiagoa da izaera horretako etxebizitzetan alokairuan bizi direnen ehunekoa.

**3.11 grafikoa**

ETXEBIZITZA BABESTUREN BATEAN JABETZA-ERREGIMENEAN EDO ALOKAIRUAN BIZI DIREN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)




Azkenik, alde handiak daude udalerriaren tamainari begiratuta. 10.000 biztanletik beherako udalerrietan dira txikienak etxebizitza babestuetan bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoak (etxebizitza babestuetan eta jabetzan bizi dira % 5,6, eta alokairuan % 2,1). Horien ondoren udalerri ertainak daude, 10.000 eta 100.000 biztanle bitartekoak; izan ere, udalerri horietan, adin-bitarte horretako pertsonen % 12,7 bizi da etxebizitza babestu batean jabetza-erregimenean, eta % 3,1 alokairuan. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan, alderantzikatu egiten dira etxebizitza babestua jabetzan eta alokairuan dituztenen ehunekoak (% 6,6 eta % 15,5, hurrenez hurren). Gasteizen alokairuko etxebizitza babestu asko izatea da, ziur asko, horren arrazoia.

Atal honekin amaitzeko, nabarmendu behar da Euskadin jaio diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 12,4 jabetza-erregimenean bizi dela etxebizitza babestu batean, eta % 4,9 bizi dela izaera horretako etxebizitza batean, alokairuan. Bestalde, atzerrian jaiotakoei begiratuz gero, % 15,5 bizi da alokairu babestuko etxebizitza batean, baina ikerlan honek ez du aurkitu atzerrian jaio eta 30 eta 34 urte bitartean dituen inor jabetza-erregimenean bizi denik etxebizitza babesturen batean.

## 3.2.4. 30 eta 34 urte bitarteko gazteek emantzipatzean dituzten etxebizitzen ezaugarri fisikoak eta ekipamenduak

Konparatzen baldin baditugu 16 eta 29 urte bitarteko pertsona emantzipatuek eta 30 eta 34 urte bitartekoek dituzten etxebizitzen ezaugarriak, ikusten dugu zertxobait handiagoak direla adin-bitarte handiagokoen etxebizitzak. 16 eta 29 urte bitartekoen etxebizitzek 77,4 metro koadro dituzte batez beste, eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen etxebizitzak, berriz, 80 metro koadroko langara iristen dira (80,6). Horren arrazoia izan daiteke jabetza-erregimeneko etxebizitzen ehunekoa zertxobait handiagoa dela adin-talde horretan, eta etxebizitza horiek zertxobait handiagoak direla.

Hiru lurralde historikoetan ikusten dira diferentzia horiek. Araban eta Bizkaian batik bat, gazteen eta 30 eta 34 urte bitartekoen etxebizitzen arteko aldeak Euskadiko datu orokorren oso antzekoak dira. Gipuzkoan, berriz, metro koadro batekoak baino txikiagoak dira alde horiek.

**3.12 grafikoa**

ETXEBIZITZA GUZTIEN BATEZ BESTEKO AZALERAREN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO NAHIZ 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN AZALERAREN ARTEKO KONPARAZIOA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (m²)




Etxebizitzen guztizkoaren datu-iturria: Eustat, 2016 *(Etxebizitzen Udal Estatistika)*

Pertsona emantzipatu gazteen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen etxebizitzak konparatu ondoren, adin-bitarte zaharragokoen etxebizitzek ekipamendu hobeak dituztela ikusten da. Lehenago egiaztatu dugun moduan, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean handiagoa da etxebizitza jabetza-erregimenean dutenen ehunekoa, eta hori izango da, ziur asko, etxebizitza horiek berogailua (zentrala edo indibiduala), igogailua, trastelekua eta garajea ehuneko handiagoan izatearen arrazoietako bat.

Garajea duten etxebizitzetan ikusten da alderik handiena. 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen etxebizitzen % 41,0k du garajea, baina ehuneko hori % 24,0ra jaisten da 16 eta 29 urte bitartekoen artean. Aldeak oso handiak dira Gipuzkoan (16 eta 29 urte bitartekoen etxebizitzen % 21,0k du garajea, eta 30 eta 34 urte bitartekoen % 41,8k) eta Bizkaian (emantzipatutako gazteen etxebizitzen % 17,5ek du garajea, eta 30 eta 34 urte bitartekoen etxebizitzen % 35,9k).

Trastelekua da 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 30 eta 34 urte bitartekoen etxebizitzen artean alde handiena dakarren bigarren ekipamendua. Beste aldagaiekin gertatzen den moduan, trastelekua duten etxebizitzen ehunekoa handiagoa da adin-talde zaharrean eta, batik bat Araban, lurralde historiko horretan handiagoak direlako etxebizitza babestuen eta jabetza-erregimeneko etxebizitzen ehunekoak.

Igogailua duten etxebizitzei begiratuta, ikusten dugu, era berean, ehuneko handiagoan dutela ekipamendu hori 30 eta 34 urte bitartekoen etxebizitzek. Adin-talde horretan, igogailua dute etxebizitzen % 74,4k. Ehunekoa zertxobait txikiagoa da, % 69,1ekoa, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean.

Berogailua da, aztertutako ekipamenduen artean, Euskadiko gazte emantzipatuen etxebizitzetan gehien ikusten dena. Etxebizitzen Udal Estatistikaren arabera, Euskadiko etxebizitzen parkean berogailu zentrala edo indibiduala

dute etxebizitzen % 75,9k. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen etxebizitzen % 84,5ek du berogailua, eta ehunekoa % 88,9ra igotzen da 30 eta 34 urte bitartekoen etxebizitzetan.

**3.15 taula**

BEROGAILUA, IGOGAILUA, TRASTELEKUA ETA/EDO GARAJEA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO PERTSONEN ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ETXEBIZITZETAN. EHUNEKOEN KONPARAZIOA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. ETXEBIZITZEN PARKE OSOAREN BATEZ BESTEKOAREKIKO KONPARAZIOA (%)

| (%) | | 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzak | 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzak | Etxebizitza-parke osoaren batez bestekoa* |
|---|---|---|---|---|
| Berokuntza (zentrala edo banakakoa) | Euskadi | 84,5 | 88,9 | 75,9 |
| | Araba | 90,1 | 96,7 | 94,4 |
| | Bizkaia | 80,2 | 86,0 | 71,5 |
| | Gipuzkoa | 87,1 | 89,6 | 74,4 |
| Igogailua | Euskadi | 69,1 | 74,4 | 71,1 |
| | Araba | 74,2 | 82,4 | 77,4 |
| | Bizkaia | 64,0 | 69,7 | 68,8 |
| | Gipuzkoa | 73,0 | 77,9 | 71,9 |
| Trastelekua | Euskadi | 39,5 | 49,1 | ** |
| | Araba | 66,7 | 73,1 | ** |
| | Bizkaia | 36,3 | 42,7 | ** |
| | Gipuzkoa | 29,7 | 47,3 | ** |
| Garajea | Euskadi | 24,0 | 41,0 | ** |
| | Araba | 46,1 | 55,5 | ** |
| | Bizkaia | 17,5 | 35,9 | ** |
| | Gipuzkoa | 21,0 | 41,8 | ** |

* Iturria: Eustat, 2016 *(Etxebizitzen udal-estatistika)*
** Ez dago datu eskuragarririk
Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Erosteko ahalmenak eragin zuzena du etxebizitzek dituzten ekipamenduetan.

Euskadin jaio diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuek adin hori bera izan baina atzerrian jaio direnek baino ehuneko askoz ere handiagoan dute berogailua, igogailua, trastelekua eta garajea beren etxebizitzetan.

Horrez gainera, gizarte-maila subjektiboak alde are handiagoak adierazten ditu diferentzia handienak dakartzaten ekipamenduetan, hau da trastelekua eta garajea duten etxebizitzetan.

Alde horiek berak ikusten ditugu 30 eta 34 urte bitartean izan eta hilean 1200 euro baino gutxiago edo gehiago irabazten dituzten pertsonen etxebizitzak aztertuz gero. Zenbat eta diru gehiago irabazi, orduan eta handiagoak dira jabetza-erregimeneko etxebizitzen ehunekoak eta trastelekua eta garajea duten etxebizitzen ehunekoak.

Azkenik, beren etxebizitza erosi dutenek ehuneko handiagoan dituzte aztertutako ekipamenduak, alokairuan bizi direnek baino. Eta, lehen azaldu dugun moduan, Euskadin jaio diren pertsonek, gizarte-maila ertain-altua edo ertaina dutenek eta hilean 1200 euro baino gehiago dutenek ehuneko handiagoan dute beren etxebizitza jabetza-erregimenean, atzerrian jaiotakoek baino, gizarte-maila baxu edo ertain-baxua dutenek baino eta hilean 1200 euro baino gutxiago dituztenek baino.

**3.16 taula**

30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN EKIPAMENDUAK ETA AZALERA, JAIOLEKUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN, HILEAN ESKURA DUTEN DIRUAREN ETA ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Jaiotza-lekua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Hileko diru-baliabideak | | Etxebizitza hartzeko modalitatea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Euskadi | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago | Jabetza | Alokairua |
| Berokuntza | 88,9 | 90,7 | 78,1 | 90,0 | 87,1 | 83,6 | 94,0 | 95,9 | 82,1 |
| Igogailua | 74,4 | 73,5 | 75,1 | 77,1 | 67,1 | 70,3 | 77,2 | 76,7 | 72,0 |
| Trastelekua | 49,1 | 53,3 | 38,5 | 54,5 | 37,0 | 35,6 | 61,7 | 64,8 | 36,0 |
| Garajea | 41,0 | 46,6 | 24,4 | 46,1 | 28,8 | 28,9 | 52,4 | 57,1 | 29,8 |
| Azalera ($m^2$) | 80,6 | 82,0 | 76,7 | 82,6 | 76,0 | 77,4 | 83,1 | 86,2 | 74,8 |
| *(n)* | *460* | *319* | *96* | *308* | *140* | *199* | *217* | *185* | *216* |

Galdera hauek bakarrik emantzipatutako pertsonei egin zaizkie

## 3.3. KAPITULUAREN LABURPENA

2017. urtean, alokairua da, oraindik ere, etxebizitza eskuratzeko modu nagusia 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean. Ehunekoa asko handitu da 2011 eta 2017 urteen bitartean, eta emantzipatutako 10 gaztetatik ia 7 bizi da gaur egun alokairuko etxebizitza batean.

Alokairu librea, ordea, ez da etxebizitza bat eskuratzeko modu merkea Euskadin. 2014 urtetik aurrera, ekonomiaren susperraldia abiatu ondoren, alokairuko etxebizitzen batez besteko errentak gora egin du Euskadin, harik eta 944 euroko batez bestekoa iritsi duen arte 2017ko laugarren hiruhilekoan. Aztertutako urte-saileko bigarren errenta garestiena da, 2008. urteko boomaren ondoren.

Alokairuko etxebizitzen merkatua egoera konplexuan dagoen unean gertatu da, zenbait autonomia-erkidegotan, apartamentu turistiko moduan erabiltzen diren etxebizitzen gorakada, eta faktore horren ondorioz, gutxitu egin da alokagai dauden etxebizitzen kopurua eta nabarmen garestitu da horien hileko errenta. Euskal Autonomia Erkidegoan, erdiguneko auzoetan dauden etxebizitza turistikoen kopurua nabarmen murrizteko asmoa duen udal-ordenantza bat onartu berri du Donostiako Udalak; izan ere, hiriburu horretan asko handitu da azken urteetan etxebizitza turistikoen kopurua.

Horregatik agian, alokairuan bizi diren gazteen kopurua zertxobait jaitsi da 2017an, eta handitu egin da (gehiengo izatera iritsi ez diren arren) alokairua etxebizitza bat erosi bitarteko konponbide iragankorra zaiela adierazten duten gazteen kopurua. Alokairuan beste arrazoi batzuengatik bizi direnak aztertzen baldin baditugu, ikusten dugu alokairuan bizi diren emantzipatutako gazteen ia erdia bizi dela erregimen horretan ez duelako mailegu batekin hipotekatu nahi edo alokatutako etxebizitzek bizilekua aldatzeko eta askatasuna izateko aukera handiagoak dakartzatelako.

30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuek ehuneko handiagoan eskuratzen dute etxebizitza jabetza-erregimenean, hau da, adin handiagoko pertsonen ohiturak eskuratzen dira lan-munduan sartu ahala. Edonola ere, etxebizitza jabetza-erregimenean duten pertsonen ehunekoak behera egin du azken urteetan, eta 2017. urtean, lehen aldiz, 30 eta 34 urte bitarteko pertsona gehiago bizi da alokairuan, jabetza-erregimenean baino.

Etxebizitza babestu bat eskuratzeko aukerak urriak eta desberdintasun handikoak izaten jarraitzen dute. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonek bikoiztu egiten dituzte 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak, eta adin-talde batean zein bestean etxebizitza babestua eskuratu dutenen ehunekoak handiagoak dira Araban, bai erositako etxebizitzen modalitatean, bai alokairuko etxebizitzen modalitatean.

Emantzipatutako gazteen etxebizitzen ezaugarri fisikoek hobera egiten dute 30 eta 34 urte bitarteko adin-tartean, bai azaleran, bai zenbait ekipamenduren horniduran, hala nola berogailua, igogailua, garajea eta trastelekua.

# 4

# Emantzipatutako gazteak: etxebizitza-gastuak eta zailtasun ekonomikoak

Ikerlan honen aurreko kapituluetan ikusi dugu gazteek zenbait zailtasun dituztela emantzipatzeko, eta zailtasun horiek atzeratu eta baldintzatu egiten dutela emantzipatzeko une hori. Ikusi dugu, izan ere, 30 urte bete aurretik okupazio-tasak eta soldatak ez direla emantzipatzeko prozesua abiatzeko egokiak, eta enpleguek ere ez dutela prozesu horri ekiteko behar den egonkortasunik.

Bestalde, prezioen gorakadak dakartzan zailtasunak alde batera utzita, egiaztatu dugu alokairua etxebizitza bat eskuratzeko modalitate malgua dela, jabetzaren aldean.

Euskadin emantzipatzen diren 30 urtetik beherako gazteen artean, nabarmen gailentzen da alokairuaren modalitatea.

Euskadiko gazteak zer egoera ekonomikoan emantzipatzen diren zehaztuko dugu kapitulu honetan. Etxebizitza-gastuak, alokairuen errentak eta hipotekak behatuko ditugu, eta datu horiei erreparatuta, gazteek gastu horiei aurre egiteko zer zailtasuni dituzten aztertuko dugu.

## 4.1. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ORDAINTZEN DUTEN HIPOTEKA-KUOTAREN EDO ALOKAIRU-ERRENTAREN HILEKO GASTUA

Gazte guztiek ez dute hipotekako edo alokairuko gasturik ordaintzen. Lehen adierazi dugun moduan, 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatu batzuek oinordetzan edo dohaintzan jaso dute beren etxebizitza, beste batzuei aldi baterako laga diete etxebizitza, eta beste batzuek jabetzan eta osorik ordainduta dute, eta ez dute hura eskuratzeko gasturik egin behar.

Hala ere, gazte emantzipatu gehienek ordaintzen dute, hilero, hipoteka-mailegu bat edo alokairu-errenta. Emantzipatutako gazteen % 83,5ek ditu hileko gastuak, bai hipoteka ordaintzeko (% 14,4), bai alokairua ordaintzeko (% 69,1).

Etxebizitza eskuratzeko hileko gastuak ordaindu beharra dakarten bi kontzeptu horiek (alokairu-errenta eta hipoteka-kuota) batzen baldin baditugu, ikusten dugu 608 eurokoa dela, batez beste, 16 eta 29 urte bitarteko gazteek alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko hilean egiten duten gastua. Alde handiak ikusten dira lurralde historiko batetik bestera, eta horren faktore eragile dira etxebizitzen kostua eta etxebizitza babestuen proportzioa.

Gogora badakarkigu 16 eta 29 urte bitarteko langile gazteek 1093 euro irabazten dituztela, ez da harritzekoa gutxi izatea 30 urte bete aurretik emantzipatzen diren gazteak.

Araban dira merkeenak 16 eta 29 urte bitarteko gazteek hilean alokairuarengatik edo hipotekarengatik ordaindu behar dituzten gastuak (524 eurokoak). Oso deigarria da Gipuzkoan bizi diren gazteek ordaindu behar duten gastu handiarekiko aldea (653 euro ordaintzen dituzte hilean). Lehen ikusi dugun moduan, Araban handiagoa da etxebizitza babestuen proportzioa, eta horrek eragin zuzena du gazteen emantzipazio-aukera errealetan. Ez dago alderik soldatetan; bai, ordea, etxebizitzen prezioan, etxebizitza libreen eta babestuen arteko aldeari begiratuta, bereziki.

Alde handiak ikusten dira, era berean, emantzipatutako gazteak bizi diren udalerriaren arabera konparatzen baldin badugu hilero alokairuan edo hipotekan egiten duten gastua. Udalerri txikietan, 10.000 biztanletik beherakoetan, bizi direnek 467 euro ordaintzen dituzte batez beste hilean, udalerri ertainetan (100.000 biztanle bitartekoetan) bizi direnek 591 euro, eta hiriburuetan bizi direnek, berriz, 677 euro. Berriro gogoratuko dugu Euskadin ez dela alde nabarmenik hiriburuetan eta udalerri txikietan lan egiten duten gazteen soldatetan, baina hiriburuetan etxebizitzen prezioa nabarmen garestiagoa da, eta horren ondorioz, gazteak hirien erdigunetik aldirietara joan behar izaten dute, edo, egoerak bultzatuta, baita urrunago ere, herri txikiagoetara.

## 30 urtetik beherakoek zer hipoteka-gastu izaten dituzte batez beste?

Gazteek 2017. urtean adierazi dutenaren arabera, hilean 422 euro ordaintzen dituzte, batez beste, kontratatuta duten hipoteka-maileguari aurre egiteko. Batez besteko zenbateko horren barruan alde handiak izan daitezkeenaren jakitun izanda, komeni da nabarmentzea, batez besteko zenbateko hori doitzeko, hau izan dela gehien errepikatu den zenbatekoa: 400 euro hilean. Zenbateko txikiena 150 eurokoa izan da hilean, eta handiena 1000 eurokoa.

Ikerlan honek aztertzen duen urte-saileko batez besteko kuota txikiena da (ikus 4.2 grafikoa). Hileko zenbatekoa 654 eurokoa zen 2011. urtean, 527 eurokoa 2013an, eta 515 eurokoa 2015ean. Nabarmena da, egiaz, gazteek hipotekarengatik batez beste ordaintzen duten kuotaren jaitsiera.

Gazteen hipoteka-kuotak nabarmen merkeagoak dira jendarteak oro har ordaintzen dituenak baino (593 euro hileko 2016. urtean)[10].

## Eta zer gastu egiten dute alokairu-errenta ordaintzeko?

Alokairuko etxebizitzetan bizi diren gazteek adierazten dute 641 euroko errenta ordaintzen dutela hilean. Hileko alokairu-errenta horren balio errepikatuena 600 eurokoa izan da (hipoteka bat ordaintzen dutenek adierazi dutena baino 200 euro handiagoa).

Hipoteka-kuoten zenbatekoak nabarmen egin du behera 2015 eta 2017 urteen bitartean, baina alokairu-errentek igoera handia izan dute, eta 641 euroko zenbatekora iritsi dira hilean (ikus 4.2 grafikoa). Alokairuaren burbuila

[10] López Oller, Joffre (2017): *ob.cit.*

deritzon horri lotutako faktoreak izan daitezke igoera horren erantzule: alokairurako etxebizitzen parkea txikia izatea eta horrek eskaera handia sorraraztea, alokairu turistikoen eragina, etab.

**4.1 taula**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEK HILEAN EGITEN DUTEN ETXEBIZITZA-GASTUA (ALOKAIRU-ERRENTA EDO HIPOTEKA-KUOTA), LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOLEKUAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (€)

| (€) | Guztira | Lurralde historikoa | | | Jaiotza-lekua | | Udalerriaren tamainua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi | Atzerria | Txikia | Ertaina | Hiriburuak |
| Hileko hipoteka-kuota edo alokairu-errenta | 608 | 524 | 606 | 653 | 557 | 651 | 467 | 591 | 677 |
| Hileko alokairu-errenta | 641 | 536 | 637 | 702 | 599 | 653 | 483 | 639 | 696 |
| Hileko hipoteka-kuota | 422 | 424 | 445 | 390 | 421 | 490 | 373 | 432 | 424 |
| *(n)* | *293* | *83* | *104* | *106* | *166* | *94* | *50* | *108* | *135* |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

Udalerriaren tamainaren arabera aztertzen baldin baditugu kontratatutako hipoteken eta alokairu-errenten arteko diferentziak, ikusten dugu arazo bat dutela hiru euskal hiriburuak baino hiri-ingurune handiagoetan, eta arazo hori ernamuintzen hasia dela euskal hiriburuetan ere. Arazo horri, zenbaitetan, *gentrifikazio* esaten zaio, eta kontzeptu horrek adierazten du hirietatik, eta gehien-gehienetan, hiriguneetatik kanpora joan behar izaten dutela espekulazioak, turismoak eta beste faktore batzuek eragindako prezio-igoerari aurre egin ezin dioten pertsonek.

Hilean ordaintzen diren alokairu-errenten arteko aldea 200 eurotik gorakoa da 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien eta hiriburuen artean. Diferentzia, prezioan, 483 eta 696 euro bitartekoa da, eta ehunekotan, berriz, % 44,1ekoa. Pentsatzekoa da gazteek herri txikietan emantzipatzearen aldeko hautua egingo dutela, lurralde-eremua txikia delako.

Hipotekek ez dute horrelako diferentzia edo alde handirik ageri, eta horrek erakusten digu alokairu-burbuila bat sortu dela, eskaintza txikiak eta gero eta eskaera handiagoak eraginda.

**4.1 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEK HILEAN IZATEN DITUZTEN HIPOTEKAKO ETA ALOKAIRUKO GASTUAK, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (€)




Grafiko honek 16 eta 29 urte bitarteko pertsona emantzipatuek hilean ordaintzen dituzten alokairu-errentak eta hipoteka-kuotak eta Euskadiko jendarteak ordaintzen dituenak konparatzen ditu, eta esaten digu gazteek jendarteak oro har egiten duena baino gastu txikiagoa egiten dutela hilean horiek ordaintzeko.

Gazteek alokatzen dituzten etxebizitzek Euskadiko etxebizitzen parkeak oro har eskaintzen dituenak baino prezio apalagoak izaten dituzte. Prezio orokor hori, 2017ko laugarren hiruhilekoan (orduan egin da ikerlan hau), 944 eurokoa izan da hileko.

30 urtetik beherako pertsonek Euskadin ordaintzen dituzten alokairu-errentek gora egin dute 2011 eta 2017 urteen bitartean, urte-sail horretako lehen urtean 546 eurokoa baitzen, eta 641 eurokoa izan baita 2017an. Alokairuaren merkatu orokorrak izan duen goranzko joera bera izan du.

30 urtetik beherako pertsonek kontratatu dituzten hipotekek ere hileko zenbateko txikiagoa izan dute, bai etxebizitza txikiagoak eskuratu dituztelako, bai *ad infinitum tempore moduko finantzaketa-formulak erabili dituztelako.*

**4.2 grafikoa**

HIPOTEKA-KUOTEN ETA ALOKAIRU-ERRENTEN ZENBATEKOEK EUSKADIN IZAN DUTEN BILAKAERA ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ORDAINTZEN DITUZTEN KUOTEKIKO ETA ERRENTEKIKO KONPARAZIOA (€)




*Euskadiko batez besteko alokairu-errentei eta hipoteka-kuotei buruzko datuen iturria: Euskadiko Etxebizitzaren Behatokia
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Euskadin 944 € ordaindu behar izan dira batez beste etxebizitza libre bat errentan hartzeko 2017. urtean (zenbateko garestiena da 2008. urteaz geroztik), hau da, gazteen soldataren % 66,9 eta 25 urtetik beherakoen soldataren % 100 baino gehiago[11].

Gazteek, 2008 eta 2009 urteetan, etxebizitza bat erostekoa baino ahalegin ekonomiko txikiagoa egin behar zuten etxebizitza bat alokatzeko. Orduz geroztik, 2010. urtetik aurrera, alderantzikatu egin zen asimetria hori, eta zenbateko handiagoa ordaindu behar da alokairu-errenta ordaintzeko, hipoteka-mailegu baten hasierako kuota ordaintzeko baino.

Alokairua, 2016. urtean, ez zen aukera bideragarria bakarrik emantzipatu nahi zuten gazteentzat, soldataren % 59,8 baliatu behar baitzuten etxebizitza baten alokairu-errenta ordaintzeko. Etxebizitza bat erosi nahi izanez gero, beren diru-sarreren % 32,3 erabili behar zuten hipoteka-kuota ordaintzeko. Finean, gordailuak eta fidantzak alde batera utzita, etxebizitza bat alokairuan hartzeko ez da hasierako gasturik egin behar, etxebizitza erostean ez bezala; hala ere, alokairuak gainzorpetze bat dakar hilean, hasierako unetik bertatik.

---

[11] López Oller, Joffre (2017). *ob.cit.*

## 4.2. NORK ORDAINTZEN DU HILERO HIPOTEKA-KUOTA EDO ALOKAIRU-ERRENTA?

Euskadin emantzipatuta bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko 10 pertsonatik 7k (zehazki, % 68,3 dira) beren kabuz edo beren bikotekideen laguntzarekin ordaintzen dituzte alokairu-errentak edo hipoteka-kuotak. Gastu horiek beren kabuz edo bikotekidearen laguntzaz ordaintzen dituztenen ehunekoa % 78,1etik % 68,3ra jaitsi da 2011 eta 2017 urteen bitartean.

2011 eta 2017 urteen bitartean igo egin da etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatzen dutenen kopurua. Emantzipatzeak Euskadin duen kostua ikusita, ezin daiteke esan egoera hori harritzekoa denik. Elkarrizketatutako pertsonen % 13,4k adierazi zuen 2011. urtean beste etxekide batzuekin partekatzen zituela etxebizitza-gastuak, eta ehuneko hori % 26,3ra igo da 2017an.

**4.2 taula**

HIPOTEKA EDO ALOKAIRUA ORDAINTZEN DUTEN 30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETAREN BILAKAERA, ORDAINTZAILEAREN ARABERA (%)

| (%) | 2011 | 2013 | 2015 | 2017 |
|---|---|---|---|---|
| Inkestatuak, bere bikotekideak edota bien artean erdi bana (gutxi gora behera) | 78,1 | 76,8 | 75,7 | 68,3 |
| Inkestatuak eta/edo bere bikotekideak familiaren laguntzarekin edo familiakoek ordainketa osoa | 2,4 | 3,7 | 5,8 | 4,8 |
| Inkestatuak pisukideekin partekatzen du | 13,4 | 14,5 | 15,1 | 26,3 |
| Beste erantzun bat | 3,0 | 2,4 | 3,4 | 0,6 |
| Ed/Ee | 3,1 | 2,6 | 0,0 | 0,0 |
| Hipoteka edo errenta ordaintzen duten gazte emantzipatuak, Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *307* | *323* | *324* | *293* |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* seriea)

Emantzipatutako gazteen bizikidetza-egoerak aztertzean, agerikoa da nabarmen handitu dela etxebizitza adiskideekin edo pisukideekin partekatzen duten gazteen kopurua.

## 4.3. DIRU-SARREREN ZER EHUNEKO ERABILTZEN DEN HIPOTEKA-KUOTA EDO ALOKAIRU-ERRENTA ORDAINTZEKO

Hilean alokairu-errentak edo hipoteka-kuotak ordaindu behar dituzten 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 48,2k esaten du etxean jasotzen dituzten diru-sarreren % 30 baino gutxiago erabiltzen dituela, hilero, gastu horiek ordaintzeko. Finantza-erakundeek, hipoteka-maileguak ematean, diru-sarreren % 30eko zorpetze-muga ez gainditzea aholkatzen dute, eta muga hori bera ezartzen dute administrazio publikoek alokairu soziala sustatzeko ekimenetan.

Hileko gastu horiek ordaintzeko, bere diru-sarreren % 30 eta % 40 bitartean erabiltzen du emantzipatutako gazteen % 19,8k.

Eskala horrekin berarekin jarraituta, emantzipatutako euskal gazteen % 21,8 gainesfortzu ekonomiko bat egiten ari da alokairua edo hipoteka ordaintzeko, etxean jasotzen dituen diru-sarreren % 40 baino gehiago ari baita erabiltzen gastu horiei aurre egiteko.

**4.3 grafikoa**

ALOKAIRUA EDO HIPOTEKA ORDAINTZEN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETA, BEREN DIRU-SARRERETATIK ORDAINKETA HORIEK EGITEKO BALIATZEN DUTEN EHUNEKOAREN ARABERA (%)




Grafiko honek konparatu eta lotu egiten ditu alokairua edo hipoteka mailegua ordaintzen duten gazte emantzipatuen batez besteko soldaten bilakaera, emantzipatutako gazteek ordaintzen duten batez besteko alokairu-errenta eta batez besteko hipoteka-kuota, eta, gazte horiei begiratuta, gainesfortzu ekonomikoa egiten ari direnen ehunekoa. Bilakaera horrek adierazten digu, alokairuaren batez besteko errentak gora egin arren, eta adin horretako pertsonen gehiengoa alokairuan bizi arren, soldaten igoerek arindu egiten dutela hileko gastu horiei aurre egiteko gainesfortzu ekonomikoa.

Modu sinpleago batean, hau esan daiteke: soldatek igoera apal bat izan dute 2011 eta 2017 urteen bitartean, eta, denbora horretan, behera egin du gainesfortzu ekonomikoa egiten ari diren gazteen ehunekoak, % 32,5ekoa baitzen 2011n, eta % 21,8koa izan baita 2017an. Aztertutako urte-saileko ehuneko txikiena da azken hori.

**4.4 grafikoa**

ALOKAIRUA EDO HIPOTEKA-MAILEGUA ORDAINTZEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN BATEZ BESTEKO SOLDATAREN, BATEZ BESTEKO HIPOTEKA-KUOTEN, BATEZ BESTEKO ALOKAIRU-ERRENTAREN ETA GAINESFORTZU EKONOMIKOAREN BILAKAERA




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Gainesfortzu ekonomikoaren eragina aztertzen baldin badugu, ikusten dugu Araba dela ehuneko txikiena duen lurraldea (% 18,0). Lehen ikusi dugun moduan, gazteek lurralde historiko horretan ordaintzen dituzten alokairu-errentak gainerako lurraldeetakoak baino nabarmen txikiagoak dira, eta horren ondorioz, logikoa da txikiagoa izatea gainesfortzu ekonomikoa egiten duten pertsonen ehunekoa.

Bizkaia da gainesfortzu ekonomikoa egiten ari diren gazteen ehuneko handiena duen lurralde historikoa (% 23,0), lurralde horretan ordaintzen baitira batez besteko hipoteka garestienak eta lurralde historiko horrek baitu etxebizitza babestuen ehunekorik txikiena.

Gipuzkoan ordaintzen dira alokairu-errenta garestienak (alokairua da gazteek darabilten bizikidetza-formula nagusia), baina hipoteka-kuotak gainerako lurralde historikoetan baino merkeagoak dira. Hori horrela, gainesfortzu ekonomikoa egiten ari da Gipuzkoan emantzipatuta bizi diren gazteen % 21,9.

Aldeak are handiagoak dira elkarrizketatutako gazteen jaiolekuari, beren ustez duten gizarte-mailari eta hilean eskuragarri duten diru-kopuruari erreparatuz gero.

Logikoa den moduan, 16 eta 29 urteko adin-bitartean emantzipatzea lortu eta hilean 1200 euro baino gutxiago irabazten dituzten pertsonek gainesfortzu ekonomiko bat egiteko arrisku handiagoa dute, hilean 1200 eurotik gora dituztenek baino. Aldeak ez dira hain nabarmenak gizarte-mailari begiratuz gero (gizarte-maila ertainekoak edo ertain-altukoak direla deritzotenen % 19,5 dago gainesfortzu ekonomikoko egoeran, eta ehuneko hori % 28,7koa da gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla uste dutenen artean). Ez luke lotura zuzenik egon behar norberaren jaiolekuaren eta zailtasun ekonomikoak izateko arriskuaren artean, baina ikerlan honetan egiaztatu izan dugun moduan, lotura hori egiazkoa da gaur egun eta berriro egiaztatu da gainesfortzu ekonomikoa egiten ari diren gazteen adierazlean; izan ere, Euskadin jaiotako gazteen % 16,6 dago egoera horretan, eta ehunekoa % 27,5ekoa da atzerrian jaio diren gazteen artean.

**4.3 taula**

ALOKAIRUA EDO HIPOTEKA-MAILEGUA ORDAINTZEKO GAINESFORTZU EKONOMIKOA EGITEN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOLEKUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ETA HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Lurralde historikoa | | | Jaiotza-lekua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Hileko diru-baliabideak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago |
| Gehiegizko esfortzu ekonomikoa | 21,8 | 18,0 | 23,0 | 21,9 | 16,6 | 27,5 | 19,5 | 28,7 | 30,5 | 9,7 |
| *(n)* | *293* | *83* | *104* | *106* | *166* | *94* | *206* | *81* | *173* | *100* |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

Etxebizitza jabetzan duten gazte emantzipatuen artean, gainesfortzu ekonomikoa egiten ari direnen ehunekoa % 8,0koa da, baina ehuneko hori % 27,0ra igotzen da alokairuan bizi diren gazteen artean, alde handia baitago ordaindu behar duten kopuruetan. Berriro ikusten dugu alokairua dela emantzipatzeko zailtasun handienak dituzten gazteek baliatzen duten bidea.

## 4.4. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ZAILTASUNAK ETXEBIZITZAREN GASTUEI AURRE EGITEKO

16 eta 29 urte bitarteko bost gazte emantzipatuetatik batek (% 20,7k) zailtasunak ditu, gaur egun, etxebizitza-gastuei aurre egiteko. Gastu horietan sartzen dira, hipoteka-kuotaz edo alokairu-errentaz gain, argia, ura, komunitatea eta etxeko bestelako gastuak.

Horrez gainera, antzeko beste ehuneko batek, % 20,1ek, uste du zailtasunak izango dituela datorren urtean.

Behera egin du etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten gazte emantzipatuen ehunekoak; izan ere, proportzioa % 31,1ekoa zen 2013. urtean, % 28,6koa 2015ean, eta % 21,8koa izan da 2017an. Era berean, nabarmen egin du behera zailtasunak izango dituztela aurreikusten duten gazteen ehunekoak (% 36,0koa zen 2013. urtean, % 33,2koa 2015ean, eta % 20,1ekoa izan da 2017an). Horrez gainera, eta lehen aldiz, zailtasunak izango dituztela aurreikusten dutenen ehunekoa txikiagoa da, galdetuak izan diren unean zailtasunak dituzten gazteen ehunekoa baino.

Hilean 1200 euro baino gutxiago dituzten 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuek diru gutxi izaten dute eskuragarri, eta horren ondorioz, % 30,5ek zailtasunak ditu gaur egun, eta % 27,0k aurreikusten du zailtasunak izango dituela etorkizunean (12 hileko epean).

Gizarte-maila ertain eta ertain-altukoen aldean, gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla uste duten gazte emantzipatuek ehuneko handiagoan esaten dute gaur egun zailtasunak bizi dituztela, eta ehuneko handiagoan aurreikusten dute etorkizunean zailtasunak izatea.

Euskadin emantzipatuta bizi baina atzerrian jaio diren gazteen % 36,4k esaten du zailtasunak dituela gaur egun. Pertsona horien % 32,0k uste du zailtasunak izango dituela datorren urtean.

**4.4 taula**

ETXEBIZITZA-GASTUAK ORDAINTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUAK, LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOLEKUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ETA HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Lurralde historikoa | | | Jaiotza-lekua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Hileko diru-baliabideak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago |
| Zailtasunak dituzte gaur egun | 20,7 | 22,8 | 19,3 | 21,3 | 13,9 | 36,4 | 13,4 | 38,9 | 30,5 | 4,5 |
| Etorkizunean zailtasunak izango dituztela uste dute | 20,1 | 27,4 | 20,5 | 15,8 | 13,2 | 32,0 | 14,0 | 31,9 | 27,0 | 8,0 |
| *(n)* | *354* | *104* | *123* | *127* | *214* | *101* | *246* | *99* | *209* | *122* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

## 4.5. FAMILIAREN LAGUNTZA EKONOMIKOA JASOTZEN DUTEN GAZTEAK

Euskadin emantzipatuta bizi diren 16 urtetik 29ra bitarteko gazteen % 60,9k ez du bere familiaren laguntza ekonomikorik jasotzen. Gazte emantzipatuen % 16,7k esaten du egoera berezietan soilik ematen diotela laguntza, hala nola etxebizitza erosi behar duenean, ezkondu behar duenean eta antzeko egoeretan.

Hala ere, familiaren laguntza ekonomikoa jasotzen du emantzipatutako gazteen % 21,7k: noizean behin jasotzen du laguntza % 10,7k, eta laguntza erregularra jasotzen du % 11,0k.

**4.5 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETA, FAMILIARENGANDIK JASOTZEN DUTEN LAGUNTZA EKONOMIKOAREN ARABERA (%)




Familiarengandik nolabaiteko laguntza, noizean behingoa edo erregularra, jasotzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoak gora egin zuen 2011tik 2013ra (% 15,3tik % 24,5era). Ehuneko hori % 17,3tik % 21,7ra igo da 2015 eta 2017 urteen bitartean.

Hauek dira familiarengandik laguntza ekonomikoa, noizean behingoa edo erregularra, jasotzen dutela adierazten duten gazte-taldeen ehuneko nagusiak: gaur egun etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak dituztela diotenak (% 34,8), gainesfortzu ekonomikoa egiten ari direla esaten dutenak (% 45,1), alokairuan bizi direnak (% 24,9) eta hilean 1200 euro baino gutxiago duten gazteak (% 32,6).

**4.5 taula**

FAMILIARENGANDIK LAGUNTZA EKONOMIKOA JASOTZEN DUTE 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUAK, ETXEBIZITZA-GASTUEI AURRE EGITEKO ZAILTASUNEN ARABERA, GAINESFORTZU EKONOMIKOAREN ARABERA, ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODALITATEAREN ARABERA ETA HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak | | Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoera | | Etxebizitza hartzeko modalitatea | | Hileko diru-baliabideak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Bai | Ez | Bai | Ez | Erosketa | Alokairua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago |
| Bai, aldizka | 11,0 | 13,2 | 10,5 | 26,0 | 7,6 | 3,2 | 14,2 | 16,4 | 2,9 |
| Bai, noizean behin | 10,7 | 21,6 | 7,4 | 19,1 | 8,9 | 11,4 | 10,7 | 16,2 | 2,8 |
| FAMILIAREN DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN DUTE | 21,7 | 34,8 | 17,9 | 45,1 | 16,5 | 14,6 | 24,9 | 32,6 | 5,7 |
| Bakarrik une berezietan (etxebizitza erostean, ezkontzean...) | 16,7 | 16,3 | 17,0 | 6,1 | 19,0 | 23,2 | 14,7 | 12,6 | 23,0 |
| Ez, inoiz ez | 60,9 | 48,8 | 64,3 | 48,8 | 63,6 | 62,2 | 59,2 | 54,1 | 70,0 |
| Ed/Ee | 0,7 | 0,1 | 0,8 | 0,0 | 0,9 | 0,0 | 1,2 | 0,7 | 1,3 |
| Gazte emantzipatuak, Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| *(n)* | *354* | *74* | *276* | *60* | *203* | *246* | *99* | *209* | *122* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

## 4.6. ETXEBIZITZA-GASTUAK ETA HORIEK ORDAINTZEKO ZAILTASUNAK 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN

Emantzipatuta bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonek diru-kopuru handiagoa ordaintzen dute hipoteka-kuotak ordaintzeko, 16 eta 29 urte bitartekoek baino (485€ eta 422€ ordaintzen dute, hurrenez hurren).

Alokairu-errenten egoera bestelakoa da, gazteek gastu handiagoak ordaintzen baitituzte. 16 eta 29 urte bitarteko gazteek 641 euroko alokairu-errenta ordaintzen dute batez beste, eta 30 eta 34 urte bitartekoek, berriz, 569 euro.

**4.6 taula**

HIPOTEKA-KUOTEN ETA ALOKAIRU-ERRENTEN BILAKAERA, ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO HERRITAR EMANTZIPATUEN, 30 ETA 34 URTE BITARTEKO HERRITAR EMANTZIPATUEN ETA EUSKADIKO JENDARTE OSOAREN EGOEREN ARTEKO KONPARAZIOA (EUROTAN)

| (€) | 2011 | | 2013 | | 2015 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hipoteka-kuota | Alokairu-errenta | Hipoteka-kuota | Alokairu-errenta | Hipoteka-kuota | Alokairu-errenta | Hipoteka-kuota | Alokairu-errenta |
| 16-29 urteko gazteak | 654 | 546 | 527 | 542 | 515 | 543 | 422 | 641 |
| 30-34 urteko gazteak | 670 | 580 | 599 | 526 | 551 | 529 | 485 | 569 |
| Euskadiko batez bestekoa* | 745 | 896 | 665 | 825 | 619 | 872 | 593* | 944 |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie
* 2016ko datua
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma) 16-34 urteko gazteen datuak eskaintzeko eta Euskadiko Etxebizitzaren Behatokia Euskadiko batez bestekoari dagokionean

Egoera bitxiak ikusten dira hileko etxebizitza-gastuak, hipoteka-kuotei edo alokairu-errentei dagozkienak, konparatzen baldin baditugu 30 urtetik beherako pertsonen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean.

Aurreko kapituluetan ikusi dugun moduan, langileen ehunekoa handiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean eta, horrez gainera, 16 eta 29 urte bitarteko pertsonek baino baldintza ekonomiko nabarmen hobeagoak dituzte. Hala ere, gazteek ehuneko handiagoan baliatzen dute alokairuaren modalitatea, eta, ondorioz, hileko gastu handiagoak egin behar izaten dituzte, beren hileko diru-sarrerak apalagoak diren arren; hori horrela, beren egoera ez da zaharragoena bezain segurua eta ehuneko handiagoan egin behar izaten dituzte gainesfortzu ekonomikoak.

16 eta 29 urte bitarteko gazteek 608 euroko gastua egiten dute hilean, eta 30 eta 34 urte bitartekoek, berriz, 536 eurokoa. Lurralde historiko guztietan ikusten dira bi adin-talde horien arteko aldeak. Araban dira merkeenak hileko gastuak; izan ere, 16 eta 29 urte bitartekoek 524 euro ordaintzen dituzte hilean batez beste, eta 30 eta 34 urte bitartekoek, berriz, 473 euro. Bizkaian, 16 eta 29 urte bitarteko gazteek 606 euro ordaintzen dituzte, eta 30 eta 34 urte bitartekoek, berriz, 551 euro. Azkenik, Gipuzkoan ikusten da alderik handiena 30 urtetik beherakoek eta 30 eta 34 urte bitartekoek ordaintzen dutenaren aldean (652 euro eta 549 euro, hurrenez hurren).

Udalerriaren tamainaren araberako aldeek esaten digute 16 eta 29 urte bitarteko gazteek hilean ia 200 euro gehiago ordaintzen dutela hiriburuetan, 10.000 biztanle baino gutxiago udalerrien aldean. Alde hori, ordea, murriztu egiten da kasu honetan, eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoetara gerturatzen da, txikiagoa baita, adin-talde horretan, alokairuan bizi diren pertsonen ehunekoa (eta alokairu-errenten prezioak dira, hain justu, bien arteko aldea handitzen dutenak).

**4.7 taula**

16 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEK HILEAN EGITEN DUTEN ETXEBIZITZA-GASTUA (ALOKAIRU-ERRENTA EDO HIPOTEKA-KUOTA), LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (EUROTAN)

| (€) | Guztira | Lurralde historikoa | | | Udalerriaren tamainua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Txikia | Ertaina | Hiriburuak |
| 16-29 urteko gazteak | 608 | 524 | 606 | 652 | 467 | 591 | 677 |
| 30-34 urteko gazteak | 536 | 473 | 551 | 549 | 534 | 529 | 544 |
| 16-34 urteko gazteak | 566 | 493 | 572 | 596 | 508 | 554 | 601 |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 90ek bere gain hartzen ditu hileko gastu horiek, bai bakarrik, bai bikotekideek lagunduta. Gurasoen edo beste senide batzuen laguntzarekin ordaintzen ditu gastu horiek % 1,6k, eta etxekideekin batera ordaintzeko ditu etxebizitza-gastu horiek adin-bitarte horretako % 7,2k.

Hauek dira 16 eta 29 urte bitarteko gazteen kolektiboarekiko ageri dituzten bi alde edo diferentzia nabarmenak: batetik, adin zaharragoko taldean handiagoa da etxebizitza-gastuak bakarrik edo bikotekidearen laguntzarekin ordaintzen dituztenen ehunekoa; eta, bestetik, 16 eta 29 urte bitarteko pertsonek ehuneko nabarmen handiagoan partekatzen dutela etxebizitza beste pertsona batzuekin, eta, ondorioz, ehuneko handiagoan partekatzen dituztela gastu horiek etxekideekin.

**4.6 grafikoa**

HIPOTEKA EDO ALOKAIRUA ORDAINTZEN DUTEN PERTSONA EMANTZIPATUEN BILAKAERA, ORDAINTZAILEAREN ARABERA. 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO KOLEKTIBOEN ARTEKO ALDERAKETA (%)




Bestalde, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adin-taldean txikiagoa da familiaren laguntza, noizean behingoa edo erregularra, jasotzen dutenen ehunekoa. Familiaren laguntzarik jasotzen ez dutenen ehunekoa % 60,9koa da 16 eta 29 urte bitartekoen adin-taldean, eta % 75,4koa 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Lehen ikusi dugun moduan, familiaren laguntza ekonomikoa jasotzen du 16 eta 29 urte bitartean emantzipatu diren gazteen % 21,7k, eta ehuneko hori 30 eta 34 urte bitartekoen artean % 10,4koa da (% 3,0k jasotzen du laguntza erregularra eta % 7,4k jasotzen du laguntza hori noizean behin).

**4.7 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN BANAKETAREN KONPARAZIOA, FAMILIARENGANDIK JASOTZEN DUTEN LAGUNTZA EKONOMIKOAREN ARABERA (%)




Bere familiaren laguntza ekonomiko erregularra jasotzen duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoak behera egin du 2011. urtearekin (% 4,5) eta 2013. urtearekin alderatuta (% 4,9), eta 2015. urteko ehunekoaren antzekoa da (% 2,7).

## Bi adin-talde horien artean, zer alde dago hipoteka edo alokairua ordaintzeko erabiltzen duten diru-sarreren ehunekoan?

30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen adin-taldean zertxobait egiten du behera hipotekaren edo alokairuaren gastuak ordaintzeko bere diru-sarreren % 40 baino gehiago baliatzen dutenen ehunekoak, hau da, gainesfortzu ekonomikoa egiten dutenenak. Aldeak, halere, oso txikiak dira.

**4.8 grafikoa**

ALOKAIRUA EDO HIPOTEKA ORDAINTZEN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETAREN ETA EGOERA HORRETAN DAUDEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN BANAKETAREN ARTEKO KONPARAZIOA, BEREN DIRU-SARRERETATIK ORDAINKETA HORIEK EGITEKO BALIATZEN DUTEN EHUNEKOAREN ARABERA (%)




Urtetik urtera, behera egin du, hipoteka edo alokairua ordaintzen duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adin-taldean, ordainketa horiei aurre egiteko gainesfortzu ekonomikoa egin behar dutenen ehunekoak. Izan ere, % 27,1 ziren 2011. urtean, % 25,0 2013an, % 24,9 2015ean, eta % 20,4 izan dira 2017an. Beherakada horren arrazoiak izan daitezke, batetik, soldatek gora egin dutela, eta bestetik, hipoteka-kuotak merkatu egin direla.

Adin-talde horretan, gainesfortzu ekonomikoa egiten ari diren pertsonen proportzioak ez du alde handirik ageri lurralde historikotik lurralde historikora. Ez da hori 16 eta 29 urte bitartekoen egoera, soldata txikiagoak dituztelako eta alokairuan bizitzeko joera handiagoa dutelako (alokairuak, gainera, hileko gastu handiagoak sorrarazten ditu gaur egun, hipoteka bat kontratatzeak baino).

Hala ere, berriro ikusten ditugu hemen Euskadin jaiotakoen eta atzerrian jaiotakoen arteko aldeak; izan ere, gainesfortzu ekonomikoa egiten ari da atzerrian jaiotakoen % 38,3. Berriro ikusten dugu gainesfortzu ekonomia egiteko arrisku handiagoa dutela hilean 1200 euro baino gutxiago dituztenek (30 eta 34 urte bitartean izan eta hilean 1200 euro baino gutxiago dituztenen % 34,7 ari da gainesfortzu hori egiten); izan ere, garestia da gaur egun etxebizitzen hipoteka edo hileko errenta ordaintzea.

**4.8 taula**

HIPOTEKA EDO ALOKAIRUA ORDAINTZEN ETA HORIEK ORDAINTZEKO GAINESFORTZU EKONOMIKOA EGITEN ARI DIREN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN EHUNEKOA, LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOLEKUAREN ETA HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Lurralde historikoa | | | Jaiotza-lekua | | Hileko diru-baliabideak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi | Atzerria | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago |
| Gainesfortzu ekonomikoan | 20,4 | 19,4 | 20,5 | 20,9 | 13,8 | 38,3 | 34,7 | 7,8 |
| *(n)* | *364* | *98* | *137* | *129* | *233* | *92* | *154* | *172* |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuot ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituela esaten du, gaur egun, adin-talde horretan dauden pertsona emantzipatuen % 18,0k. Ehuneko hori % 42,4raino igotzen da adin hori izan eta atzerrian jaio diren pertsonei erreparatzen badiegu. Era berean, ehuneko hori handiagoa da kolektibo hauengan: gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla esaten duten pertsonengan (% 33,6), eta hilean 1200 euro baino gutxiago dituztenengan (% 32,1ek esaten du gaur egun zailtasunak dituela ordainketa horiek egiteko). Nabarmentzekoa da, azkenik, hipoteka ordaintzen dutenen eta alokairu-errenta ordaintzen dutenen arteko alde handia (hipoteka ordaintzen ari direnen % 7,0k ditu zailtasunak gaur egun, eta alokairuan bizi direnen % 29,8k).

Nahiko antzekoa da, % 18,1ekoa, etorkizunean zailtasunak izango dituela aurreikusten dutenen ehunekoa. Alde handiak daude, berriro ere, pertsonen jaiolekuaren arabera (Euskadin jaiotakoen % 13,2k uste du zailtasunak izango dituela, eta atzerrian jaiotakoen % 42,4k uste du hori bera), eta, batik bat, hilean 1200 euro baino gehiago edo gutxiago dutenen artean. Argi geratzen da, berriro ere, oso zaila dela Euskadin emantzipatzea hilean 1200 euro baino gutxiago izanda (gazte gehienen soldatek, ordea, ez dute langa hori gainditzen). Euskadin, hilean 1200 euro baino gutxiago izaten dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 33,3k uste du zailtasunak izango dituela datorren urtean. Emantzipatuta bizi dira, baina beren egoera oso ezegonkorra da.

**4.9 taula**

ETXEBIZITZA-GASTUAK ORDAINTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUAK, JAIOLEKUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN, HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ETA ETXEBIZITZA ESKURATZEKO MODUAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Jaiotza-lekua | | Gizarte-klase subjektiboa | | Hileko diru-baliabideak | | Etxebizitza hartzeko modalitatea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Euskadi | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago | 1200 € baino gehiago | Erosketa (hipoteka) | Alokairua |
| Zailtasunak dituzte gaur egun | 18,0 | 10,9 | 42,4 | 10,9 | 33,6 | 32,1 | 3,6 | 7,0 | 29,8 |
| Etorkizunean zailtasunak izango dituztela uste dute | 18,1 | 13,2 | 36,2 | 11,1 | 33,3 | 33,6 | 4,0 | 7,3 | 27,8 |
| *(n)* | *460* | *319* | *96* | *308* | *140* | *199* | *217* | *185* | *216* |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Emantzipatuta bizi diren pertsona horiei begiratua, ona izan da 2013 eta 2017 urteen bitartean, etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak dituztenen bilakaera; izan ere, 2013. urtean, zailtasunak zituztela adierazi zuen % 23,5ek, eta 2017. urtean, berriz, % 18,0k esan du zailtasunak dituela.

Hurrengo urtean zailtasunak izango dituztela pentsatzen dutenen bilakaerari begiratuta, 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 30,7k uste zuen 2013an zailtasunak izango zituela hurrengo urtean (ez da harritzeko datua, krisialdi ekonomikoaren urte zaila izan baitzen hura). 2017. urtean, ordea, inkesta egin den garaian, % 20tik behera jaitsi da ehuneko hori, bai zailtasunak dituztenen artean, bai zailtasunak izango dituztela aurreikusten dutenen artean.

**4.9 grafikoa**

ETXEBIZITZA-GASTUAK ORDAINTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTENEN ETA ZAILTASUNAK IZANGO DITUZTELA AURREIKUSTEN DUTENEN EHUNEKOAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ARTEAN (%)



## 4.7. KAPITULUAREN LABURPENA

Euskadin emantzipatuta bizi diren gazteek hilean 608 euro ordaintzen dituzte batez beste, alokairua edo hipoteka-kuota ordaintzeko. Alokairuan bizi diren gazteek diru gehiago gastatzen dute errenta ordaintzeko (641 €), hipoteka bat kontratatu duten gazteek baino (422 €).

Ikusi dugun moduan, lan egiten ari diren gazteen soldatek gutxigatik gainditzen dute 1000 euroko langa (datu horrek ez ditu emantzipatutakoak eta emantzipatu gabeak bereizten), eta hori jakinda, erraz ondoriozta daiteke gazteek zailtasunak dituztela gurasoen etxetik irteteko.

Etxebizitza bat alokatzeko gastuak hura erostekoak baino garestiagoak dira, baina soldatak apalak direnez eta hipoteka-maileguak lortzea zaila denez, alokairua da kolektibo jakin batzuek etxebizitza bat eskuratzeko duten aukera bakarra eta garestia. Oro har, prekarioa izaten da baldintza horietan emantzipatzen diren kolektiboen egoera.

Emantzipatutako gazteen % 21,8k erabiltzen du beren diru-sarreren % 40 baino gehiago etxebizitzaren hileko gastuak ordaintzeko, hau da, gazte emantzipatuen ehuneko hori ari da gainesfortzu ekonomikoa egiten. Ehuneko hori zertxobait jaitsi da 2011. urteko % 32,5eko proportziotik.

Hauek dira gainesfortzu ekonomikoaren ehuneko handienak dituzten kolektiboak: atzerrian jaio diren pertsona emantzipatuak (% 27,5), gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla esaten dutenak (% 28,7), eta, logikoa den moduan, hilean 1200 euro baino gutxiago irabazten dituzten gazteak (% 30,5).

Antzekoak dira gaur egun etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasuna dutela adierazten duten gazte emantzipatuen ehunekoa (% 20,7) eta gainesfortzu ekonomikoa egiten ari direla adierazten dutenena.

Familiaren laguntza ekonomiko erregularra jasotzen du emantzipatutako gazteen % 11,0k. Noizean behingo laguntza jasotzen du % 10,7k, eta egoera berezietan jasotzen du laguntza % 16,7k.

Beste adierazle batzuekin ez bezala, ez da alde handirik ikusten 30 urtetik beherako gazteen eta 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean dauden pertsonen artean. Hipoteka-kuota edo alokairua ordaintzeko hilean batez beste ordaintzen duten kopurua 30 urtetik beherakoena baino zertxobait txikiagoa da; izan ere, 30 eta 34 urte bitartekoen artean handiagoa da etxebizitza jabetzan dutenen ehunekoa eta, ikusi dugun moduan, hipoteka-kuotak merkatu egin dira azken urteotan. Familiaren laguntza ekonomikoa jasotzen dutenen ehunekoa txikiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen artean, 30 urtetik beherakoen artean baino. Horren ondorioz, bi adin-talde horietan paretsuak dira etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztenen eta gainesfortzu ekonomikoa egiten ari direnen ehunekoak.

# 5

# Emantzipatu gabeko gazteak

Kapitulu honetan, 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeak aztertuko ditugu, eta baita, noizbait emantzipatu diren arren, orain emantzipatu gabeko egoeran daudenak ere.

Noizbait gurasoen etxetik irten eta gurasoen etxera itzuli diren pertsonen egoera ikertzean, zergatik itzuli diren aztertuko dugu.

Horrez gainera, ikusiko dugu emantzipatzeko zer aurreikuspen duten emantzipatu gabe daudenek, zer lehentasun dituzten eta zer ekarpen egiten dioten familiaren ekonomiari.

## 5.1. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOAREKIKO ESKARMENTUA

Emantzipazioarekiko duten egoeraren arabera banatzen baldin baditugu 16 eta 29 urte bitarteko euskal gazteak, argazki hau osatuko dugu: ikusi dugu gaur egun emantzipatuta bizi dela adin-bitarte horretan daudenen % 22,6; ez du inoiz ere emantzipazio-bizipenik izan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 65,3k, eta, ondorioz, gurasoekin bizi da gaur egun; eta azkenik, emantzipatuta bizi izan da noizbait gazteen % 12,1, baina zenbait arrazoiren ondorioz, gurasoen etxera bueltatu behar izan dute, eta zapuztu egin zaie emantzipazio-ahalegina.

**5.1 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN BANAKETA, EMANTZIPAZIOAREKIKO EGOERAREN ARABERA (%)




16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 65,3k ez du inoiz ere egin bizitza emantzipaturik.

Berariaz gurasoekin bizi diren 25 eta 29 urte bitarteko gazteei begiratzen baldin badiegu, hau da, goi-mailako ikasketak bukatuta edo bukatzear izan ditzaketen gazteei begiratuz gero, ikusten dugu lanean ari dela gazte horien % 57,8. Hala ere, aldi baterako lana egiten ari da gazte horien % 44,9, eta hilean 1200 euro baino gutxiago irabazten ditu % 71,9k. Lanean ari da adin horretan dauden gazteen gehiengoa, baina gazte horien emantzipazio-aukerek oztopo handiak dituzte, aldi baterako lanek ez dutelako ziurtatzen lanean jarraituko dutenik eta soldata apalak jasotzen dituztelako. Egoera horrek ez du emantzipazio egonkor baterako ziurtasunik ematen.

Noizbait emantzipatuta bizi izan diren arren, gurasoen etxera bueltatu dira 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 12,1.

Noizbait emantzipatuta bizi izan diren baina gurasoen etxera bueltatu diren gazteen ehunekoa aurreko urteetako batez bestekoen antzekoa da: 2011. urtean, gurasoekin bizi ziren gazteen % 12,4k adierazi zuen noizbait bere kontura bizi izan dela; ehuneko hori % 17,2ra igo zen 2013. urtean. Ondoren, % 15,3ra jaitsi zen 2015. urtean, eta gehiago jaitsi da, % 12,1eko proportzioraino, 2017. urtean.

Ikasketak amaitu izana edo ikasketez aldatzea da gurasoen etxera bueltatzeko arrazoi nagusia, eta, ondorioz, esan daiteke emantzipazio hori ez zela ekonomikoa izan, emantzipatzeko diru-sarrera nahikoak zituztelako egindakoa.

Emantzipatuta dauden ala ez kontuan izan gabe, 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztiak aintzat hartuta egiten baldin badugu kalkulu hori, ikusten dugu 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien % 1,3 soilik bueltatu dela gurasoen etxera ez duelako emantzipazio-egoerari eusteko dirurik izan. Ehuneko hori % 2,4koa izan zen 2011. urtean, % 3,1ekoa 2013an, eta % 2,0koa 2015. urtean.

Emantzipazioaren bidea Euskadin atzera bueltarik gabekoa dela dirudi, gutxi baitira gurasoen etxera bueltatu behar izan dutenak arazo ekonomikoak izan dituztelako eta ezin izan diotelako emantzipazio-egoerari eutsi.

## 5.2. EMANTZIPATZEKO GOGOA ETA AURREIKUSPENAK

Gurasoekin bizi diren gazteen % 81,6k lortu nahi du emantzipazioa (% 24,0k bakarrik lortu nahi du, bikotekidearekin % 37,5ek eta lagunekin % 20,1ek). Adinak gora egin ahala, gero eta handiagoa da emantzipatzeko grina, gogo hori adierazten baitu emantzipatu gabe bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 72,8k, 20 eta 24 urte bitarte dituzten pertsonen % 83,7k eta 25 eta 29 urte bitartean dituztenen % 91,0k.

Gurasoen etxean bizi diren gazteen erdiak baino gehiagok (% 57,0) esaten du hiru urteko epean emantzipatu nahi duela.

Proportzio hori nabarmen handiagoa da noizbait beren kabuz bizi izan direnen edo, gutxienik, gurasoena ez den etxeren batean bizi izan direnen artean, % 79,4koa baita. Era berean, Euskadiko emantzipazio-adinera iristen ari direnek, 25 eta 29 urte bitarteko gazteek, 20 eta 24 urte bitartekoek baino ehuneko handiagoan azaldu dute hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa (% 74,7k eta % 62,4k, hurrenez hurren).

Ikusi dugu lehenago 20 eta 24 urte bitarteko gazteek emantzipatzeko gogo handia dutela, baina asmo hori 25 eta 29 urte bitarteko adinean hasten da zehazten.

Normala den moduan, 16 eta 29 urte bitarteko adinean dauden horien artean, hurrengo hiru urteko epean emantzipatzeko asmo handiagoa adierazten dute lana dutenek, hau da, diru-sarrera propioak dituztenek (% 76,1ek), ikasten ari, eta, ziur asko, gazteago direnek baino (% 47,1).

**5.1 taula**

GURASOEN ETXEAN BIZI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EMANTZIPAZIO-AURREIKUSPENA, AURREKO EMANTZIPAZIO-BIZIPENEN, ADIN-TALDEEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Aurretiko emantzipazio-esperientzia | | Adin-taldeak | | Okupazio nagusia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Bai | Ez | 20-24 urte | 25-29 urte | Ikasten | Lanean | Langabezian |
| Bai | 57,0 | 79,4 | 52,4 | 62,4 | 74,7 | 47,1 | 76,1 | 72,0 |
| Ez | 32,1 | 13,1 | 35,9 | 26,1 | 16,2 | 40,5 | 16,2 | 20,3 |
| Ed/Ee | 11,0 | 7,4 | 11,7 | 11,5 | 9,1 | 12,4 | 7,7 | 7,7 |
| Emantzipatu gabeko gazteak, Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *908* | *169* | *739* | *308* | *297* | *551* | *274* | *58* |

Gurasoekin bizi diren gazteei bakarrik galdetu zaie

5.2 taulan ikusten dugu hilean 1200 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenen artean oso handia dela, % 85,2koa, hurrengo hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa adierazten dutenen proportzioa.

Beste aldagai batzuk aztertuta, ikusten da 16 eta 29 urte bitarteko emakumeek hurrengo hiru urteko epean emantzipatzeko konfiantza handiagoa dutela, adin horretako gizonek baino (% 60,8 eta % 53,7, hurrenez hurren).

Lurralde historikoen egoera aztertuta, berretsi egiten da ikerlan honetan egiaztatu eta azaldu duguna. Gazteek Araban dute emantzipatzeko baldintzak eskuratzeko probabilitate handiena. Bizkaikoen eta Gipuzkoakoen

antzekoak dira enpleguko eta langabeziako tasak eta soldatak, baina aldea dago emantzipatzeko gastuetan, higiezinen merkatua merkeagoa eta etxebizitza babestuen ehunekoa handiagoa delako Araban; faktore horien ondorioz, beren gurasoen etxean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteek ehuneko handian adierazten dute emantzipatzeko asmoa Araban (% 62,2), eta txikiagoa Bizkaian (% 57,0) eta Gipuzkoan. Azken lurralde historiko horrek du etxebizitzen parke garestiena, eta egoera horretan dauden gazteen % 54,6k adierazi du hurrengo urteetan emantzipatzeko asmoa.

**5.2 taula**

GURASOEN ETXEAN BIZI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EMANTZIPAZIO-AURREIKUSPENAK, SEXUAREN, HILEAN ESKURAGARRI DUTEN DIRUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Sexua | | Hileko diru-baliabideak | | Lurralde historikoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumeak | Gizonak | 1200 € baino txikiagoa | 1200 € baino gehiago | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Bai | 57,0 | 60,8 | 53,7 | 54,9 | 85,2 | 62,2 | 57,0 | 54,6 |
| Ez | 32,1 | 29,8 | 34,0 | 34,9 | 8,5 | 26,4 | 32,3 | 34,1 |
| Ed/Ee | 11,0 | 9,4 | 12,3 | 10,2 | 6,3 | 11,4 | 10,7 | 11,2 |
| Emantzipatu gabeko gazteak, Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *908* | *427* | *481* | *758* | *82* | *216* | *378* | *314* |

Gurasoekin bizi diren gazteei bakarrik galdetu zaie

## 5.3. ETXEBIZITZA EROSTEKO EDO ALOKATZEKO LEHENTASUNA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEAN

Hurrengo hiru urteetan emantzipatzeko asmorik duten ala ez aintzat hartu gabe, 2011 eta 2017 urteen bitartean nabarmen handitu da alokairuaren aldeko hautua egiten dutenen ehunekoak. 2011. urtean % 18,0k egiten zuen alokairuaren aldeko hautua, % 43,9 ziren 2013an, % 55,7 izan ziren 2015ean (hori izan da urte-saileko balio altuena) eta % 45,1ek lehenetsi du alokairua 2017an. Berriro ere, jabetza da, 2017. urtean, lehentasunezko emantzipazio-aukera gurasoen etxean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteentzat.

**5.2 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZA EROSTEKO EDO ALOKATZEKO DUTEN LEHENTASUNAREN ARABERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Hala ere, hurrengo hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dutenei begiratuz gero, alokairuak lehentasuna du jabetzarekiko (% 53,4 eta % 40,9, hurrenez hurren).

Egoera horren arrazoia da oraindik emantzipatu ez diren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonek lehentasuna ematen diotela jabetzari, baina, epe motzeko emantzipazio-asmoez galdetuta, alokairuaren aldeko hautua egitearen arrazoia izan daiteke 16 eta 29 urte bitarteko pertsona batzuentzat jabetzarena dela emantzipaziorako bide bakarra.

Aldagai horrek lurralde historikoetan 2015 eta 2017 urteen bitartean izan duen bilakaerak adierazten digu Gipuzkoan jaitsi dela gehien alokairuaren aldeko hautua (2015ean alokairua lehenetsi zuen % 61,2ek, eta % 47,3k lehenetsi du bide hori 2017an). Alokairua lehenesten dutenen ehunekoak behera egin du Bizkaian eta Araban ere, baina Gipuzkoan baino gutxiago.

Joera horren harian, etxebizitza erostea lehenesten dutenen ehunekoak asko egin du gora Araban eta Bizkaian, baina igoera oso apala izan da Gipuzkoan.

**5.3 taula**

GURASOEN ETXEAN BIZI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO PERTSONEK EMANTZIPATZEKO LEHENESTEN DUTEN BIDEAREN BILAKAERA (ALOKAIRUA ALA JABETZA), LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

| | (%) | 2011 | 2013 | 2015 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskadi | Alokatuko lukete | 18,0 | 43,9 | 55,7 | 45,1 |
| | Erosiko lukete | 77,1 | 51,0 | 37,7 | 46,8 |
| Araba | Alokatuko lukete | 23,6 | 39,7 | 56,8 | 50,0 |
| | Erosiko lukete | 73,8 | 55,6 | 32,5 | 44,2 |
| Bizkaia | Alokatuko lukete | 17,8 | 40,6 | 52,3 | 42,3 |
| | Erosiko lukete | 76,9 | 54,3 | 41,1 | 53,7 |
| Gipuzkoa | Alokatuko lukete | 15,9 | 52,4 | 61,2 | 47,3 |
| | Erosiko lukete | 78,8 | 42,4 | 34,2 | 37,1 |

Gurasoekin bizi diren gazteei bakarrik galdetu zaie
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Oraindik gurasoen etxean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonek alokairuaren emantzipazio-bidea lehenetsi izanaren arrazoi nagusia da alokatutako etxebizitzek bizilekuz aldatzeko aukera eta askatasun handiagoak dakarzkiela (arrazoi hori eman du % 36,1ek). Ehuneko horretatik oso gertu dago bigarren arrazoia, hau da, alokairua bitarteko konponbide bat dela, harik eta etxebizitza baten jabetza eskuratzeko behar diren diru-sarrerak edo diru-sarrera egonkorrak izan arte (% 34,4).

Hipoteka-mailegu baten konpromisorik ez duela izan nahi adierazi du % 26,3k.

**5.3 grafikoa**

ALOKAIRUA LEHENESTEKO ARRAZOIAK 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEAN (%)



Alokairuko etxebizitzek bizilekuz aldatzeko aukera eta askatasun handiagoak dakartzatela diotenen ehunekoak soilik izan du bilakaera konstantea, eta positiboa, 2011 eta 2017 urteen bitartean. 2011. urtean, arrazoi hori eman zuten gurasoen etxean bizi ziren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 17,9k, alokairuaren bidea lehenesten baitzuten etxetik emantzipatzeko.

Hipoteka-mailegu baten zamarik nahi ez zutenena zen ehuneko handiena 2011 eta 2015 urteen bitartean, baina hirugarren arrazoia izan da 2017an.

Azkenik, nabarmendu behar da 2013 eta 2015 urteen bitartean nabarmen jaitsi zela alokairua etxebizitza erosi bitarteko irtenbidea zitzaiela zeritzotenen ehunekoak, baina gora egin duela 2017an, harik eta bigarren emaitza nagusia izan arte (% 34,4).

**5.4 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEK ALOKAIRUA LEHENESTEKO DITUZTEN ARRAZOIEN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 5.4. GURASOEN ETXEKO GASTUAK ORDAINTZEKO EKARPENA

Gurasoen etxean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, hau da, emantzipatu gabeko gazteen artean, gutxiengoa da etxeko gastuak ordaintzeko ekarpen erregular bat egiten dutenen ehunekoa (% 10,3). Noizean behin ekarpenen bat egiten duela esan du % 21,5ek (premia jakinen bat dagoenean akaso), eta inoiz ere ez duela ekarpenik egiten adierazi du gainerako % 68,2ak. Ez dakigu ekarpena egiten dutenek behartuta ala lagundu nahi dutelako egiten duten ekarpen hori.

Pistaren bat aurki dezakegu pertsona horien okupazio nagusiari eta horren ondoriozko egoerari begiratzen baldin badiogu. Ikasten ari direnen % 1,9k soilik egiten du ekarpen erregular bat (pentsatzekoa da pertsona horiek ez dutela diru-sarrera handirik izango). Pertsona horien % 16,1ek noizean behin egiten du ekarpenen bat, eta ez du inoiz ere ekarpenik egiten gainerako % 82,0ak. Lanean ari diren pertsonei begiratuz gero, % 35,4k soilik ez du inoiz ere egiten diru-ekarpenik gurasoen etxean. Okupazio hori dutenen % 33,7k ekarpenen bat egiten du noizean behin, eta % 30,9k egiten ditu ekarpen erregularrak. Aurreko bi talde horien artean kokatzen dira langabezian dauden gazteak, hau da, langabezian dauden 10 gaztetatik 3k egiten du ekarpenen bat gurasoen etxeko gastuak ordaintzeko (ekarpen erregularrak egiten ditu % 4,5ek, eta noizean behingoak % 26,0k).

**5.5 grafikoa**

GURASOEN ETXEKO GASTUAK ORDAINTZEKO EKARPENAK EGITEN DITUZTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)




Gurasoen etxean bizi eta etxean diru-ekarpen erregularrak egiten dituzten gazteen ehunekoak behera egin du 2011 eta 2017 urteen bitartean: % 20,8koa izan zen 2011. urtean, % 16,7koa 2013an, % 14,1ekoa 2015ean, eta, azkenik, % 10,3koa izan da 2017an.

Ez dakigu, zehatz-mehatz, zergatik gertatu den jaitsiera hori. Akaso, adierazle ekonomikoak hobetu direnenez, etxeetan ez dago hainbesteko laguntza-premiarik (pertsona gutxiagoren ekarpenarekin molda daitezke), edo gerta daiteke gurasoen etxean bizi arren, 30 urtetik beherako gazteek emantzipatzeko dirua pilatu nahi izatea, eta gazte horien soldatek etxean ekarpenen bat egiteko tarterik ez uztea.

**5.6 grafikoa**

GURASOEN ETXEAN BIZI ETA ETXE HORRETAN DIRU-EKARPEN ERREGULARRAK EGITEN DITUZTEN GAZTEEN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 5.5. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATU GABEEN EGOERA

Ikerlan honetan ikusten ari gara 30 urteko adinetik aurrera handitzen dela Euskadin gurasoengandik emantzipatzeko probabilitatea. Euskadin, gurasoengandik emantzipatuta bizi dira 30 eta 34 urte bitartean dituzten 4 pertsonatik 3 baino gehiago (% 76,1). Gaur egun gurasoekin bizi arren, noizbait emantzipatuta bizi izan da % 6,8. Azkenik, ez da inoiz ere emantzipatuta bizi izan Euskadin 30 eta 34 urte bitartean dituztenen % 17,1. Azken bi talde edo kolektibo horiek aztertuko ditugu orain.

Lehenik eta behin, kolektibo horren ezaugarriak zehaztu behar ditugu: oraindik emantzipatu ez diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsona gehienak gizonezkoak dira, Euskadin jaioak, eta beren okupazio nagusia lan egitea den arren, hilean 1200 euro baino gutxiago irabazten dute eta tamaina ertaineko udalerrietan bizi dira.

Gazte horientzat, emantzipatzeko oztopoak dira aldi baterako lanak, soldata apalak eta aurreikuspen ziurrik ez izatea; izan ere, berme eta ziurtasun gutxirekin egin behar diote aurre berez ziurtasun handirik gabea den egoera bati (familiaren etxetik irteteari).

**5.7 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN BANAKETA, EMANTZIPAZIOAREKIKO EGOERAREN ARABERA (%)




Emantzipatuta bizi nahi du adin hori izan eta gurasoekin bizi diren pertsonen % 86,2k, baina txikiagoa da hiru urteko epean emantzipatzea aurreikusten dutenen proportzioak: % 67,9koa. Bere etxebizitza propioa erosi nahi du oraindik gurasoekin bizi diren pertsona horien gehiengoak (% 60,2k).

2011 eta 2015 urteen bitartean, alokairuaren aldeko hautua edo lehentasuna nabarmen handitu zen 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean: % 16,4k lehenesten zuen bide hori 2011. urtean, % 39,2k 2013an, eta % 47,0k 2015ean. Egoera hori, ordea, erabat irauli da 2017. urtean, eta alokairuaren aldeko hautua edo lehentasuna nabarmen jaitsi da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, % 29,4k lehenetsi baitu bide hori.

Bost pertsonatik batek (% 20,8k) esaten du alokairua aldi baterako irtenbidea litzatekeela, harik eta erosteko aukera izan arte.

Datu horiek erakusten digute lan-egoera egonkortu eta soldatak igo ahala, handitu egiten dela etxebizitzaren jabetzaren aldeko hautua egiten dutenen proportzioa. Alokairu-prezioen igoerak ere joera horren alde egiten du, noski.

**5.8 grafikoa**

ETXEBIZITZA EROSTEKO EDO ALOKATZEKO LEHENTASUNAREN BILAKAERA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATU GABEEN ARTEAN (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

Gurasoen etxean diru-ekarpen erregularrak egiten dituztenen ehunekoak konparatzen baldin baditugu 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen artean, alde handiak ikusiko ditugu. 16 eta 29 urte bitartean dituztenen % 10,3k egiten ditu etxean diru-ekarpen erregularrak, eta proportzioa % 30,7ra igotzen da 30 eta 34 urte bitartean dituztenen artean. Alde horren arrazoiak dira 30 eta 34 urte bitartekoek okupazio-tasa handiagoak eta soldata hobeak dituztela.

Hala ere, etxean diru-ekarpenak egiten dituztenen ehunekoak behera egin du azken urteetan adin-bitarte horretako pertsonen taldean ere: % 45,4k egiten zituen ekarpenak 2011. urtean, % 30,6k 2015ean, eta % 30,7k, azkenik, 2017. urtean.

**5.9 grafikoa**

16 ETA 29 URTE ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEAN IZAN ETA ETXEAN DIRU-EKARPEN ERREGULARRAK EGITEN DITUZTEN PERTSONA EMANTZIPATU GABEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 5.6. KAPITULUAREN LABURPENA

Euskadin 16 eta 29 urte bitartean dituzten pertsonen % 65,3 gurasoekin bizi da, eta ez da inoiz ere emantzipatu.

Noizbait emantzipatuta bizi izan da % 12,1. Ikasketak amaitu ondoren bueltatu zen horien gehiengoa gurasoen etxera, goi-mailako ikasketak jaiolekutik urrun egin ondoren; beraz, nekez esan daiteke pertsona horien emantzipazioa laneratu ondorengoa izan denik.

Gurasoen etxean bizi diren gazteen erdiak baino gehiagok esaten du, ordea, hiru urteko epean emantzipatu nahi duela, baldin eta horretarako aukera baldin badu.

2011 eta 2015 urteen bitartean, gora egin zuen alokairua lehenesten zuten pertsona emantzipatu gabeen ehunekoak, baina joera hori irauli egin da 2017. urtean, eta, gaur egun, handiagoa da jabetza-erregimeneko etxebizitza batean emantzipatu nahi duten pertsonen ehunekoa, alokairu-erregimenean emantzipatu nahi dutenena baino. Gazteek gurasoen etxean bizitzen egiten duten denbora luzatzea izan daiteke emantzipatzeko jabetza lehenestearen ondorio bat; izan ere, kontratatzen diren hipoteka gehienen hileko kuota alokairu-errentena baino txikiagoa den arren, egonkortasun ekonomiko handiagoa behar da etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko.

Oraindik gurasoekin bizi diren gazte gutxik (% 10,3k) laguntzen du familia-gastuak ordaintzen, baina lanean ari direnek gehiago laguntzen dute (% 30,9). Edonola ere, etxean diru-ekarpen bat egiten duten gazteen ehunekoak behera egin du 2011. urteaz geroztik.

30 eta 34 urte bitarte dituzten pertsonen artean, gutxiengoa bizi da oraindik gurasoekin. Euskadin, adin-bitarte horretako pertsonen % 17,1 bizi da oraindik gurasoen etxean eta ez da inoiz ere emantzipatu; bestalde, adin-bitarte horretako pertsonen % 6,8 noizbait emantzipatu da, baina gurasoen etxera bueltatu da. Emantzipatzeko asmoa du

pertsona horien gehiengoak, eta hiru urteko epean emantzipatzea aurreikusten du. Adin-talde horretako pertsonek gazteagoek baino ehuneko handiagoan lehenesten dute etxebizitza erostea.

Azkenik, 30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldekoek 30 urtetik beherakoek baino ehuneko handiagoan egiten dute ekarpen ekonomiko bat familiaren gastuak ordaintzeko, okupazio-tasa eta soldata handiagoak dituztelako, baina gehiengoak ez du diru-ekarpenik egiten.

# 6

# Emantzipatzeko zailtasunak eta baliabideak

Euskadiko gazteek emantzipatzeko zer zailtasun dituzten aztertuko dugu kapitulu honetan, eta ikusiko dugu zailtasun horiek zer eragin duten beren emantzipazio-asmoetan.

Administrazio publikoek ematen dituzten emantzipatzeko baliabideak ikertzeko, etxebizitza-zerbitzu publikoetan izena emanda dauden pertsonak eta etxebizitza horien onuradun diren gazteen kopuruak aztertuko ditugu.

Bereizi egingo ditugu emantzipatuta dauden pertsonak eta, gurasoekin bizi arren, emantzipatzeko gogoa duten pertsonak.

## 6.1. EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK

Euskadin bizi diren gazteek adinean gora emantzipatzeko dituzten arrazoi batzuk azaldu ditugu aurreko kapituluetan.

Soldata apalak dira, kontratuak aldi baterakoak eta etxebizitzen salneurriak garestiak; horren ondorioz,16 eta 29 urte bitarteko pertsonei zaila eta garestia zaie etxebizitza bat eskuratzea.

Gazteek, emantzipatutakoek eta emantzipatu gabeek, emantzipazio-prozesuaren zailtasun hauen gainean zer iritzi duten aztertuko dugu orain: etxebizitzak erosteko edo alokatzeko kostu garestia, diru-sarreren iturri propioak izateko zailtasunak, banku-kredituak eskuratzeko zailtasuna, familiaren aurkako jarrera eta norberak familiarekin bizitzen duen erosotasunari uko egin nahi ez izatea.

### 6.1.1. Etxebizitza garestia, erosi zein alokatzeko

Euskadiko etxebizitza libreak, *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016* azterlanaren arabera, ez dira eskuragarriak 35 urtetik beherako gazteentzat. Soldatapeko gazteek batez beste irabazten duten soldata eta

etxebizitzen salneurria aintzat hartuta, gazte horiek, bakarrik emantzipatu nahi baldin badute, beren soldataren erdia baino gehiago erabili behar dute hipoteka edo alokairua ordaintzeko[12].

**6.1 taula**

ETXEBIZITZA LIBRE BERRIEN SALNEURRIAREN, ETXEBIZITZA BERRI BABESTUEN PREZIOEN ETA ETXEBIZITZA LIBREEN ALOKAIRUKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN ARTEKO ALDEAK 2017AN, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (€)

| (€) | Lurralde historikoa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Etxebizitza berri librearen batez besteko salmenta prezioa | 258.700 | 215.200 | 261.700 | 264.700 |
| Etxebizitza babestuen edo sozialen batez besteko salmenta prezioa | 132.700 | 133.400 | 130.400 | 134.500 |
| Etxebizitza libreen batez besteko alokairu errenta | 944 | 710 | 956 | 1028 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. *2017ko Higiezinen Eskaintzaren Inkesta (HEI)*

Egoera orokor hori ikusita, ez da harritzekoa emantzipatzea lortu duten gazteek etxebizitza erosteko eta alokatzeko zailtasunak nabarmentzea (zailtasun horiek nabarmendu ditu % 62,7k). Emakume emantzipatuek ehuneko handiagoan nabarmentzen dute zailtasun hori, gizonek baino (emakumeen % 65,7k eta gizonen % 59,3k), emakumeen batez besteko soldatak gizonenak baino txikiagoak direlako eta horrek kostu handiagoa dakarkielako.

Ikusi dugu Arabak dituela etxebizitza-prezio merkeenak; hala ere, lurralde historiko horretako gazteek Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteek baino ehuneko handiagoan adierazi dute etxebizitzaren salneurri garestia zailtasun izan dutela emantzipatzeko bidean.

**6.1 grafikoa**

ETXEBIZITZAREN PREZIO GARESTIA HURA EROSTEKO EDO ALOKATZEKO ZAILTASUN IZAN DUTELA ADIERAZTEN DUTEN 30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUAK, SEXUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)




[12] Lopez Oller, J. (2017): *ob. cit.*

Etxebizitzaren prezio garestia emantzipatzeko arazoa dela uste dutenen ehunekoaren bilakaera beheranzkoa izan da 2011 eta 2017 urteen bitartean, % 74,3tik % 62,7ra jaitsi baita pertsona emantzipatuen artean. Urte-bitarte horretan, behera egin du etxebizitzen salmenta-prezioak (alokairu-errenten prezioak, ordea, garestitu egin dira).

Gurasoen etxean bizi baina emantzipatzeko asmoa duten pertsonek ehuneko nabarmen handiagoan adierazten dute prezioak dakarkien zailtasuna, baina pertsona horien iritzi-ehunekoak ere behera egin du 2011 eta 2017 urteen bitartean. 2011. urtean, % 89,9rentzat, hau da, 10 pertsonatik 9rentzat zen zailtasuna etxebizitzaren prezioa, eta proportzioa % 68,4ra jaitsi da 2017an.

**6.2 grafikoa**

ETXEBIZITZEN PREZIO GARESTIAK EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNA DAKARRELA DIOEN IRITZIAREN BILAKAERA. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETA EMANTZIPATU NAHI DUTEN GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 6.1.2. Diru-iturri propioak izateko zailtasunak

Lanpostu egonkorra eta ondo ordaindutakoa izatea da gurasoen etxetik emantzipatzeko lehen urratsa.

16 eta 29 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 51,5ek adierazi du diru-sarrera propioak izateko zailtasuna izan dela emantzipatzeko izan duen oztopoetako bat. Antzekoak dira zailtasun horren berri eman duten emakumeen eta gizonen ehunekoak (% 50,0k eta % 52,8k hurrenez hurren), eta ez da alde handirik ikusten lurralde historikoaren arabera (zailtasun hori adierazi dute Arabako gazte emantzipatuen % 42,8k, Bizkaikoen % 40,2k eta Gipuzkoakoen % 42,3k).

## 6.3 grafikoa

DIRU-ITURRI PROPIOAK IZATEKO ZAILTASUNA EMANTZIPATZEKO ZAILTASUN IZAN DUTELA ADIERAZTEN DUTEN 30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUAK, SEXUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)




Alde handiagoak ikusten dira, ordea, norberaren egoera ekonomikoari dagozkion beste faktore batzuk aintzat hartuz gero. Euskadin jaio diren 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen % 41,2k adierazi du diru-iturri propio bat eskuratzea, hau da, enplegu bat eskuratzea traba izan dutela emantzipatzeko bidean. Proportzio hori % 69,9koa da atzerrian jaio direnen artean; izan ere, aurreko kapituluetan ikusi dugun moduan, enplegu-ehuneko txikiagoak dituzte, soldata apalagoak irabazten dituzte eta, oro har, lan-prekaritate handiagoa bizi dute.

Elkarrizketatuen gizarte-maila subjektiboak ere alde handiak dakartza. Gizarte-maila ertainekoak edo ertain-altukoak direla esaten dutenen % 45,4k adierazi du diru-iturri propioa izatea zailtasun izan duela emantzipatzeko bidean. Ehuneko hori, ostera, % 65,4koa da gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla esaten dutenen artean.

## 6.4 grafikoa

DIRU-ITURRI PROPIOAK IZATEKO ZAILTASUNA EMANTZIPATZEKO ZAILTASUN IZAN DUTELA ADIERAZTEN DUTEN 30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUAK, JAIOLEKUAREN ETA GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)



Aldeak ikusten dira, era berean, diru-iturri propio bat ez izatea emantzipatzeko zailtasun izan dutela adierazten duten gazte emantzipatuen eta gazte emantzipatu gabeen artean. Alde horiek, gainera, ikerlan honen lau edizioetan egiaztatu dira.

Diru-iturri propioak izateko zailtasuna emantzipatzeko zailtasun dela adierazten dutenen ehunekoa txikiagoa da emantzipatuta bizi diren gazteen artean, oraindik emantzipatu ez baina emantzipatzeko asmoa duten gazteen artean baino; hau da, gurasoekin bizi baina emantzipatu nahi duten gazteek ehuneko handiagoan adierazi dute arrazoi hori emantzipatzeko zailtasun zaiela, emantzipatzeko zailtasun hori gainditu behar izan dutela adierazi duten gazteen artean baino.

Kontuz irakurri behar da konparazioa hori, oroimenaren galbahetik pasatakoa baita emantzipatutako gazteen iritzia; hau da, gaur egun lanik ez duten gazte emantzipatu gabeek une honetan bizi dute zailtasun hori, eta emantzipatzea lortu duten gazteek, berriz, gero eta “urrunagoa” antzematen dute zailtasun hori.

Edonola ere, gazteen bi talde horietan egin du behera, 2011. urtearekiko, zailtasun hori nabarmendu dutenen ehunekoak.

**6.5 grafikoa**

DIRU-ITURRI BAT IZATEA EMANTZIPATZEKO ZAILTASUN DUTELA ADIERAZI DUTENEN BILAKAERA. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETA EMANTZIPATU NAHI DUTEN GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 6.1.3. Banku-kredituak lortzeko zailtasuna

16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 41,4k adierazten du emantzipatzeko garaian banku-kreditu bat lortzeko zailtasunak izan dituela.

Hauek dira, emantzipatuta dauden gazteen artean, banku-kreditua lortzeko zailtasunak gehien nabarmendu dituzten kolektiboak: emakumeak (emakumeen % 42,9k esaten du arazo hori izan duela emantzipatzeko garaian),

gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla esaten duten pertsonak (% 60,0) eta atzerrian jaiotako pertsonak (% 51,2). Berriro ikusten da, aldagai honetan, baliabide pertsonal eta familiar gutxien dutenek zailtasun handiagoak izaten dituztela.

**6.6 grafikoa**

BANKU-KREDITU BAT LORTZEKO ZAILTASUNA EMANTZIPATZEKO ZAILTASUN IZAN ZAIELA ADIERAZTEN DUTEN 30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUAK, SEXUAREN, GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)




Alokairuan bizi diren pertsonek ere hipoteka bat kontratatu zuten pertsonek baino ehuneko handiagoan adierazi dute arazo hori izan dutela (alokairuan bizi direnen % 45,7k eta hipoteka dutenen % 32,7k). Datu horrek esaten digu alokairuan bizi direnen ia erdia saiatu dela kreditu bat lortzen eta, beren egungo egoerari begiratuta, ez duela lortu.

Banku-kreditua lortzearen zailtasuna aipatu du gurasoen etxean bizi baina emantzipatzeko asmoa adierazten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 48,5ek.

Arazo horren berri ematen duten gazteen ehunekoak behera egin du 2013. urteaz geroztik, bai emantzipatutako gazteen artean, bai gurasoen etxean bizi baina emantzipatu nahi dutenen artean. 2013. urtean, emantzipatu gabeko gazteen % 72,2k adierazi zuen banku-kreditu bat lortzeko zailtasunak emantzipatzeko zailtasun izan zituela, eta 2017. urtean, berriz, gazte horien % 48,5ek aipatu du zailtasun hori; ondorioz, badirudi bankuek ezarritako baldintzak malguagoak direla gaur egun. Gogoratu behar da Euskadin 2009an abiatu zen krisialdiaren urterik okerrenetako bat izan zela 2013. urtea.

Bilakaera beheranzkoa da emantzipatutako gazteen artean ere. Emantzipatutako gazteen % 63,1ek adierazi zuen orduan arazo hori zailtasun izan zitzaiola, eta zailtasun horren berri eman dutenen ehunekoa % 41,4ra jaitsi da 2017an.

**6.7 grafikoa**

BANKU-KREDITU BAT LORTZEKO ZAILTASUNA EMANTZIPATZEKO ZAILTASUN DUTELA ADIERAZI DUTENEN BILAKAERA. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETA EMANTZIPATU NAHI DUTEN GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 6.1.4. Familiaren aurkako jarrera

Familiak emantzipazioaren aurkako jarrera izatea gazteen batez besteko emantzipazio-adinean eragiten duen faktore kulturala dela esan dezakegu, baina ez Euskadin soilik, eragina baitu Espainian eta Europa hegoaldeko herrialdeetan ere. Familiaren batasuna eta gurasoen babesa da familiaren etxetik irteteko denbora luzea behar duten gazteek emantzipazio berantiarra azaltzeko ematen duten arrazoietako bat.

### Baina, zenbat gaztek uste du familiaren aurkako jarrera emantzipatzeko oztopoa izan zaiela edo oztopo izaten ari zaiela?

Emantzipatutako gazteei erreparatuta, % 5,6k esaten du familiaren aurkako jarrera emantzipatzeko oztopo izan zaiola; aitzitik, gurasoen etxean bizi baina emantzipatzeko asmoa duten gazteen % 11,3k esaten du familiaren aurkako jarrera galgarri zaiola emantzipatzeko asmoa betetzeko. Ez dakigu aurkako jarrera horrek zer-nolako indarra duen eta zer ondorio dakartzan.

Oro har, ehunekoak oso txikiak dira, eta ez da alde handirik ikusten batetik bestera. Ondorio moduan, esan dezakegu, inkestari eman zaion erantzunari begiratuta bederen, gazteek ez dutela pentsatzen familiaren aurkako jarrera emantzipatzeko oztopo zaienik, emantzipatzeko erabakia hartzen duten garaian.

Aldagai horren bilakaerak ere ez du datu aipagarririk erakusten. Emantzipatutako gazteen iritziek eta oraindik gurasoen etxean bizi diren gazteen iritziek ez dute aldaketa handirik izan 2011 eta 2017 urteen bitartean.

**6.8 grafikoa**

FAMILIAREN AURKAKO JARRERAK EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNA DAKARRELA DIOEN IRITZIAREN BILAKAERA. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETA EMANTZIPATU NAHI DUTEN GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 6.1.5. Familiarekin bizitzeak dakarren erosotasunari uko egin nahi ez izatea

Gazteek emantzipatzeko gogo handirik ez dutela esaten dutenek maiz adierazten dute gazteek ez dutela familiarekin bizitzeak dakarkien erosotasunari uko egin nahi.

Hori esaten den arren, 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 7,5ek soilik esaten du familiarekin bizitzean zuten erosotasunari uko egitea emantzipatzeko eragozpen izan dutela. Proportzioa nabarmen handiagoa da gurasoen etxean bizi baina emantzipatzeko asmoa dutenen artean, % 20,2koa baita.

2013 eta 2017 urteen bitartean zertxobait handitu da hasiera batean emantzipatzeko asmoa adierazi, baina gurasoen etxean bizitzeak dakarkien erosotasuna emantzipatzeko traba izan dutela uste duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen ehunekoak; zehazki, % 17,7tik % 20,2ra igo da ehuneko hori.

**6.9 grafikoa**

FAMILIAREKIN BIZITZEN DUTEN EROSOTASUNARI UKO EGIN NAHI EZ IZATEA EMANTZIPATZEKO ZAILTASUN ZAIELA IRIZTEN DIOTENEN BILAKAERA. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETA EMANTZIPATU NAHI DUTEN GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma)

## 6.2. ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKOETAN IZENA EMANDAKOAK

Emantzipatutako gazteen % 61,4k ez du inoiz ere etxebizitza-zerbitzu publikoen baliabiderik erabili emantzipazio-bidea errazteko. Gazteek emantzipatzeko zer zailtasun dituzten ikusita, baliabide horiek ez erabiltzeko zer arrazoi dauden aztertzea komeni da; izan ere, posible da baliabide horiek erabiltzeko interesik ez izatea, baliabide horiek daudenik ez jakitea edo etxebizitza publikoak eskuratzeko baldintzak ez betetzea.

16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 19,2 izena emanda dago zerbitzu horietan eta zozketak egin zain dago.

16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 10,1ek ezabatu egin zuen inskripzioa, ez zitzaiolako etxebizitza egokitu edo ez zuelako etxebizitza bat eskuratzeko aukerarik ikusten.

Babes ofizialeko etxebizitza bat (BOE) jabetza-erregimenean edo alokairu sozialean eskuratu zuen % 7,5ek, eta etxebizitza horretan bizi da gaur egun.

### 6.10 grafikoa

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA EMANTZIPATU GABEEN BANAKETA, ETXEBIZITZA SOZIAL BAT EDO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA BAT JABETZAN EDO ALOKAIRUAN ESKURATZEKO ASMOA DUTEN ETA ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKO BATEAN IZENA EMANDA DAUDEN ALA EZ AINTZAT HARTUTA (%)




Aurreko grafikoan ikusten dugun moduan, alde handiak daude emantzipatutako gazteen eta gazte emantzipatu gabeen artean. Oraindik emantzipatu ez diren gazte horien artean, 10 pertsonatik 9k (% 91,4k, zehazki) ez du inoiz ere izenik eman Etxebide zerbitzuan. Gainerako ehunekoak oso txikiak dira, noski. Oso adierazgarria da ikustea oso handia dela, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun handiena duten pertsonen artean, etxebizitza sustatzen duen erakunde nagusiarekin inolako loturarik ez dutenen ehunekoa.

Oro har, 16 eta 29 urte bitartean dituzten pertsonen % 84,5ek ez du inoiz ere harremanik izan Etxebide zerbitzuarekin. Bere garaian izena eman zuen % 3,3k, baina inskripzioa ezabatu zuen etxebizitzarik lortu gabe; izena emanda eta zozketen emaitzen zain dago gaur egun % 7,7; eta etxebizitza publiko baten esleipendun izan ondoren, hari uko egin behar izan zion % 0,3k, ezin izan ziolako gastuari aurre egin edo ezin izan zuelako banku-kreditu bat lortu. Eta, azkenik, etxebizitza publiko bat eskuratu du % 2,1ek. Ehuneko hori % 3,3koa izan zen 2013an (etxebizitza publikoen sustapenak gora egin zuen 2011 eta 2013 urteen bitartean), eta % 1,1ekoa 2015ean. Bi ehuneko horien bitarteko datuak izan ditugu urte hauetan guztietan. Arabako gazteek izan dituzte etxebizitza publikoen eskurapen-ehuneko handienak. Diru-sarrera edo errenta apalak dituzten pertsonek ehuneko handiagoan eskuratu dute etxebizitza publikoren bat, baina egia da, era berean, etxebizitza-zerbitzu publikoetan izena emandakoen ehunekoa handiagoa dela errenta-maila hori dutenen artean.

**6.2 taula**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN BANAKETA, ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKOETAN IZENA EMANDA DAUDEN AINTZAT HARTUTA, ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ETA GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

| (%) | Guztira | Lurralde historikoa | | | Gizarte-klase subjektiboa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Erdi maila + ertain altua | Behe maila + ertain baxua |
| Bai eta etxebizitza publikoa eskuratu zuen (jabetzan edo alokairuan) | 2,1 | 4,3 | 1,3 | 2,2 | 1,7 | 2,8 |
| Etxebizitza publikoa esleitu zioten, baina uko egin behar izan zion ezin ziolako gastuari aurre egin edo ez ziotelako banku-kreditua eman | 0,3 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,2 | 0,4 |
| Izena eman zuen eta zozketaren zain dago | 7,7 | 5,8 | 7,7 | 8,5 | 6,7 | 10,5 |
| Izena emanda zegoen baina borratu egin zen etxebizitza publikorik lortu gabe | 3,3 | 2,1 | 2,9 | 4,4 | 2,9 | 4,7 |
| Ez dute inoiz izena eman | 84,5 | 86,3 | 86,8 | 80,3 | 86,8 | 78,6 |
| Ed/Ee | 2,1 | 1,5 | 0,8 | 4,3 | 1,7 | 3,0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *1319* | *331* | *521* | *467* | *953* | *341* |

Etxebizitza-zerbitzuetan inoiz ere inskribatu gabeko pertsonek izenik ez emateko eman duten arrazoi nagusia da ez dutela aukera hori inoiz ere aintzat hartu (% 65,1ek eman du arrazoi hori). Interesik ez duela adierazi du % 13,0k. Hori da emantzipatutako gazteek eman duten arrazoi nagusia. Inskribatu gabeko gazteen % 7,8k esan du ez duela izenik eman ez dituelako gutxieneko diru-eskakizunak betetzen. Bestalde, gehienez baimendutako diru-sarrerak gainditzen dituela adierazi du % 0,6k. Gainerakoek bestelako erantzun bat eman dute edo ez dute erantzunik eman.

## 6.3. EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN

Gazte emantzipatuek baino ehuneko txikiagoan adierazten dute 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuek zailtasunak izan dituztela emantzipatzeko, baina zailtasun horiek beste hurrenkera batean sailkatzen dituzte. Etxebizitzen prezioa garestia izateak dakarren zailtasuna da 16 eta 29 urte bitarteko gazteek adierazi duten zailtasun nagusia, eta pertzepzio hori zertxobait txikiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean (% 56,2k adierazi du zailtasun hori). Arrazoi horren ondoren, diru-iturri propio bat izateko zailtasunaren arrazoia dator (30 eta 34 urte bitartean dituztenen % 44,3k eman du arrazoi hori); banku-kreditu bat lortzeko zailtasunaren arrazoia ia proportzio berean adierazi dute 16 eta 34 urte bitarteko pertsona guztiek; eta familiaren aurkako jarrera eta gurasoen etxean bizitzeak dakarren erosotasunari uko egin nahi ez izatearen arrazoiek oso ehuneko txikiak dituzte aztertutako adin-talde guztietan.

**6.11 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN EMANTZIPAZIO-ZAILTASUNAK (%)




30 eta 34 urte bitarteko gazteek etxebizitza-zerbitzuekin izan duten harremanari begiratuta, alde nabarmenak ikusten dira 16 eta 29 urte bitarteko gazteekiko. Ez du inoiz ere izenik eman % 43,6k; izena eman ondoren, inskripzioa ezabatu du % 18,4k, etxebizitzarik ez zaiolako egokitu; eta % 15,3 izena emanda dago eta zozketaren baten emaitzaren zain dago gaur egun. Babes ofizialeko edo alokairu sozialeko etxebizitza bat egokitu zitzaion % 3,1i, baina uko egin behar izan dio ezin izan diolako gastuari aurre egin edo ez duelako banku-krediturik lortu; eta, azkenik, babes ofizialeko etxebizitza baten jabetza edo alokairu soziala eskuratu du % 16,9k.

**6.12 grafikoa**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN BANAKETAREN KONPARAZIOA, ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKOEKIN DUTEN HARREMANAREN ARABERA (%)




30 eta 34 urte bitarteko pertsona guztiak aintzat hartuz gero, ikusten dugu % 14,1ek eskuratu duela etxebizitza publiko bat.

Etxebizitza-zerbitzu publikoetan inoiz ere izenik eman ez duten pertsonek arrazoi asko eman dituzte egoera hori azaltzeko, baina nabarmentzeko datua da 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 62,4k ez duela inoiz ere aukera hori aintzat hartu. Arrazoi hori ehuneko handiagoan aipatzen dute 30 urtetik beherakoek (% 65,1ek), 30 eta 34 urte

bitartean dituztenek baino (% 51,1). Bestalde, 30 eta 34 urte bitartekoek ehuneko handiagoan adierazten dute ez dutela izena emateko interesik (adin-bitarteko horretan daudenen % 19,0k eman du arrazoi hori, eta 30 urtetik beherakoen % 13,0k eman du arrazoi hori bera).

Ehuneko txikiagoak dituzte gainerako arrazoiek, hau da, gutxieneko diru-eskakizunak ez betetzeak edo araututakoak baino diru-sarrera handiagoak eskuratzeak.

**6.3 taula**

ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKOETAN INOIZ ERE IZENIK EMAN EZ IZANAREN ARRAZOIAK 16 ETA 29 ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN (%)

| (%) | Guztira | Adin-taldeak | |
|---|---|---|---|
| | | 16-29 urte | 30-34 urte |
| Ez duzulako inoiz pentsatu | 62,4 | 65,1 | 51,1 |
| Ez zaizulako interesatzen | 13,8 | 13,0 | 19,0 |
| Ez zarelako heltzen eskatzen duten diru-sarrera minimoetara | 7,4 | 7,8 | 7,1 |
| Ezarritako diru-sarrera maximoetatik gora zaudelako | 0,9 | 0,6 | 2,4 |
| Beste arrazoi bat | 12,8 | 10,9 | 18,3 |
| Ed/Ee | 2,6 | 2,6 | 2,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| *(n)* | *1460* | *1088* | *292* |

## 6.4. KAPITULUAREN LABURPENA

Hauek dira, gazteen esanetan, emantzipatzeko zailtasun handienak: etxebizitza bat erostea edo alokatzea garestia izatea, diru-iturri propio, egonkor eta nahikoa izateko zailtasuna, eta banku-kredituak lortzeko zailtasuna.

Familiak emantzipazioaren aurkako jarrera izatearen arrazoiak ez du pisu handirik, eta familiarekin bizitzeak dakarren erosotasunari uko egin nahi ez izateak emantzipatzeko zailtasunak ekarri dizkiola adierazi du bost pertsona emantzipatu gabeetatik batek (dauden egoeran emantzipatzeak pobrezia-arriskua dakarkielako).

Edonola ere, etxebizitzen prezio garestia da Euskadin emantzipatu nahi duten gazteek gainditu behar duten zailtasun nagusia. Diru-iturri egokia eta egonkorra izan behar da etxebizitza baten hileko gastuei aurre egiteko. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen gehiengoak ez ditu baldintza horiek betetzen.

Etxebizitza libre berrien edo erabilien batez besteko salmenta-prezioa 238.900 eurokoa da Euskadin 2017an. Etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errenta 944 eurokoa da.

Etxebizitzen prezio garestiaren arrazoia nabarmentzen duten pertsonen ehunekoak, ordea, behera egin du 2011 eta 2017 urteen bitartean, eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 62,7koa da gaur egun.

Diru-iturri propiorik ez izateak emantzipatzeko zailtasunak ekarri dizkiola adierazi du % 51,5ek. Ehunekoa nabarmen handiagoa da ikerlan honetan zehar egoera bereziki kalteberan ageri den kolektibo batean, atzerrian jaiotako gazteen kolektiboan. Atzerrian jaiotako pertsonen % 69,9rentzat izan da zailtasun bat diru-iturri propio bat izatea.

Banku-kreditu bat lortzea emantzipatzeko zailtasuna izan da Euskadiko gazteen % 41,4rentzat. Gizarte-maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla esaten dutenen artean, zailtasun hori izan dutenen ehunekoa % 60,0koa da, eta % 51,2koa atzerrian jaio direnen artean.

Etxebizitza-zerbitzu publikoen erabilerari begiratuta, emantzipatutako gazteen % 61,4k ez du inoiz ere etxebizitza-zerbitzu publikoen baliabiderik erabili emantzipazio-bidea errazteko. Ehuneko hori handiagoa da, % 91,4koa, gurasoen etxean bizi diren pertsonen artean.

Gazteen emantzipazio-arazoei irtenbidea emateko bide bat izan daitezke Etxebidek bultzatzen dituen etxebizitza-politika publikoak, baina, itxura batean, gazteek ez dute behar besteko informaziorik edo ez dute izena emateko behar den motibaziorik.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonek gazteen hurrenkera berean sailkatzen dituzten emantzipatzeko zailtasunak, ehuneko handiena duenetik txikienera: etxebizitzen kostu garestia, diru-iturri propio bat izateko zailtasuna, banku-kreditu bat eskuratzeko zailtasuna, gurasoen etxean bizitzeak dakarren erosotasunari uko egin nahi ez izatea eta, azkenik, familiak emantzipazioaren aurkako jarrera izatea.

Horrez gainera, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonek harreman handiagoa dute Etxebideko etxebizitza-zerbitzu publikoekin, eta horren arrazoia izango da, ziur asko, okupazio-tasa handiagoak eta soldata hobeak dituztela, eta, ondorioz, zerbitzu horrek arautzen duen eremuan etxebizitza bat eskuratzeko aukera handiagoa dutela. Horrez gainera, kontuan izan behar da etxebizitza publikoen sustapen-kopuruak behera egin duela azken urteetan; izan ere, Euskadin 6845 etxebizitza publiko jarri ziren salgai 2008an, eta 2017an, berriz, 1206.

# 7

# Ondorioak

Euskadin bizi diren gazteen emantzipazio-datuak, oro har, *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015* txostenak azaldutakoen antzekoak dira.

Euskadin, 20 urte baino gehiago daramatzagu gazteen emantzipazio berantiarra gizarte-arazo larria dela nabarmentzen. Izan ere, Euskadin, emantzipatzeko batez besteko adina 30 urte ingurukoa da datu hori biltzen hasi zenez geroztik, eta ziklo ekonomikoen aldaketek ez dute eragin handirik izan datu horretan.

Arrazoi asko daude errealitate horren atzean: luzatu egin dira ikasketa-ibilbideak, enplegua, soldatak eta higiezinen merkatuaren gorabeherak dira. Horrez gain, badira egoera horretan eragiten duten faktore kulturalak ere, hala nola familiarekiko atxikipena, eta segurtasuna balioestea ziurtasunik gabeko egoeren gainetik.

Eskola uztearen ehunekoa oso txikia dela Euskadin, eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiak baino gehiagok goi-mailako ikasketak amaitu dituela. Gurean oso zaila da ikasten aritzea eta, aldi berean, emantzipatzeko behar diren diru-sarrerak emango dituen enplegu batean lan egitea.

Turismoaren eta etxebizitza turistikoen goraldiak garestitu egin du alokairu-merkatua, eta egoera horrek are gehiago zaildu du etxebizitzen prezio garestiak eragindako egoera zaila. Zenbait faktorek bultzatuta, alokairuko etxebizitzen eskaera handitu egin da, eskaintza murriztu eta prezioa garestitu. Batik bat, Bilbon eta Donostian gertatu da hori. Etxebizitza publikoen prebalentzia gainerako probintzietan baino handiagoa da Araban, eta horren ondorioz, etxebizitzen sektore pribatua baliatzeko dirurik ez duten gazte gehiagok dute emantzipatzeko aukera lurralde horretan.

Gazte diren ala ez kontuan izan gabe, baliabide gutxi dituzten pertsonei zuzendutako politikak egitea dirudi irtenbide egokiena baliabide ekonomiko handirik ez dutenen emantzipazioa sustatzeko eta laguntzeko. Etxebizitza publiko babestuek, alokairukoek batik bat, bakarrik emantzipatzeko aukera eman dezakete, aukera horrek ezinezko baitirudi merkatu librean. Ikusi dugu, hala ere, gazteen emantzipazio-tasek ez dutela hobekuntzarik izan azken hamarkadetan, eta orain arte egin diren politikek ez dutela izan eraginkortasun handirik.

Azkenik, zera gogorarazi behar dugu: lan-merkatuan eragitea eta kalitatezko enplegua sortzea dela politika sozial eta demografiko onena.

# Bibliografia


APARICIO FENOLL, Ainhoa; CRESPO BALLESTEROS, Enrique (2017): «Fomento de la emancipación de los jóvenes: evidencias sobre el impacto del subsidio de alquiler español». *Revista de Estudios de Juventud 116.* 2017ko ekainan argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: http://www.injuve.es/observatorio/formacion-empleo-y-vivienda/revista-de-estudios-de-juventud-116-jovenes-y-vivienda [Kontsulta: 20/08/2018]

BALLESTEROS, Juan Carlos; SANMARTÍN, Anna (2017): «Emancipación en tiempos de crisis». *Revista de Estudios de Juventud 116.* 2017ko ekainan argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: http://www.injuve.es/observatorio/formacion-empleo-y-vivienda/revista-de-estudios-de-juventud-116-jovenes-y-vivienda [Kontsulta: 20/08/2018]

BECK, Ulrich (1998): *¿Qué es la globalización? Falacias del globalismo, respuestas a la globalización.* Editorial Paidós. Bartzelona.

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren; LONGO IMATZ, Oskar y CORCUERA BILBAO; Nieves (2016): *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015* [linean] Eusko jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/emantzipazio_liburua_e.pdf [Kontsulta: 20/08/2018]

BOURDIEU, Pierre (2004): *El baile de los solteros.* Editorial Anagrama. Colección Argumentos. Bartzelona.

EL MUNDO (2018): *«Los jóvenes se resisten a ser propietarios de una vivienda»* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.elmundo.es/economia/vivienda/2018/02/19/5a8a91b4e2704e08108b4628.html [Kontsulta: 19/02/2018]

EL PAÍS (2018): *«Los problemas de las urbes para limitar el alquiler»* [linean] Hemen eskuragarri: https://elpais.com/ccaa/2018/08/26/catalunya/1535301126_114411.html [Kontsulta: 17/09/2018]

ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA(2017): *Higiezinen merkatua EAEn, 2016* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_sintesis16/eu_ovv_admi/adjuntos/sintesis2017_eu.pdf [Kontsulta: 17/07/2018]

ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA(2017): *Etxebizitza eta gazteak Euskadin* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_jovenes17/eu_ovv_ana/adjuntos/gazteak.pdf [Kontsulta: 17/07/2018]

ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA(2017): *2017eko Alokairuaren Politikaren ebaluazio txostena* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_alquiler2017/eu_ovv_admi/adjuntos/alokairua_2017.pdf [Kontsulta: 17/07/2018]

ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA(2018): *2013-2017ko etxebizitza babestuaren eskaria eta eskuratze-tasak Euskadiko eremu funtzionaletan* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_efectividad2017_af/eu_ovv_admi/adjuntos/eranginkortasuna_ef.pdf [Kontsulta: 17/07/2018]

ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA(2018): *Higiezinen Eskaintzaren Inkesta (HEI). 2018ko lehen hiruhilekoa* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ovv_sectorvivienda_ofin_2018t1/eu_def/adjuntos/HEIren-Txostena-2018H1-eu.pdf [Kontsulta: 17/07/2018]

ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA(2018) *Euskadiko alokairuari buruzko txostena; Euskadiko, Estatuko eta EBko alokairuen azterketa konparatua* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_alqu_comparado/eu_ovv_admi/adjuntos/alokairua_konparaketa.pdf [Kontsulta: 23/07/2018]

EUROSTAT (Europar Batasuneko estatistika-erakundea): Taula estatistikoak. Gazteen adierazleak. Hemen eskuragarri: http://ec.europa.eu/eurostat/web/youth/data/eu-dashboard [Kontsulta: 20/08/2018]

EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA (2017): *Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren taula estatistikoak - HEI. 2017ko 4. hiruhilekoa.* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv_v_ofin_2017t4/eu_def/index.shtml [Kontsulta: 19/07/2018]

EUSTAT: Estatistika taulak: *Etxebizitzei buruzko udal estatistika: Euskal AEko etxebizitza familiarrak, lurralde-eremuaren arabera egitura-ezaugarriei jarraiki* [linean] Hemen eskuragarri: http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011300/Euskal_AEko_etxebizitza_familiarrak_lurralde-eremuaren_arabera_egitura-ezaugarriei_jarraiki/tbl0011354_e.html [Kontsulta: 20/03/2018]

EUSTAT: Estatistika taulak: *Etxebizitzei buruzko udal estatistika:* Euskal AEko famili etxebizitza nagusiak, lurralde-eremuen, ekipamenduen arabera (%) [linean] Hemen eskuragarri: http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011300/Euskal_AEko_famili_etxebizitza_nagusiak_lurralde-eremuen_ekipamenduen_arabera_/tbl0011355_e.html [Kontsulta: 20/03/2018].

FERLUGA, G. (2018): «La fuerte subida de precios resucita la creencia de que alquilar es tirar el dinero» El País, Madril: 2018ko maiatzaren 21ean argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: https://elpais.com/economia/2018/05/21/actualidad/1526858195_905727.html [Kontsulta: 17/09/2018]

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2007): *Euskadiko Gazteen Panoramika. Gazteen adierazleak 2007: Etxebizitza emantzipazioa* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_panoramika/eu_liburuak/adjuntos/panoramika_2007_e.pdf [Kontsulta: 20/03/2018]

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2018): *Euskadiko Gazteen Panoramika. Gazteen adierazleak 2017* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/gazteen-adierazleak-2017-euskadiko-gazteen-panoramika/r58-7651x/eu/ [Kontsulta: 20/03/2018]

GRACIA, Eva; LÓPEZ OLLER, Joffre (2017): *Emancipación residencial: el coste de acceso sólo cuenta parte de la historia* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.injuve.es/sites/default/files/2018/06/publicaciones/revista116_documentos5.pdf [Kontsulta: 20/03/2018]

KRUGMAN, P. (2013): «¿Una depresión permanente?» El País, Madril: 2013ko azaroaren 24an argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: https://elpais.com/economia/2013/11/22/actualidad/1385142585_896442.html [Kontsulta: 19/02/2018]

LAVANGUARDIA (2018): «Los precios de la vivienda impiden la emancipación de los jóvenes». Bartzelona, 2018ko urtarrilaren 29an argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: http://www.lavanguardia.com/economia/20180129/44381705661/precios-vivienda-emancipacion-jovenes.html [Kontsulta: 29/01/2018]

LONGO IMATZ, Oskar; BILBAO GAZTAÑAGA, Miren; CORCUERA BILBAO, Nieves (2017): *Euskadiko Gazteak 2016* [linean] Eusko jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/euskadiko_gazteak_16_e.pdf [Kontsulta: 20/03/2018]

LÓPEZ LETÓN, S. (2018): «España vuelve a especular con la vivienda» El País, Madril: 2018ko irailaren 2an argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: https://elpais.com/economia/2018/08/30/actualidad/1535643025_269129.html [Kontsulta: 17/09/2018)

LÓPEZ OLLER, Joffre (2017): *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016* [linean]., Gazteen Euskal Behatokia (koord.), Bilbao. Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/emantzipazio_kostea_2016_e.pdf [Kontsulta: 20/03/2018]

MORENO MÍNGUEZ, Almudena (2017): «Apuntes sobre las nuevas transiciones habitacionales de los jóvenes en España en el contexto de crisis económica». Jóvenes y Vivienda. *Revista de Estudios de Juventud.* 2017ko ekainan argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: http://www.injuve.es/sites/default/files/2018/06/publicaciones/revista116_documentos2.pdf [Kontsulta: 20/03/2018]

PONCINI, Helena (2018): «España se distancia todavía más de Europa en emancipación juvenil». El País, Madril, 2018ko otsailaren 21ean argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: https://elpais.com/economia/2018/02/21/actualidad/1519218013_773816.html [Kontsulta: 21/02/2018]

SANCHEZ CABALLERO, Daniel (2018): «Cada vez tenemos menos niños, pero tiene arreglo: el futuro está en la inmigración». El diario.es, Madril, 2018ko ekinaren 24an argitaratua [linean] Hemen eskuragarri: https://www.eldiario.es/sociedad/natalidad-deploma_0_784971601.html [Kontsulta: 24/06/2018]

# Grafiko eta taulen aurkibidea

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA


1.1. grafikoa. 16-29 urteko gazteen okupazio nagusia, adin-taldeen arabera (%) ..... 18

1.2. grafikoa. Lanean ari diren 16-29 urteko gazteen kontratu mota, sexuaren arabera (%) ..... 20

1.3. grafikoa. Langabeziaren eta aldi baterako lanen bilakaera 16-29 urteko gazteen artean (%) ..... 20

1.4. grafikoa. Lanean ari diren 16-29 urteko gazteen lanaldi mota, sexuaren arabera (%) ..... 21

1.5. grafikoa. 16-29 urteko gazteek bizitzeko erabiltzen dituzten diru-sarreren jatorria (%) ..... 22

1.6. grafikoa. 16-29 urteko gazteek bizitzeko erabiltzen dituzten diru-sarreren jatorria, adin-taldeen arabera (%) 24

1.7. grafikoa. 16-29 urteko gazteen banaketa, hilean izaten duten diruaren arabera (%) ..... 25

1.8. grafikoa. 16-29 urteko gazteen diru-sarrerei buruzko adierazleen bilakaera (%) ..... 26

1.9. grafikoa. Batez besteko soldataren eta hilean 900 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonen ehunekoaren bilakaera. 16-29 urteko eta 30-34 urteko kolektiboen arteko alderaketa ..... 27

1.10. grafikoa. 30-34 urteko langileen aldi baterako lana eta lanaldi partziala, sexuaren arabera (%) ..... 28

1.11. grafikoa. Lanean ari diren gazteen eta norberaren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnen ehunekoen bilakaera. 16-29 urteko eta 30-34 urteko kolektiboen arteko alderaketa (%) ..... 29

2.1. grafikoa. 16-29 urteko gazte emantzipatuak, adin-taldeen arabera (%) ..... 32

2.2. grafikoa. Euskadiko 16-29 urteko gazte emantzipatuen kopuruaren bilakaera (%) ..... 33

2.3. grafikoa. Euskadiko 16-29 urteko gazte emantzipatuen kopuruaren bilakaera, jaiolekuaren arabera (%) . 34

2.4. grafikoa. Gurasoekin bizi diren 16-29 urteko gazteak. Euskadi eta EB28 alderatuta (%) ..... 35

2.5. grafikoa. Batez besteko emantzipazio-adinaren bilakaera Euskadin, sexuaren arabera (adina urtetan) . 36

**2.6. grafikoa.** EB28ko estatu kideetako batez besteko emantzipazio-adina (urtetan) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 37

**2.7. grafikoa.** Euskadiko 16-29 urteko gazteek emantzipatzeko egoki iritzitako adinaren eta benetako emantzipazio-adinaren arteko aldea, sexuaren arabera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 39

**2.8. grafikoa.** Emantzipatuta bizi nahi duten 16-29 urteko pertsonen ehunekoaren eta jada emantzipatuta daudenen arteko aldea, adin-taldeen arabera (%). . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40

**2.9. grafikoa.** Emantzipatuta bizi nahi duten gazteen eta benetan emantzipatuta daudenen arteko aldearen bilakaera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40

**2.10. grafikoa.** Emantzipatu gabeko gazteek bizitzeko nahi duten etxeari buruzko lehentasunen bilakaera (%) 42

**2.11. grafikoa.** 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen banaketa, norekin bizi diren kontuan hartuta (%) . 43

**2.12. grafikoa.** 16-29 urteko gazte emantzipatuen bizikidetza-egoeraren bilakaera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . 44

**2.13. grafikoa.** Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen aurreikuspenak etxebizitza aldatzeari buruz, eta erosteko edo alokatzeko asmoa (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 46

**2.14. grafikoa.** Emantzipatutako 16-34 urteko pertsonak, adin-taldeen arabera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 47

**2.15. grafikoa.** Emantzipatuta bizi nahi dutenen eta jada emantzipatuta daudenen arteko aldea: 16-29 urteko eta 30-34 urteko adin-taldeen arteko alderaketa (%). . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 47

**2.16. grafikoa.** Emantzipatuta bizi nahi duten 30-34 urteko pertsonen ehunekoaren eta emantzipatuta daudenen arteko aldearen bilakaera (%). . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 48

**3.1. grafikoa.** Emantzipatutako 30 urtetik beherako gazteen banaketa, etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 54

**3.2. grafikoa.** Emantzipatutako 30 urtetik beherako gazteen banaketaren bilakaera, etxebizitza eskuratutako moduaren arabera (%). . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 55

**3.3. grafikoa.** Jabetzako etxebizitzetan edo alokairuan emantzipatutako 16-29 urteko gazteak, lurralde historikoen arabera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 57

**3.4. grafikoa.** Alokairua hautatzeko arrazoiak 16-29 urte-bitarteko gazte emantzipatuen artean (%) . . . . . . 59

**3.5. grafikoa.** Emantzipatutako 16-29 urteko gazteek alokairua hautatzeko argudiatutako arrazoien bilakaera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 60

**3.6. grafikoa.** Atzerrira lanera joateko gogo handia edo nahikoa duten 16-29 urteko pertsonak, okupazio nagusiaren eta adin-taldeen arabera (%) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 61

**3.7. grafikoa.** Etxebizitza guztien batez besteko azaleraren eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen etxebizitzen azaleraren arteko konparazioa, lurralde historikoaren arabera ($m^2$) . . . . . . . . . . . 64

**3.8. grafikoa.** Etxebizitza eskuratzeko moduaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean (%). . 67

**3.9. grafikoa.** Etxebizitza eskuratzeko moduaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen artean (%). . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 68

**3.10. grafikoa.** Alokairuko erregimenean bizi diren 30-34 urte bitarteko pertsonek alokairuaren alde egiteko dituzten arrazoiak (%) . . . 70

**3.11. grafikoa.** Etxebizitza babesturen batean jabetza-erregimenean edo alokairuan bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak, lurralde historikoaren arabera (%) . . . 73

**3.12. grafikoa.** Etxebizitza guztien batez besteko azaleraren eta 16 eta 29 urte bitarteko nahiz 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen etxebizitzen azaleraren arteko konparazioa, lurralde historikoaren arabera ($m^2$) . . . 74

**4.1. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuek hilean izaten dituzten hipotekako eta alokairuko gastuak, udalerriaren tamainaren arabera (€) . . . 82

**4.2. grafikoa.** Hipoteka-kuoten eta alokairu-errenten zenbatekoek Euskadin izan duten bilakaera eta 16 eta 29 urte bitarteko gazteek ordaintzen dituzten kuotekiko eta errentekiko konparazioa (€) . . . 83

**4.3. grafikoa.** Alokairua edo hipoteka ordaintzen ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa, beren diru-sarreretatik ordainketa horiek egiteko baliatzen duten ehunekoaren arabera (%) . . . 85

**4.4. grafikoa.** Alokairua edo hipoteka-mailegua ordaintzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen batez besteko soldataren, batez besteko hipoteka-kuoten, batez besteko alokairu-errentaren eta gainesfortzu ekonomikoaren bilakaera . . . 86

**4.5. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa, familiarengandik jasotzen duten laguntza ekonomikoaren arabera (%) . . . 89

**4.6. grafikoa.** Hipoteka edo alokairua ordaintzen duten pertsona emantzipatuen bilakaera, ordaintzailearen arabera. 16-29 urteko eta 30-34 urteko kolektiboen arteko alderaketa (%) . . . 92

**4.7. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen banaketaren konparazioa, familiarengandik jasotzen duten laguntza ekonomikoaren arabera (%) . . . 93

**4.8. grafikoa.** Alokairua edo hipoteka ordaintzen ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketaren eta egoera horretan dauden 30 eta 34 urte bitartekoen banaketaren arteko konparazioa, beren diru-sarreretatik ordainketa horiek egiteko baliatzen duten ehunekoaren arabera (%) . . . 94

**4.9. grafikoa.** Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztenen eta zailtasunak izango dituztela aurreikusten dutenen ehunekoaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen artean (%) . . . 96

**5.1. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, emantzipazioarekiko egoeraren arabera (%) . . . 100

**5.2. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen bilakaera, etxebizitza erosteko edo alokatzeko duten lehentasunaren arabera (%) . . . 103

**5.3. grafikoa.** Alokairua lehenesteko arrazoiak 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean (%) . 104

**5.4. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeek alokairua lehenesteko dituzten arrazoien bilakaera (%) . . . 105

**5.5. grafikoa.** Gurasoen etxeko gastuak ordaintzeko ekarpenak egiten dituzten 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, okupazio nagusiaren arabera (%) . . . 106

**5.6. grafikoa.** Gurasoen etxean bizi eta etxe horretan diru-ekarpen erregularrak egiten dituzten gazteen bilakaera (%) . . . 106

**5.7. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen banaketa, emantzipazioarekiko egoeraren arabera (%) . . . 107

**5.8. grafikoa.** Etxebizitza erosteko edo alokatzeko lehentasunaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen artean (%) . . . 108

**5.9. grafikoa.** 16 eta 29 urte eta 30 eta 34 urte bitartean izan eta etxean diru-ekarpen erregularrak egiten dituzten pertsona emantzipatu gabeen ehunekoaren bilakaera (%) . . . 109

**6.1. grafikoa.** Etxebizitzaren prezio garestia hura erosteko edo alokatzeko zailtasun izan dutela adierazten duten 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (%) . . . 112

**6.2. grafikoa.** Etxebizitzen prezio garestiak emantzipatzeko zailtasuna dakarrela dioen iritziaren bilakaera. Emantzipatutako gazteen eta emantzipatu nahi duten gazte emantzipatu gabeen arteko konparazioa (%) . . . 113

**6.3. grafikoa.** Diru-iturri propioak izateko zailtasuna emantzipatzeko zailtasun izan dutela adierazten duten 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (%) . . . 114

**6.4. grafikoa.** Diru-iturri propioak izateko zailtasuna emantzipatzeko zailtasun izan dutela adierazten duten 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuak, jaiolekuaren eta gizarte-maila subjektiboaren arabera (%) . . . 114

**6.5. grafikoa.** Diru-iturri bat izatea emantzipatzeko zailtasun dutela adierazi dutenen bilakaera. Emantzipatutako gazteen eta emantzipatu nahi duten gazte emantzipatu gabeen arteko konparazioa (%) . . . 115

**6.6. grafikoa.** Banku-kreditu bat lortzeko zailtasuna emantzipatzeko zailtasun izan zaiela adierazten duten 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuak, sexuaren, gizarte-maila subjektiboaren eta jaiolekuaren arabera (%) . . . 116

**6.7. grafikoa.** Banku-kreditu bat lortzeko zailtasuna emantzipatzeko zailtasun dutela adierazi dutenen bilakaera. Emantzipatutako gazteen eta emantzipatu nahi duten gazte emantzipatu gabeen arteko konparazioa (%) . . . 117

**6.8. grafikoa.** Familiaren aurkako jarrerak emantzipatzeko zailtasuna dakarrela dioen iritziaren bilakaera. Emantzipatutako gazteen eta emantzipatu nahi duten gazte emantzipatu gabeen arteko konparazioa (%) . . . 118

**6.9. grafikoa.** Familiarekin bizitzen duten erosotasunari uko egin nahi ez izatea emantzipatzeko zailtasun zaiela irizten diotenen bilakaera. Emantzipatutako gazteen eta emantzipatu nahi duten gazte emantzipatu gabeen arteko konparazioa (%) . . . 119

**6.10. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen eta emantzipatu gabeen banaketa, etxebizitza sozial bat edo babes ofizialeko etxebizitza bat jabetzan edo alokairuan eskuratzeko asmoa duten eta etxebizitza-zerbitzu publiko batean izena emanda dauden ala ez aintzat hartuta (%) . . . 120

**6.11. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen emantzipazio-zailtasunak (%) . . . 122

**6.12. grafikoa.** 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen banaketaren konparazioa, etxebizitza-zerbitzu publikoekin duten harremanaren arabera (%) . . . 122

# TAULEN AURKIBIDEA

**1.1. taula.** 16-29 urteko gazteen okupazio nagusia, sexuaren eta jaiolekuaren arabera (%) . . . . . . . . . . . . . . 19

**1.2. taula.** 16-29 urteko gazteek bizitzeko erabiltzen dituzten diru-sarreren jatorria, sexuaren eta jaiolekuaren arabera (%) . . . . . . . . . . 23

**2.1. taula.** Gurasoengandik emantzipatutako 16-29 urteko gazteak, sexuaren, okupazio nagusiaren eta jaiolekuaren arabera (%) . . . . . . . . . . 32

**2.2. taula.** Emantzipatuta bizi nahi duten 16-29 urteko gazteen eta adin horretan emantzipatuta daudenen arteko aldea, sexuaren, adin-taldeen eta okupazio nagusiaren arabera (%) . . . . . . . . . . 41

**2.3. taula.** Norekin bizi diren emantzipatutako 16-29 urteko gazteak, sexuaren, adin-taldeen eta jaiolekuaren arabera (%) . . . . . . . . . . 45

**2.4. taula.** Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen etxeetan bizi diren pertsonen kopurua, jaiolekuaren eta okupazio nagusiaren arabera (%). . . . . . . . . . 45

**2.5. taula.** 30 urtetik gorakoen eta beherakoen arteko alderaketa, norekin bizi diren kontuan hartuta (%) . 49

**2.6. taula.** Emantzipatutako 30-34 urteko pertsonak norekin bizi diren, sexuaren eta jaiolekuaren arabera (%) . 49

**3.1. taula.** Etxebizitza eskuratzeko modua 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen artean, sexuaren, klase sozial subjektiboaren eta jaiolekuaren arabera (%) . . . . . . . . . . 56

**3.2. taula.** Emantzipatutako 16-29 urteko gazteen bizikidetza-egoera, etxebizitza eskuratzeko modalitatearen arabera (%) . . . . . . . . . . 57

**3.3. taula.** Jabetzarekin lotutako etxebizitza eskuratzeko aukerak 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen artean, jaiolekuaren, gizarte-maila subjektiboaren eta hilean daukaten diruaren arabera (%). . . 58

**3.4. taula.** Etxebizitza libreak erosteko edota errentan hartzeko batez besteko prezioen bilakaera (euroak). 60

**3.5. taula.** Emantzipatutako 30 urtetik beherako gazteen banaketaren bilakaera, etxebizitza eskuratzeko modalitatearen arabera, eta etxebizitza libreak eta babestuak bereizita (%) . . . . . . . . . . 62

**3.6. taula.** Etxebizitza babestuetan bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%) . . . . . . . . . . 62

**3.7. taula.** Salmentako babes ofizialeko etxebizitzen edo etxebizitza sozialen bilakaera, lurraldeen arabera 63

**3.8. taula.** Berogailua eta/edo igogailua duten etxebizitzen ehunekoen konparazioa, etxebizitzen parke osoan eta emantzipatutako 16 eta 29 urteko gazteen etxebizitzetan, lurralde historikoaren arabera (%) . . . . . . . . . . 65

**3.9. taula.** 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen etxebizitzen ekipamendua, jaiolekuaren, gizarte-maila subjektiboaren eta hilean eskuragarri duten diruaren arabera (%) . . . . . . . . . . 65

**3.10. taula.** Etxebizitza eskuratzeko moduen konparazioa 30 urtetik beherako eta gorako pertsona emantzipatuen artean (%). . . . . . . . . . 66

**3.11. taula.** Etxebizitza eskuratzeko modua 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen artean, lurralde historikoaren, jaiolekuaren, gizarte-maila subjektiboaren eta hilean eskuragarri duten diruaren arabera (%) . . . . . 69

**3.12. taula.** Etxebizitzaren jabetza eskuratzeko aukeren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean (%) . . . . . 69

**3.13. taula.** Alokairuko etxebizitzaren batean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuek alokairuaren alde egiteko dituzten arrazoi nagusien konparazioa (%) . 71

**3.14. taula.** Etxebizitza babestuetan bizi diren 30 urtetik beherako eta gorako gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera eta konparazioa, etxebizitzaren erregimenaren arabera (%). . . . . 72

**3.15. taula.** Berogailua, igogailua, trastelekua eta/edo garajea 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen etxebizitzetan. Ehunekoen konparazioa, lurralde historikoaren arabera. Etxebizitzen parke osoaren batez bestekoarekiko konparazioa (%) . . . . . 75

**3.16. taula.** 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen etxebizitzen ekipamenduak eta azalera, jaiolekuaren, gizarte-maila subjektiboaren, hilean eskura duten diruaren eta etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera (%) . . . . . 76

**4.1. taula.** 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuek hilean egiten duten etxebizitza-gastua (alokairu-errenta edo hipoteka-kuota), lurralde historikoaren, jaiolekuaren eta udalerriaren tamainaren arabera (€) . . 81

**4.2. taula.** Hipoteka edo alokairua ordaintzen duten 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen banaketaren bilakaera, ordaintzailearen arabera (%) . . . . . 84

**4.3. taula.** Alokairua edo hipoteka-mailegua ordaintzeko gainesfortzu ekonomikoa egiten ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, lurralde historikoaren, jaiolekuaren, gizarte-maila subjektiboaren eta hilean eskuragarri duten diruaren arabera (%) . . . . . 87

**4.4. taula.** Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuak, lurralde historikoaren, jaiolekuaren, gizarte-maila subjektiboaren eta hilean eskuragarri duten diruaren arabera (%) . . . . . 88

**4.5. taula.** Familiarengandik laguntza ekonomikoa jasotzen dute 16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuak, etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunen arabera, gainesfortzu ekonomikoaren arabera, etxebizitza eskuratzeko modalitatearen arabera eta hilean eskuragarri duten diruaren arabera (%) . . . . . 90

**4.6. taula.** Hipoteka-kuoten eta alokairu-errenten bilakaera, eta 16 eta 29 urte bitarteko herritar emantzipatuen, 30 eta 34 urte bitarteko herritar emantzipatuen eta Euskadiko jendarte osoaren egoeren arteko konparazioa (eurotan) . . . . . 91

**4.7. taula.** 16 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuek hilean egiten duten etxebizitza-gastua (alokairu-errenta edo hipoteka-kuota), lurralde historikoaren eta udalerriaren tamainaren arabera (eurotan). . . . . 92

**4.8. taula.** Hipoteka edo alokairua ordaintzen eta horiek ordaintzeko gainesfortzu ekonomikoa egiten ari diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, lurralde historikoaren, jaiolekuaren eta hilean eskuragarri duten diruaren arabera (%) . . . . . 95

**4.9. taula.** Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuak, jaiolekuaren, gizarte-maila subjektiboaren, hilean eskuragarri duten diruaren eta etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera (%) . . . . . . . . . . 96

**5.1. taula.** Gurasoen etxean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazio-aurreikuspena, aurreko emantzipazio-bizipenen, adin-taldeen eta okupazio nagusiaren arabera (%). . . . . . . . . . 101

**5.2. taula.** Gurasoen etxean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazio-aurreikuspenak, sexuaren, hilean eskuragarri duten diruaren eta lurralde historikoaren arabera (%) . . . . . . . . . . 102

**5.3. taula.** Gurasoen etxean bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonek emantzipatzeko lehenesten duten bidearen bilakaera (alokairua ala jabetza), lurralde historikoaren arabera (%) . . . . . . . . . . 104

**6.1. taula.** Etxebizitza libre berrien salneurriaren, etxebizitza berri babestuen prezioen eta etxebizitza libreen alokairuko batez besteko errentaren arteko aldeak 2017an, lurralde historikoen arabera (€) . . . . 112

**6.2. taula.** 16 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, etxebizitza-zerbitzu publikoetan izena emanda dauden aintzat hartuta, eta lurralde historikoaren eta gizarte-maila subjektiboaren arabera (%) 121

**6.3. taula.** Etxebizitza-zerbitzu publikoetan inoiz ere izenik eman ez izanaren arrazoiak 16 eta 29 eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean (%) . . . . . . . . . . 123